

# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2013-05-10  
EGUBAKOITZA  
552. ZENBAKIA  
13. URTEA  
DOAKOA  
GOIENA.NET  
TOKIKOM

## "Osakidetzak kalitatezkoa izaten segituko du"

Jon Darpon  
Osasun sailburua | 10



## Debagoieneko 19 pilotu Gorlako igoeran

Bihar, zapatua,  
15:00etan hasiko da proba | 30

GEHIGARRIA, BARRUAN

Autoen gaineko orrialde bereziak | 19



Lanbide Heziketaren azoka egin dute laugarren aldiz | 2



Antzerki maratokia bihar Eskoriatzan, herritarrek antzeztu eta antolatuta | 32

## 75 urte ospatzeko, erretaula berritua Angiozarren

Goimendiko San Migel Monte ermita berritu zuteneko urteurrenean, San Migelen jatorriaren gaineko erretaulen kopiak jarri dituzte; jatorrizkoak Gasteizko Elizbarrutiaren museoan daude | 11



Angiozarko Goimendi auzoan dauden erretaulak. | GOIENA

## Fagorrendako 70 milioiko laguntza, astelehenean

Mondragonen kongresuan bozkatuko dute | 4

# Hutsune handia utzi du Joseba Larrinagak

Haren aldeko omenaldi gehiago izango dira | 5 eta 30

## Gipuzkoako diputatu nagusia Eskoriatzan

Bertako errealitatea ezagutzen izan zen atzo, eguna | 25

### SINADURAK



ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6 |  
ELKARRIZKETA 10 | HERRIAK 11 | KIROLA 30 |  
KULTURA 32 | ZURE IRAGARKIAK 35 |  
TELEBISTA-IRRATIA 35 | ESKELAK 36 |  
EZKONTZAK 37 | NON-ZER 38

**AUDIFONOETAN %20**  
ARTEKO BEHERAPENA MAIATZAREN 31 ARTE

ENTZUMEN-OSASUN EZIN HOBEAZ GOZATZEA  
USTE DUZUNA BAINO ERRAZAGOA DA.

**GAESen ENTZUMENA DOAN**  
aztertuko dizugu.  
Eta orain gainera zorro tolesgarri bat opari.

www.gaes.es

**GAES**  
Entzumen Zentroak

Otalora Lizentziatua 18 • Tel.: 943 71 27 93 • ARRASATE | Zurradero 10 • Tel.: 943 76 94 55 • BERGARA

# Europako lana, erdi mailako tituludunendako

Kualifikatutako teknikari gero eta gehiago beharko dira, eta Lanbide Heziketak giltzarri izan nahi du

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Debagoieneko Lanbide Heziketaren laugarren azoka, Goiaz!, egin dute eguaztanean eta eguean, eta bistan geratu da jendartaren beharrekin eta eskaerekin batera, Lanbide Heziketa zentrozen helburuak ere aldatzen joan direla: lehenengo azokaren helburua Batxilergoko eta DBHko ikasleak erakartzea bazen, orain Lanbide Heziketaren eskaintza jende guztiari zabaltzea da. Aurten ere hala izan da. MUko Goi Eskola Politeknikoko Gorka Aretxagaren esanetan, "Lanbide

Heziketa denondako da, eta gaur egun, are gehiago". Horregatik, goi mailako ikasketak aukeratu behar dituzten gazteez gain, heldu asko joan dira azokara aurten, Lanbide Heziketak erakartzen duen jende mota guztien erakusgarri. Hala, langileak, langabeak eta seme-alabak ondo aholkatu gura dituzten gurasoak ere ibili dira Goiaz! azokan.

Lanbide Heziketako zentrozen eta Debagoieneko Mankomunitatearen helburua honakoa da: ikasketak horiei prestigioa ematea eta langabeziatik irteteko edo lanpos-

tu hobe lortzeko aukerak handitu ditzaketela. Gorka Aretxagaren hitzetan, "Lanbide Heziketako ikasketek, industrian eta zerbitzuetan, prestigio handia dute, eta ingeniariak eta teknikariak elkarlan estua dute. Alemanian, adibidez, oso harro daude euren Lanbide Heziketako teknikariez".

#### EAE ez dator bat Europarekin

Datuak eskuan hartuta, ematen du Lanbide Heziketako ikasketek lanerako aukera onak emango dituztela Europa osoan. Garapen Agentziako Amaia Irizarrek eman-



Lanbide Heziketaren Goiaz! azoka egin dute eguaztanean eta eguean Kulturaten. | JULIEN

dako datuen arabera, lana duen jendearen prestakuntza maila desberdina da Europan, Euskadin eta Espainian: Euskadin, 2010ean, langileen % 51k goi mailako titulua zuten; % 27,5ek, oinarriko prestakuntza maila; eta bakarrik % 21,5ek zuen erdi mailako tituluren bat; 27en Europan, aldiz,

lanean zegoen jendearen ia erdiek (% 48,9k, hain zuzen ere) erdi mailako tituluren bat zuten, eta % 27,8k, goi mailakoa. Hori bat dator 2020. urterako egin diren aurreikuspenekin: urte horretan, Europako Batasuneko lanpostuen % 50 erdi mailako kualifikaziodun langileendako izango direla kal-

Promociones  
**Erregetxo Plaza**  
Bergara

**Bergarako hirigune historikoan**  
63 etxebizitza, libre, tasatu,  
BOE, garaje eta lokalak

INFORMAZIO ETA SALMENTA:  
ORTELBAR, S.L.: 943 76 11 18  
LOTZEN, S.L.: 943 76 11 23

**GARAIZ ZABILTZA!**  
Bergarako hirigune historikoan  
2, 3 logelako etxebizitzak.

- ✓ Lehenengo mailako materialak
- ✓ Sukalde ekipatuak, logela armairuak

**Informazio guztia gure web orrian.**

Sartu eta ikusi

[www.promocioneserregetxoplaza.com](http://www.promocioneserregetxoplaza.com)



IRIONDO

kulatzen da; % 35, goi mailako kualifikaziodunendako; eta bakarrik % 15, kualifikazio txikia dutenendako. Hau da: EAEn nahi baino erdi mailako tituludun gutxiago dago.

#### Jakintza praktikoa

Irizarren hitzetan, "gazteak presatuta etorri arren, ez dira nahikoak izango lan horri erantzuteko; beraz, gaur egungo langileak ere formatu egin beharko dira lanpostu horiek bete ahal izateko". Garapen Agentziaren iritziz, "interesgarria izango litzateke gaur egun kualifikazio-maila baxua duen jendea Lanbide Heziketako Erdi Mailako ziklo batera bideratzea". Gero, hortik abiatuta, Goi Mailako Heziketa Zikloren bat egin dezakete, edo beste titulazio bat ikasi...

Beste aukera bat ere badago, Lanbide Heziketaren Sistema Integratua delakoaren eskutik, eta horren berri eman zuten Goiaz! azokan ere. Hain zuzen, sistema horrek aukera emango die, lanbide bat jakin baina titulurik ez dutenei, hura lortzeko.

Gorka Aretxagak erakusten du Lanbide Heziketako ikasketak Unibertsitatekoen parekoak direla: "Jende askok, bere izaerarengatik edo trebezia motengatik, ez ditu gustuko ikasketak teorikoak; eginez ikasi gura izaten dute eta formazio mota praktikoarekin sentitzen dira eroso".

#### "Konfiantza ematen du"

Gaur egungo krisi egoeran ere, Lanbide Heziketa gomendatzen du Roberto Lozano bergararrak. Berak orain 10 bat urte egin zituen Lanbide Heziketako lehenengo ikasketak, Mekanizatu arloan, eta 10 urtean lanean ibili ondoren, goi mailako zikloko Gizarte Integrazio ikasketak egin zituen.

Berak orain 10 urte topatu zuen egoera eta gaur egungoa oso desberdinak izan arren, Lozano Lanbide Heziketa gomendatzen du: "Nire ustez, enpresek

badute Lanbide Heziketako tituludunen eskaera. Lanbide Heziketak oso ondo prestatzen ditu pertsonak lanerako, eta oso praktikoa dira; lanean hasten zaren lehenengo egunean badakizkizu, gutxi gorabehera, lanaren nondik norakoak". Berari, Lanbide Heziketak "lanean jarduteko erremintak eta ezagutzak" eman dizkio, eta ikasi zuena lanean errealitatearekin bat zetorrela konturatu zen lanean hasi zenean.

Imanol Gonzalezek Lanbide Heziketako Diseinu ikasketak aukeratu zituen: "Hemen eta kanpoan, prestakuntza teknikoaren duten gero eta jende gehiago eskatzen zutela ikusi nuen. Gero, gaur egungo egoera ikusita, ikasten jarraitzea eta gradua egitea erabaki dut".

Gonzalezek Robotek izeneko talde baten parte hartu du eta robota egin du talde horrek. Europako txapelketa irabazi zuten eta AEBetako txapelketan leku onean geratu ziren. Lanbide Heziketan ikasi zutena erabili behar izan zuten robota egiteko.

Orain, praktikak egiten hasi da Gonzalez: "Konturatu naiz Lanbide Heziketan, diseinuan, diseinatzen dugun makina ezagutzen dugula; eta graduan formatzen dituzten ingeniariak ez dutela horrelako ezagutza".

Gonzalezek jendea animatzen du Lanbide Heziketa egitera: "Egiten ditugun gauzak oso ondo ezagutzen ikasten dugulako; adibidez, bizikleta bat konpondu behar baduzu, bere mekanika jakiteak konfiantza ematen dizu".

#### ESANAK

**"Larregiko kualifikazio maila dago orokorrean Euskadin"**

JORGE AREVALO  
LANBIDE HEZIKETARAKO SAILBURUORDEA

**"Langileak ere prestatu behar dira datorren demandari erantzuteko"**

AMAIA IRIZAR  
GARAPEN AGENTZIA

**"Lanean hasi nintzenetik banekien zer egin behar nuen"**

ROBERTO LOZANO  
LANBIDE HEZIKETAKO TITULUDUNA

**"Alemanian oso harro daude euren Lanbide Heziketako teknikariez"**

GORKA ARETXAGA  
MGEP-EKO ARDURADUNA

#### DATUAK

**% 21**

TITULUDUN

Euskadiko langileen % 21,5ek bakarrik dute erdi mailako tituluren bat; Europako Batasunean, % 48,9k.

**% 41**

BIZTANLE

Debagoieneko 10 urtetik gorako biztanleen % 41,54k oinarritzko ikasketak dauzka bakarrik, Euskadin baino gehiagok.

#### "Gure 'on-line' irudia indartu daiteke"

Internet ez da lana topatzeko tresna magikoa, baina erabilgarria izan daiteke eta norberak bere alde izatea komeni da. Mezu hori bidali zuten Mondragon Goi Eskola Politeknikoko irakasleek Goiaz azokako hitzaldi baten.

Miguel Fernandez Arrieta irakasle eta ikertzailearen esanetan, "lanpostua bete nahi duenak, gure curriculum irakurtzeaz gain, Google-n gure gaineko informazioa bilatuko du, seguruenik, eta norberak duen irudia zaintzea komeni da". Horretarako gomendioak ematen ditu; lehenengo, norberak bere burua bilatzea Google-n, baina larritu gabe, izan ere, "normalean ez da ezer arrarorik agertzen".

Behin hori eginda, "norberaren on-line irudia indartzeko moduak daude", Fernandezek dioenez. Hauek dira ikasleei ematen dien gomendio batzuk: norberak bere buruaren gaineko aurkezpen-bideoa grabatzea eta Youtuben ipintzea; edo, idaztea gustatzen bazaio eta gai jakin batean zer esateko badauka, bloga egitea; edo LinkedIn sare sozial profesionalen profila eta curriculum izatea. Ez da beharrezkoa hori dena egitea, kasu bakoitza desberdina da; baina bai "enpresa batek gure gaineko informazioa bilatzen duenerako, Interneten dugun presentzia hobetzea".

BADIRA ATE BAT IREKITZEAN  
HASTEN DIREN AMETSAK.

**"MU TELEBISTAN  
PRAKTIKAK EGITEAK  
LAN MUNDUA GERTUTIK  
EZAGUTZEKO AUKERA  
EMATEN DIT."**

Odei Esnaola, Ikus-Entzunezko  
Komunikazioko 3.mailako ikaslea.



PREST

**MONDRAGON  
UNIBERTSITATEA**

**ATE IREKIAK**

**Goi Eskola Politeknikoa**

ARRASATE - MAIATZAK 11 larunbata, 10:30

**Enpresagintza Fakultatea**

BILBAO, Bilbao Lab - MAIATZAK 25  
larunbata, 11:00

**Humanitate eta Hezkuntza  
Zientzien Fakultatea**

ESKORIATZA - MAIATZAK 25 larunbata, 11:00

ARETXABALETA - MAIATZAK 25 larunbata, 11:00

**Gastronomia Zientzien  
Fakultatea-Basque Culinary Center**

DONOSTIA - MAIATZAK 25 larunbata, 10:30

ARETO NAGUSIAN

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI ↓

902 110 436

www.mondragon.edu/prest



# Astelehenean egingo dute Mondragonen kongresua 650 ordezkari Amaian

Fagor Etxetresnen aldeko dirulaguntza fondoa sortzearen gainean bozkatuko dute, besteak beste

**LEIRE KORTABARRIA** | ARRASATE  
Mondragon Korporazioko kooperatiba guztietako 650 ordezkari batzartuko dira astelehenean, hilak 13, Arrasateko Amaia Antzokian, korporazioaren urteko kongresurako. Kongresua 15:00etan hasiko da eta atek itxitako batzarrak izango da.

Zalantza barik, gai-zerrendako puntu garrantzitsuen diru-fondo berri bat sortzearen gainekoa izango da. Kongresuak hura sortzea onartzen badu, 70 milioiko dotazioarekin jaioko da, eta helburu nagusia Fagor Etxetresna Elektrikoei laguntzea izango da.

Fondoa sortzearen alde edo kontra bozkatzeko orduan, kongresuak kontuan izango ditu Fagor taldeak bere batzar orokorretan hartu dituen erabakiak. Fagor taldeak bihar, zapatua, bukatuko ditu bere batzarrak; izan ere, Fagor

Ederlanen txanda izango da bihar. Baina Fagor Etxetresnen batzar orokorrak hartutako erabakiek izango dute pisu handiena, fondoko diru-laguntza kooperatiba horrendako izango delako.

## Soldata jaitsi

Fagor Etxetresnetako bazkideek bi egunetan egin zituzten batzar orokorrak. Martitzenean 2.000

bazkideetik gora batu ziren Uarkape pilotalekuan. Eguaztenean, Basaurikoak (Edesa) batzartu ziren. Bertan, soldatak beste koska bat jaitea baloratu eta bozkatu zuten; hain zuzen, % 6,48 jaitea, % 80ra arte. Boto horiek astelehenean zenbatuko dituzten arren, ezuste handirik ez badago, bazkideek onartu egingo dute proposamena; izan ere, konpainiak datozen urteotan aurrera eroan nahi duen plan estrategikoaren bidetik doa, eta laguntza-fondoa sortzeko baldintza da.

Astelehenean zenbatuko dituzte ere batzarrean eztabaida handiena piztu zuen punturen gaineko botoak: hain zuzen, bazkideen lanpostua seme-alabei uzteko puntua kentzea proposatzen zen. Hori ere Fagor taldeko kooperatiba guztiek banan-banan bozkatu dute.



Fagor Etxetresnen batzar orokorretik irteten, martitzenean. | L.K.

Bestalde, kontseilu errektoreko zazpi postu berritzea edo aukeratzea egokitu zitzaion Fagor Etxetresnetako bazkideei; besteak beste, presidentea aukeratu behar zuten. Xabier Bengoetxea izendatu dute presidente gisa. Kontseilu Errektorearen eta Kontseilu Sozialaren hautagaia zen. Zuzenbidean EHUn lizentziatua da eta 2008tik kon-

painiako Giza Baliabideetako zuzendaria izan da, eta Kontseilu Errektoreko kidea orain bi urtetik. KontseiluBerria inizatibak bere lehendakari gisa ere proposatu zuen.

## Gestio plana, aurrera

Etxetresnen batzar orokorreko beste gai garrantzitsuenak ere onartu egin zituzten kooperatibek: 2013ko aurrekontuak eta gestio plana eta 2012ko aurrekontuak, besteak beste.

Aurtengo gestio planaren helburua hau da: salmentei eustea atzeraldian dauden merkatuetan, eta "nazioarteko merkatu estrategikoetan" haztea, Fagorren marka nagusiak sendotuta, produktu berriak merkaturatuta eta Fagorrek Egoketa lerroan duen lidergoari eusteko inbertsio-plana martxan jartzea.



## INPLANTEAK

PRGF (plasma) teknikarekin.

Prezio ezin hobean  
(12 hilabetean ordaintzeko aukera)



## HORTZAK ZURITZEA

Phillips-en Zoom White Speed (merkatuko teknikarik berriena)

### Abantailak:

Egokia sentsibilitate handia dutenendako.  
Esmaltea birmineralizatzea ahalbidetzen du.

**Promozio berezia: 290 euro**

Eskaintza baliagarria, maiatzean, ekainean eta uztailean



## INVISALIGN

Brackets-en ordezkaria

Hortzak zuritzea doan!  
Eskaintza baliagarria, maiatzean, ekainean eta uztailean

Gardena, kentzeko erraza, eroso.



## HARRI ZURI

HORTZ KLINIKA

Ibargarai 21, behea - BERGARA  
Tel.: 943 25 34 34 - 664 47 05 72

### Astelehenetik ostiralera:

09:00 - 13:00 / 14:00 - 20:00

### Zapatuetan:

Aurrez deituta.

**Astebukaeran urgentziaren bat baduzu, deitu lasai mugikorrera!**

Punta-puntako teknologia erabiltzen dugu

Medizina erregeneratzailea lantzen dugu (PRGF plasma), zikatrizazio hobea lortzeko eta hobeto osatzeko

Kromoterapia eta Shiatsu erlaxatze teknikak erabiltzen ditugu, lasai senti zaitezten



# Larrinagaren heriotzak samin handia eragin du

Auto batek harrapatuta hil zen Joseba Larrinaga aretxabaletarra, martitzenean, bizikletan zihola

GOIATZ ARANA | ARETXABALETA

Atzo, eguena, egin zituzten Joseba Larrinaga aretxabaletarraren aldeko hileta elizkizunak, Aretxabaleto parrokiaren. Eta datozen egunotan, hura gogoan izateko ekimen gehiago izango dira jaioterrian eta gura ibarrean.

Besteak beste, Aretxabaleto Udalak erabaki du domekan egitekoa den Ojala Zelaiko krosari Joseba Mardo izena ipintzea. Kirola, mendia eta herrigintza uzartzen dituen proba izanik, Larrinagaren ezaugarriekin bat egiten duela uste dute. Sari banaketan

minutu bateko isilunea egingo dute eta Ana Bolinaga alkateak hartuko du hitza herriaren izenean Larrinagari omenaldia egiteko.

## Txirrindulariek ere bai

Bailarako txirrindulariek ere egin nahi diote omenaldia. Dorletako Ama elkarteko presidente Iñigo Azkaratek esan duenez, ideia da Aretxabaleto Aramaiora mar-txa zikloturista egitea. Joseba Larrinaga hildako tokira lore sorta eraman gura dute (atzo, eguena, bazegoen bat) eta, bide batez, txirrindulariek errepidean

bizi duten arrisku egoerak salatu. Litekeena da martxa hori datorren aste bukaeran egitea.

Eta gurean ez ezik, bestela ere egin dituzte bestelako omenaldiak Larrinagarengatik. Atzo, adibidez, Bilbon Saiatuz Fundazioak elkarretaratzea egin zuen.

## Istripu baten ondoren

Joseba Jon Larrinaga Perea aretxabaletarra bizikletan zihola auto batek harrapatu ostean hil zen, martitzenean. 18:00etan gertatu zen istripua, A-2620 errepidean, Aramaioko saihesbidean, 30. kilometroan. Txirrindularia ia uanean hil zen. Osakidetzaren helikopteroa ere bertaratu zen, baina medikuek ezin izan zuten ezer egin.

Ertzaintzak aditzera eman duenez, txirrindularia harrapatu zuen autoa beste auto bat aurreratzen ari zen istripua gertatu zenean. Ford Mondeo eta Renault Megane izan ziren autoak. Gara-biarekin eraman zituzten biak.

Aldiz, gidarietako baten lagun batek gezurtatu egin dio GOIENARI hala izan zenik. Ez zela izan auto batek bestea aurreratzen zegoenean. Pertsona horrek eta Ertzaintzaren prentsa bulegotik



Joseba Larrinaga. | GOIENA

baieztatu digute, hori bai, bi auto-aren arteko istripua izan zela aurrena, eta txirrindulariaren harrapatzea ostean. Edozein kasutan, oraindik argitzeke dago nola izan zen istripua; Ertzaintza datuak biltzen ari da eta ikerketa hasi du gertatua argitzeko.

30. orrialdean informazio osagarria.

Informazio gehiago: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



# Bidezko merkataritza eta ekologia oinarri azoketan

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Bidezko merkataritzaren nazioarteko eguna da bihar, zapatua, eta hainbat ekimen antolatuta ditu Harreman bidezko merkataritza dendak. Oraingo asteburuan hasi eta bi asteotan gauzatuko dira: bihar, bidezko merkataritzako postuak jarriko dituzte Ekobiran (Aretxabaleto) eta baserritarren azokan (Aramaion). Kafea, kakoa, kosmetikoak... eskainiko dituzte postuotan, Etiopiatik, Txipastik, Nikaragutatik, Kolonbiatik, Ekuadortik... ekarritakoak. Guztiak ere, Harreman, AMS, Hiruatx, Banoia eta Anelkar gobernuz kanpoko erakunde bidezko merkataritzako filosofiaren arabera, garapen bidean dauden herrialdeetan ekoizteko eta ekoizleek eurek antolatutako kooperatiben bitartez ekarritakoak.

## Ekobira, Aretxabaletoan

Bestalde, Ekoizle ekologiko, ekintza jasangarri eta halakoak oinarri dituen Kutxa Ekobira azoka bihar egingo dute, 10:30etik 14:30era eta 16:30etik 19:30era, Aretxabaleto herriko plazan. Eta horrekin batera, bisitariendako hiru ikastaro izango dira, doan: balkoi baratzek egitekoa (etxeko balkoi-erako, 11:00-14:00); altzari birziklatuena (etxeko produktuekin, 11:30-14:00) eta krema eta xaboiak egitekoa (etxetik ekarritakoekin, 17:00-19:00).

# Atxiloketak salatzen manifestazioa deitu dute Arrasaten

'Gatazkaren konponbidean atxiloketarik ez' leloarekin aterako da, Seber Altubetik, 19:30ean

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

"Ideologia eta siglen ginetik, etorkizuna iraganeko estrategia antzuekin eraiki ezin den ustea duzuenok gonbidatuta zaudete"; berba horiekin egin zuen manifestaziorako gonbita Iker Hernandezek, Ikasle Abertzaleak taldeko kideak, eguaztenean.

Manifestaziorako dei egiteaz gain, Kepa Arkauz eta Julen Mendizabal arrasatearrek jaso dezaketen tratuegatik kezka azaltzeko eta atxilotuei eta haien senitatekoiei babesa erakusteko prentsaurrekoa egin zuten Arrasateko osoko bilkuren aretoan. Norbanakoez aparte, hainbat eragile hartu zuten parte: Eusko Alkartasuna, Aralar, Gorripidea, Sortu, Alternatiba, LAB, ESK, Ikasle Abertzaleak, Euskal Herriaren Euskaraz, Askapena, Ernai, Gazte Abertzaleak...

## "Politika errepresiboa"

"Beste behin ere, espainiar eta frantziar estatuen jarrera salatu



Amaia Larrañaga eta Iker Hernandez, eragilez inguratuta. | J.BEREZIARTUA

nahi dugu. Duela 18 hilabete ETAK bere jardura armatuaren amaiera iragarri arren, bi estatu hauen politika errepresiboak ez du aldaketarik izan. Gure herrian azken hilabete hauetan ezer aldatu ez balitz bezala jokatzeko ari dira; espetxe politikaren mantentzea,

ilegalizazio mehatxuak eta euskal herritarren atxiloketak dira horren adibide garbiak", salatu zuen Amaia Larrañagak, Udala Gobernu zinegotziak. Era berean, herritarrei konponbidearen bidean eragile "aktibo" izateko eskatu zuen Bilduko zinegotziak.

Arkauz eta Mendizabal martitzenean atxilotu zituen Guardia Zibilak Frantziako poliziarekin elkarlanean, beste lau lagunekin batera. Ustez, ETaren hornikuntza lanetan aritzen ziren; gaineratu dute "zelula klandestinitoko kide aktiboak" direla. Arkauz faltsifikazio taldeekin lotu dute; Mendizabal, auto lapurrekin.

**ULMA** ULMA Servicios de Manutención, S. Coop Oñati

**OHIKO BATZAR NAGUSIA**  
D E I A L D I A

**Eguna:** 2013ko maiatzaren 17a.  
**Ordua:** 14:30ean lehen deialdia eta 15:00etan bigarrena.  
**Tokia:** ULMA Taldeko auditoriuma - Oñati (Gipuzkoa)

**GAI ZERRENDA**

1. 108 zenbakiko bazkideak aurkeztutako errekursoaren ebazpena. Errekurtsoa, Kontseilu Errektoreak 2012ko abenduaren 11n bera kooperatibatik kanporatzeko hartu zuen erabakiaren aurkakoa zen.
2. Aurreko aktaren onarpenari buruzko informazioa eta bazkideak izendatzea Batzar honetako akta onartzeko
3. 2012ko ekitaldiko memoria irakurtzea eta onartzea eta 2013ko gestio plana berrestea
4. ULMA Taldeari buruzko txostena
5. 2012ko ekitaldiko urteko kontuak aztertzea eta, badagokio, onartzea
6. 2012ko ekitaldiko emaitzak banatzea
7. Heziketa eta Kooperatiba Sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako kontribuzioa aplikatzea (IPDK)
8. Supraegiturako entitatei buruzko gaiak
9. POGU III eta ULMA Servicios de Manutención, S. Coop.eko Estatutu Sozialak eta Barne Araudi Kooperatiboa aldatzea, hala badagokio
10. ULMA Servicios de Manutención, S. Coop.eko Estatutu Sozialak 22. artikulua aldatzea, hala badagokio
11. Ekonomia araubideko estatutu-xedapenak
12. Menpeko Ekarpenei Finantzarioren jaulkipena
13. Zaintza Batzordeko kideak berritzea
14. Kontseilu Sozialako kideak berritzea
15. Ahalmenak eskuordetzea
16. Galde-eskeak.

**OHARRAK:** Bazkide guztiak jakinarazten zaie eskubidea dutela, ULMA Servicios de Manutención, S. Coop.eko helbide sozialean Gai Zerrendaren 1. puntuan aipatutako espediente zigortzaileari buruzko dokumentazioa aztertzea. Halaber, bazkideei gogorarazten zaie sozietatearen egoitzan eskuragarri dituztela urteko kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kontuen kanpo ikuskaritzak egindako gestio txostena, Batzar Nagusiaren deialdiaren epean zehar aztertu ahal izan dituzten.

Bazkide guztiak jakinarazten zaie eskubidea dutela, ULMA Servicios de Manutención, S. Coop.eko helbide sozialean, proposatutako estatutuaren, Barne Araudiaren eta POGU IIIaren aldaketan testu osoa aztertzea, eta doan emateko edo bidaltzeko eska dezaketela.

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA  
Oñati, 2013ko maiatzaren 3a



**Gazteak  
negozio  
berriekin lanean**

ULMA Taldeak, bere fundazioaren bidez, Oñatiko Zuazola Institutuko Startinnova proiektua babestu du. Batxilergo edo Lanbide Heziketako 16 eta 17 urteko gazteei zuzenduta, helburua izan da negozio ideia berrien proposamenak egitea. Zuazola Institutuak bi taldetan parte hartu du: Uralur eta Izerdi enpresak, biak ala biak kirola sustatzeko helburuarekin.

## ZABALIK

JON ETXEBERRIA  
http://goiena.net/iritzia/



## 'Déjà vu'

Krisiak aldaketa asko ekarri ditu hainbat arlotan, ez bakarrik pertsonengan eta ekonomian, baizik eta herrialde desberdinen irudian ere bai. Duela urte gutxi, Estatuak irudi indartsu eta berritzailea zuen munduan, "Espainia Marka". Kirolari bikainen herrialdea, energia berriztagarrien erreferentia, dirua erraz irabazteko lurraldea, etab. Europa guztian "Espainiar mirakuluaz" hitz egiten zen.

Baina hori ez da beti horrela izan. 90eko hamarkada erdialdean, Estatuaren irudia guztiz desberdina zen. %24ko langabeziarekin herrialde azpigaratu bat bezala ikusten zuten askok. Horrela bizi izan nuen nik 1997an Frantziara ikastera joan nintzenean. Gogoratzen dut, adibidez, behin, gelakide batek errespetu handiz eta mirespen puntu batekin horrela esan zidala: "Ze gogorra izan behar duen zuendako hona etortzeak, familiaratik urrun, hizkuntza arrotz batean eta bereziki arratsaldeetan gelara etorri beharra sies-tarik egin gabe...".

Duela aste batzuk, lanean nengoela *déjà vu* sentsazio arraro bat izan nuen, denboran atzera eraman ninduen. Multinazional alemaniar batetik deitu zidaten proiektu europar garrantzitsu batean parte hartzera gonbidatuz. Proiektuaren detaileak eman ondoren, beraien ustez proiekturako partner bikainak ginela esan zuten eta asko poztuko zirela proiektuan parte hartuko bagenu. Proiektuaren ezaugarriak eta garrantzia ikusirik eta gonbidatzen gintuen enpresaren prestigioa kontuan izanik, gutan pentsatze hutsa harro egoteko modukoa zen. Agurtu aurretik, alemanek zera esan zidaten: "Beste gauza bat eskatu nahi dizuegu: zuetaz gain, beste bi herrialde pobretako enpresen parte-hartzea behar dugu proiektuan, Espainiakoak bertakoak edo Portugal, Grezia edo Italiakoak izan daitezke. Lagundu ahal diguzue enpresa bi horiek aurkitzen?".

Krisiak denboraren makinan sartu eta berriz ere 90eko hamarkadara eraman gaituela dirudi...

## "Duela urte gutxi, Espainiak irudi berritzailea zuen munduan..."

## USTEAK USTE


INAZIO ARREGI | iarregi@goiena.com

## Tortura eta tratu txarrak

CPTk, torturaren prebentziorako europar batzordeak, astindu ederra eman die espainiar estatuari, polizia indarrei eta epaitegiei. Batzuei atxilotuak torturatzeagatik eta beste denuntziak behar bezala ez ikertzeagatik. Estatuak ohi duen bezala, gaitzetsi egin ditu txostenaren emaitzak, gomendioak gutxietsi, eta poliziaren eraginkortasunean eragingo luketela argudiatu du. Hor geratuko da txostena. Hedabideetan ere ez dugu gaiaz askorik irakurri. Ez da komeni. Txostenak aztertutako hamaika tortura kasuetatik hamar sinesgarritzat jo ditu, bortxaketa bat barne. Norbanakoaren eskubideak eta duintasuna bermatzen ez duen estatuak ez du *demokratiko* izenlaguna merezi.

## MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | http://goiena.net/iritzia/



## HANDIK ETA HEMENDIK

## Libertatea

Anjel Lertxundi Esnal  
http://berria.info/blogak/lertxundi/

*Laissez faire*, edo utzi egiten.

Eman, eman askatasun osoa diruari.

Eten sokak eta apurtu kateak, kapitalak berez daki-eta bere bidea egiten.

Kendu arauak, urritu legeak, merkatuak baditu-eta bereak.

Ziurtatu bakea, zaindu jabego pribatua, gobernuak muga bitez beren zeregin nagusiok betetzera.

Langaik merke erosi, manufaktura garesti saldu, etekinak sakratuak dira.

Merkatu libre batean, lan merkatuak ere libre behar du.

Alfonbra gorria espekulazioari, doako barra enpresari eta bankuei, gobernu lokalen konplexu probintzianoa finantzen unibertsaltasunari.

*Laissez passer*, edo utzi pasatzen, ez hartu lapurtu digutenean eta hondoratu gaituztenean kontrako neurririk.

Zaindu, zaindu kapitala, babestu bankuak, bultzatu espekulazioa, praktikatu ustelkeria, saritu aberatsak eta zigortu pobreak, ustiatu

mundua eta gizendu altxorrak, libertatea behar baitugu, oi, libertatea, zein eder den gauza batzuetarako...

## Lurralde erakunde eta kapitalismo globalaren arteko tartea

Luis Aranberri 'Amatño'  
http://eibar.org/blogak/amatino/

Kapitalismoak –alde zein kontra egon– betidanik segurtatu nahi izan ditu jendeak maite dituen balio bi: oreka eta segurtasuna.

Egungo kapitalismoak, ostera, ezer eskaintzen baldin badu zera da: orekarik eza eta segurtasun falta.

Aurrengo bider bere historialar.

Lurraldetasunik eta gardentasunik eza.

Hona egungo kapitalismoak proposatzen dizkigun erronkak (*La gobernanza del capitalismo global*, Daniel Innerarity. HERMES aldizkaria, 43 zbk, 2013).

Batetik, kapitalismoa globala da gaur egun, tokian tokiko estatu-nazioen erabaki eta ahalmen "leuntzaileen" gainetik.

Azken urteotan erabat mugatu dira estatuaren erabaki-ahalmenak baina, aldi berean, ez zaizkie eskuduntza horiek erakunde globalei luzatu.

Plano bitan ari dira: barrenean, estatuak, ezinean, euren lurralde mailako ahalegintxoetan.

Eta, gorenean, kapitalismoa hegan, muga guztien gainetik.

Bestetik, finantza-sistemaren arkitektura gero eta konplexuagoa, beti ere estatuaren kontroletik at.

Gardentasuna gero eta urriagoa, eta arriskuak gero eta lausoagoak.

Nazio mailako banketxeak ez dira inondik ere gauza kapitalismo globalaren jardura behatzeko eta zelatatzeko.

Irtenbidea, teoriak, bat baino ez: lurralde erakunde eta kapitalismo globalaren arteko tartea murriztu; eta, burokrazia antzuen gainetik, egoera berria arautzeko moduko eredu aproposagoak asmatu eta indarrean jarri.

goiena  
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiboa Elkarte  
E05 Basabe Poligonoa,  
20550 ARETXABALETA  
**Lehendakaria** Estepan Plazaola  
**Zuzendari nagusia** Iban Arantxabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate  
**Erredaktore burua** Ibane Madera  
**Sailietako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Kepa Martelo  
**Argazkilaria** Imanol Soriano  
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Zierza Martin, Imanol Elortza  
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.  
**Harpidetza eta banaketa** Maria Leturia.  
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berebizar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER**  
**ARRASATE 20500:**  
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

**ORDEZKARITZA**  
**ARETXABALETA 20550:**  
E05 Basabe Poligonoa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05  
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.com

**Legu Gordailua:** NA-3329/2000  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 20.100 ale  
**Diffusioa:** 19.951 ale



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritza  
diruz lagundutako  
aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

# Maiatzean, eskaintza berezia sukaldeko altzarietan

**%25eko  
beherapena  
sukaldeko altzarietan**



Zerbitzu osoa

[www.kibuc.com](http://www.kibuc.com) jarrai gaitzazu  

**KIBUC** Gure Ametsa

[gureametsa@kibuc.com](mailto:gureametsa@kibuc.com)  
Landeta Hiribidea, 1 - 20730 Azpeitia  
Tel. 943 15 16 81

**KIBUC**

Azkenean gure etxean

## Eskerrik asko!

**Aitor Madina**

(Jose de Azpiazu musika eskola)  
Oñati

Joan den apirilaren 27an Oñatin ospatu zen Musikaldia dela eta, Jose de Azpiazu Musika eskolatik gure eskerrik beronak eman nahi dizkizuegu parte hartu zenuten guztioi –ikasle, irakasle, gurasoak–, baita egun horren antolaketa aritu zineten guztioi ere, zuek gabe ez baitzen posible izango gure helburua betetzea.

Bestalde, eskerrik asko ere Eusko Jaurlaritzari, Euskal Herriko Musika Eskolen Elkarteari eta Oñatiko Udalarari eskainitako laguntzagatik, baita atzean egon diren enpresa eta entitate laguntzaileei ere.

Ea aukeratu genuen leloak, *Barrenetik sentitu, bizi, musika gozatu!*-k, gure egunerokotasunean eta luzaroan bizirik irauten duen. Adeptasunez.

## M-30: greba orokorra

**Jon Soba**

(Oñatiko Gazte Piketeruak)  
Oñati

Maiatza hilabete berezia da langile klasearentzat. Maiatzaren 1ean kalera ateratzen delako, behinola greba eta protestaren bidez, 8 orduko lanaldia errebendikatzen zuten langileen hilketa gogoratu eta langileen eskubideak aldarrikatzeko. Bai, gaur hain normaltzat hartzen diren 8 orduak grebaren bidez lortu ziren. Eta aurtengo maiatza are eta bereziagoa izango da, 30erako greba orokorra deitu dutelako euskal sindikatu eta eragile sozialek.

Greba orokorra da langile klaseak bere eskubideak defendatu eta lan baldintza duinak lortzeko duen tresnarik indartsuena. Baina grebak beste eredu sozial eta ekonomiko bat errebendikatze ere balio du. Azkenaldian jasaten ari garen erreforma, murrizketa, zapalketa eta pribatizazioek langile klasearen erantzun zuzena exijitzen dute.

Azken urteetan bizi dugun krisiaren ondorio bezala aurkeztu digute hau guztia, krisia estralurtarrek bidalitako zerbait izango balitz bezala. Krisi honetan kapitalaren jabetza oinarritu izan duten gizarte ereduak inongo zerikusirik izango ez balu bezala. Etengabeko hazkundean, zementuan eta boterearen zentralizazioan oinarritutako gizarte ereduaren bultzatzaileak izan dira egoera honetara eraman gaituztenak. "Daukaguna baino ez dugu gastatuko", esan zuen lehendakariak. Baina prest agertu da momentu honetan ez duten diru kopuru bat

# GUTUNAK

**Gutunek, gehienez, 1.900 karaktere izan behar dituzte (hutsuneak barne); luzeagoa bidaliz gero, GOIENAK eskubidea du laburtzeko; hala ere, saiaturako da egilearekin egoten hark labur dezan. Gutun bakoitzeko erantzun bakarra onartuko da; ez da onartuko erantzunaren erantzunik.**

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.

Gutuna helarazteko bideak dira: Oñatiko Lizentziaduna, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

aurreratzeko AHT bultzatzeko.

Lan egiteko eta ez greba egiteko garaiak direla esango digute enpresari eta patronalak. Grebak desitxuratu eta piketeak kriminalizatuko dituzte, langilea lokartzeko ahaleginetan. Grebak min egiten die, langileak kalera ateratzeak tripako minak dakarzikie, grebak ez duela ezertarako balio behin eta berriz esaten digute. Ez liokete hainbesteko garrantzirik emango greba egun bati, minik egingo ez balie.

Maiatzaren 30ean kalera atera beharra dago, borrokak bakarrik ekarriko digulako gutxi batzuen mesedetan oinarritzen den gizarte eredu honen suntsiketa.

Eskubide sozialen defentsan langileak grebara!  
Eskirolik ez!

## Eskerrik asko, Kurtzebarri Eskola

**Olaia Etxenautia**

(Antzerkian parte hartu dugun gurasoen izenean)  
Aretxabaleta

Azkenaldian bezala, aurten ere Kurtzebarri Eskolan Literatura astea ospatu da, 22. aldiz, apirilaren 22tik 25era bitartean. Urtero bezala, gure seme-alabek hainbat ekintza izan dituzte: Juan Kruz Igerabideren bisita, ipuin kontaketak, irakurketa saioak... Andersen idazlearen ipuinak ardatz izanda ekintza ezberdinak egin dituzte. Literatura munduan erabat murgildurik umeek ederto pasa zuten egun horietan.

Asteari amaiera emateko, eskolak gurasoei ekintzetan parte hartzeko aukera eskaini zizun eta Andersen idazlearen idatzitako *Enperadorearen jantziak* ipuina antzeztu genuen. Gure hitzak emandako aukera eskertzeko dira, esperientzia ederra eta paregabea bizi izan genuen. Eskolako aretoan elkartu ginen hainbat egunetan Iurgi Etxeberria aktorearen gidaritzapean eta gauza asko ikasi genituen: elkarlana, imajinazioa landu, parte-hartzea... Antzerki mundua ezagutzen ez dugun gurasoak gara gehienok eta oso polita izan da ikasitakoa. Eguneroko ardurak alde batera utzi eta gure seme-alabentzako zerbait prestatu eta beraien

aurrean agertzea berezia izan da; batez ere, gehienetan alderantziz izan ohi delako.

Ikastetxea aspalditik ezagutzen dugunok bagenekien gurasoen inplikazioa garrantzitsua izan dela beti Kurtzebarri Eskolarentzat, eta oraingoan ere horrela izan da. Komunitatearen parte sentitu gara eta eskolak egindako esfortzua eskertu beharrean gaude. Eskerrik asko, denoi! Zuzendaritza taldeari, irakasleei, eta bereziki Gurutze Urrutia irakaslea eskertu nahi dugu emandako laguntzagatik, guran jarritako konfiantza eta erakutsitako segurtasuna ezinbestekoak izan baitira.

*Bihotzez ikasi* leloa geure egin dugu oraingoan: bihotzez ikasi eta maitasunez eskaini! Eskerrik asko guztiagatik eta jarraitu horrela!

## 'Sua', galduta Oñatin

**Yaiza Fernandez**

Oñati

Bada urtebete Oñatiko gazte batek txakurtegi batetik *Sua* txakurtxoa adoptatu zuela.

Txakurtegi batetik adoptatzean, txakurtxoak kontratu batekin irteten dira. Kontratuan, albatariarenean errebisioak, txertoa jartzea, esterilizazio konpromisoa eta, noski, txakurraren adopzio ondorengo jarraipen bat sinatzen dira. Noelia izan zen adopzio tramiteak egiten ziren bitartean txakurra etxean izango zuena. Horri *akojida* deitzen zaio. Beraz, *Sua* Oñatirantz abiatu zen bere familia berriaren bila. Orduetik hona, urtebete igaro da, Noelia, argazkirik ez ikustean, gaztearekin harremanetan jartzen saiatu da, behin eta berriz hara joango zela esanez txakurra ikustera; gazteak beti uko egiten zion, nola edo hala. Eta azkenean, egia argitara atera zen, bazen urtebete *Sua*-k ihes egin zuela Oñatiko inguruetara.

Noeliak galdetu zion ea zergatik ez zion lehenago abisurik eman, nola ez zuen bilatu, nolatan ez zuen salaketarik jarri; gaztearen erantzuna zera izan zen, blokeatuta geratu zela! Noeliak *batida* bat antolatu zuen. Jende talde bat bildu eta apirilaren 21ean (igandea) Oñati aldera abiatu ginen; Murgia auzora.

Kartel batzuk banatzen izan ginen *Sua*-ren argazki eta kontaktu batekin, galdezka ibili ginen, baina ezer ez, ez zen zorterik izan. Gure duda da benetan ihes egin zuen txakurra edota lagun bati eman zion? Kontratuan jartzen zuenez ezin ziola inori eman Noeliaren baimenik gabe, ihes egin ote zuela esan zigun?

Inguruko guztiei eskatu nahi nizueke, mesedez, txakurrik ikusiko bazenute inguruan galduta, hartu eta txipa pasatzeko, arren. Txipa oraindik martxan dauka; beraz, ez du inork hilik aurkitu txakurra edota bajaran eman. Eskatu nahi dizuet abisua emateko, *Sua* ikusten baduzue, mesedez, zenbaki honetara deituta: 653 71 56 56. *Sua* emea da, esterilizatuta dago, oso maitagarria eta pittin bat beldurtia da, marroi argi kolorekoa, eta muturrean badu marrazki antzeko bat zuri-zuria. Txipa martxan dagoenez, zerbaitek esaten digu oraindik esperantzak badaudela! Esker mila, bihotzez. Ez erosi; adoptatu! Eskerrik asko, denei, zuen denboragatik!

## Menu berria

**Jexus Urmeneta**

Bergara

Bi aste dira Gari Araolazak bere fruitu freskagarrien iritziz, eta Elgetako udaletxeko sukaldeetan egositakoaz, badira biak menu berri baterako eginak. Neu postrea egitera noa, ea ostean norbaitek infusioren bat prestatzen duen.

"Aizue!, ez gaitzazue jendea aspertu, nahikoa dugu bestela ere...", horrelaxe esan digu koadrilako lagun batek. Izan ere, martxa honetan, laster, GOIENA papereko irakurleok azala, *Joxe ta Piku* eta ezkontza-eskelak orrialdea besterik ez dugu irakurriko. Baina... gauzak geldirik dauden tokitik zertxobait ikararazten geuri guztioi dagokigun ardura baita, Elgetatik datorkigun prestatze-ereduaz zerbait egin nahi izanez gero, behintzat.

Banderizoen pasadizoaz ohar bat: 1977tik aurrera, Espainiako "demokrazia" hastear zebilela, ezker eta gazte mugimenduetatik hautesle zerrenda irekiak bultzatzeko kanpaina aldarrikatsua lau haizetara egin zuten, eta botoak alderdiei eman ordez,

pertsonei beraiei ematea zen helburua, alderdiak bereziki bigarren leerroan izanik. Era horretan erabaki izango bagenu!

Hemen, azkenaldian, "herriari hitza" esaera sarritan dago zaborra biltzeko modu berria ukatzen dutenen ahotan. "Madrila begira ez dugu egon behar, bertako herritarrei baizik", diote. Zubieta ez dago Manzanares ibai ondoan, ala bai?

Batzen den zabor guztia nahastuta erretzea geure teilatuari harrika jardutea bezala da. Eta norberaren etxeko defentsa eskubideak ez digu inori geure ataritik bertatik haratago baimenik ematen.

Horregatik, Tolosako Zero Zabor taldeak egunkari batean honela idatzi berri du: "A herriak ez dauka eskubiderik B herrira ze zabor eramango duen erabakitzeke, hori erabakitzeke B herriak erabaki behar du. A herriaren galdera egitea proposatzen duena esaten ari da B herriaren zaborra derrigorrez jaso behar dutela, eta horrek bi mailatako herriak egotea bultzatzen du".

## Mugikortasuna!

**Arantxa Iturbe**

Bergara

Hor dabilta gure agintariak aho betez esaten "mugikortasunaren aldeko apustua" egin dutela; azkena irakurri dudana ostiraleko GOIENAn, "garraio publikoaren sistema goitik behera aldatu dela", eta nik galdutako nieke hori zertan gauzatuko den, zeren nik ikusten dudana zera baita:

-Autobus geltokiak, gutxi eta herri bazterretan kokatuta, iluntasunez eta bakardadez beteta.

-Inguru industrialetan geltokirik ez eta Oñatiko kasuan, bailarako autobusen orduetegiak ez datoz bat bertako lanbusarekin.

-Autobusen ibilbide, orduetegi eta geltokiak, ez dakit norentzako pentsatuak; lanera egunero joaten garenoi, behintzat, ez zaizkigu egokitzen, eta beste batzuei ez dakit.

-Mugi txartela... bi hilabete pasa dira txartel berria eskatu nuenetik eta oraindik ezer ez; bitartean, txartel gabe nabil.

-Bidegorria, zati batzuetan "faraonikoa" asfaltoa, marrak, argiak... eta beste zati batzuetan lokatza, putzuak eta harri puntak bide erdian.

Nire iritziz, gure bailaran mugikortasunaren aldeko apustu batek beste gogo eta bultzada bat behar du, bailara osoa kontuan hartuta, beharbada, hiriburu bat izango bagina bezala, bailarako urbano eta lanbusak ezarriaz, ez herri bakoitzekoak, zeren askotan herri baten bizi gara eta beste batera mugitzen baikara lanerako, erosketak egiteko edo lagunekin egoteko...



# Zer eskaintzen digu **LANBIDE HEZIKETAK** Mariaren Lagundia Ikastolan?



**Mariaren Lagundia  
Ikastola**  
Espaloia 1  
Tel. 943 76 25 40 / 41  
ikastola@mlagundia.net  
www.mlagundia.net

## Haur Hezkuntza ko Goi Mailako Teknikaria

Esperientzia eta bizipenetan oinarritutako ikasketak.



**kalitatea**

**konfiantza**

**esperientzia**

**ATE IREKIAK:**  
maiatzaren 15a  
17:30ean  
**AURREMATRIKULAZIOA:**  
maiatzaren 27tik  
ekainaren 7ra

## Gizarte Integrazio ko Goi Mailako Teknikaria

Aurten adibidez, Gallineroko umeekin gozatzeko aukera izan dugu, bai Madrilen bertan eta baita gurean ere.



**estimulazioa**

**inplikazioa**

**praktikak**

**hurbiltasuna**

**ATE IREKIAK:**  
maiatzaren 15a  
17:30ean  
**AURREMATRIKULAZIOA:**  
maiatzaren 27tik  
ekainaren 7ra

**lan munduratzea**

Jon Darpon | Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburua

# "Osakidetzan murrizketak egon direla esatea ez da bidezkoa eta erreala"

- ▶ Osakidetzako langileei "epe jakin baterako ahalegina" eskatzen dabilta
- ▶ Maiatzaren 19an, domeka, 30 urte beteko ditu Osakidetzak

UBANE MADERA | ESKORIATZA

Jon Darponek, Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburua, hitzaldia egin du asteon Eskoriatzako batzokian. Haren bisita aprobetxatu, eta guztiondako horren garrantzitsua den osasun zerbitzuaren gainean galdetu diogu.

**Iragarri duzu zerbitzu bera aurrekontu txikiagoarekin eman beharko duela Osakidetzak. Zela?**

Eusko Jaurlaritzak planteatu du aurrekontu proiektuaren herena Osasun Sailera bideratzea, Euskadiko osasun sistema publikoa, unibertsala eta kalitatezkoa dela zaintzeko. Horixe da Urkulluk eman digun agindu nagusia eta hori izan behar da legealdiko gure helburua. Horrek, baita ere, esan gura du ahalegin handia egin behar dugula Osakidetzan enplegu publikoa mantentzeko. Osakidetzan murrizketak izan direla esatea ez da ez bidezkoa eta ezta erreala ere. Aurrekontua txikitzeak (%4) eragina izango du, batez ere, ezinbestekoak ez diren azpiegitura berrietan eta txikitzea espero dugun gastu farmazeutikoan.

**Sindikatuak, oraingo, atzera bota dute lantaldearen jarduna handitze-ko proposamena...**

Gure helburua izan da eta da sindikatuarekin elkarrizketarako aha-

legin etengabekoa mantentzea. Badakigu gure langileei ahalegin handia egiteko eskatzen gabiltzala, baina langile publikoak ezin dira Euskadiko errealitate sozial, ekonomiko eta laboraletik kanpo geratu. Arduratsuak izan behar dugu. Epe jakin baterako ahalegina eskatzen diegu, administrazio publikoan lanean ez dabiltzan gainontzeko euskal langileak egiten dabiltzan bera.

**Orain arte dirua errazegi gastatu da Osakidetzan, ala?**

Sekula ez dugu errazegi gastatu. Beti kudeatu dira baliabide publikoak arduraz. Orain, ahalegin handiagoa egiten segitu behar dugu posible bada; zuzendaria gutxitu, hobeto erosi, azpiegituren bikoizketa saihesteko... formulak aurkituz. Horixe egingo genuela esan genuen eta horixe egiten dihardugu. Arduraz gastatuko dugu, zerbitzu publikoa babestuz.

**Zein da, beraz, mezua?**

Helburu nagusia da euskal osasun zerbitzuak publikoa, unibertsala eta kalitatezkoa izaten segitzea. Osakidetzak maiatzaren 19an 30 urte beteko ditu euskaldunon zerbitzura, eta orain arte lortutakoa euskal autogobernuaren, erakundeen, Osakidetzaren eta, oro har, euskal gizartearen lor-



Jon Darpon, Osasun sailburua. | GIPUZKU BURU BATZARRA

pena da. Osakidetzak beti izan da kalitatezko zerbitzua eta datozen urteotan hala izaten segituko du. Herrialde honetako bizilagunekiko gure konpromisoa da hori. Urte asko daramatzagu Osakidetzak kudeatzen, eta ez dugu pribatizatu, bere kalitatean eta sistema publiko izaeran sinesten dugulako. Ez dut uste orain ezer erakutsi behar dugunik, gure ibilbideak gutzia erakusten du.

**Ibarrean hasita daude ahots kritikoak esanez Osakidetzako murrizketek eragin negatiboa izan dutela zerbitzuetan: larrialdietan, itxaron zerrenda luzeagoak, pediatrik eza...**

Benetan, uste dut ospitale desberdinak ezagutzen ditugula, ezen datuek kontrakoa esaten baitute. Eta Debagoineko Ospitalean arreta jasotzen duten pertsonak egunero ikusten dute hori ez dela horrela. Debagoinean eta Euskadiko gainontzeko herri edo bailaretan ematen den larrialdietako arretak ona izaten segitzen du. Edozein zerbitzutan moduan, badaude momentuak larrialdiek gainezka egin dezaketela, askok erabiltzen dituztelako, eta barkatu, baina pertsonok ez gara joaten arreta txarra ematen diguten lekuetara, beraz... Azken datuen arabera, ebakuntzetan, adibidez, bi egunean gutxitu dira itxaron zerrendak. Arrazoizko mugetan daude, osasun sistema publikoan itxaron zerrenda ezin da hutsa izan. Utz egidazu argitzen, baita ere, pediatrik eza herri askotan dugun arazoa dela, beste barik, 800 umeko pediatria bakarra dugulako, munduko herrialde gutxitan gertatzen den moduan. Gure arreta pediatrikoa kalitate gorenekoa

da. Egia da Osakidetzako langileei lan handiagoa eskatzen gabiltzala puntualki, Euskadiko milaka eta milaka langile egiten dabiltzan moduan. Beharrezko diren ordezkapenak egiten segituko dugu, eta beharrezkoak ez direnak, ez, edozein enpresatan moduan. Argi dago guztia hobe daitekeela, baina Osakidetzak eta gure langileek ematen duten zerbitzua ona da. Pentsatzen dut mundu guztia murrizketak izan ez daitezen kezkatuta badago, izango dela uste dugulako zerbitzu ona dugula eta ez dugula txartzerik nahi.

**Hala ere, badaude puntu batzuk oraindik ez daudela argi; kopagoarena, esateko... Zein puntutan dago? Jaurlaritzak sarri errepikatu du ez gaudela kopagoarekin ados. Ez**

**"Langile publikoak ezin dira Euskadiko errealitatekanpo geratu"**

**"Ebakuntzetan bi egunean gutxitu dira itxaron zerrendak"**

**"Langileak euskalduntzeko bigarren plana abiaraziko dugu"**

dela beharrezkoa, ez dela une egokia, ez dela irtenbidea eta gustatuko litzaigukeela ez aplikatzea. Dena den, Konstituzionalaren legeak derrigortu egiten gaitu, eta Estatuko gainontzeko ia leku guztietan orain dela urtebete funtzionatzen dabilen arren, gu izango gara neurria abiaraziko duen azken erkidegoa. Kopagoa aplikatuko dugu gure sistema informatikoak eta farmazietakoak herritarrei ahalik eta eragozpenik txikiena eragiteko gertu daudenean, eta Gobernuak pentsatzen duenean une egokia dela.

**Etorkizunerako "arazoetako" bat da herritarren zahartzea. Aurre egiteko moduan gaude?**

Osasun Sailaren lehenasunezko bost puntuetako bat da kronizitate, zahartzaro eta dependentziaren estrategia. Badakigu mendekotasuna duten eta nagusien beharrak desberdinak direla; horrexegatik onartu egin behar dugu osasun sistema eta baita babes sozialerako ere. Pertsona horiei zerbitzu egokia emateko gertu egon behar dugu, seguru aski gehien merezi dutenak dira. Urteak daramatzagu zentzu horretan lanean eta sakondu egingo dugu estrategia berri horretan.

**Esango zenuke Euskadiren ikurretako bat dela Osakidetzak?**

Gehiago esango nuke: Osakidetzak euskaldunen DNAn dago egun, eta ez dut uste Osakidetzak bako Euskadirik ulertzeko gauza izango ginenik. Osasun arreta ez dago euskaldunon arazo nagusien artean, gure gizarteak irtenbide ona aurkitu du eta irtenbidea Osakidetzarekin etorri da.

**Gure ibarrean aldaketa handia izan da Lagun Aroko osasun publikoak bere gain hartzea, eta horrekin lotuta zalantzak egon ere bazeuden. Zela txertatu da hori Osakidetzan?**

Lagun Aro gure gain hartu behar izan genuen Estatuak gizarte segurantzarekin kolaboratzen zuten enpresen erregimenarekin bukatu egin zuelako; Lagun Aro erregimen orokorrera pasa zen orduan. Bide batez, erregimen ona, euskaldunon gehienona. Hasieran zalantzak eragin zituen gaiak, baina uste dut gaur egun Osakidetzan arreta ona jasotzen dutela.

**Besterik gura baduzu gaineratu...** Gustatuko litzaidake gipuzkoarrei mezu positiboa helarazi Onkologikoarekin lanean dihardugulako Gipuzkoari onkologia zerbitzu osoa, bakarra eta kalitatezkoa eskaini ahal izateko. Herri askotan errezeta elektronikoa ezartzen gabiltza, zerbitzu erosoago eta seguruagoa emateko, eta espero dugu urte bukaerarako Gipuzkoako herri guztietan gauzatuko dela. Gure lurraldean suizidioak eta depresioa prebenitzeko proiektu pilotu batean dihardugu lanean. Biodonostia babesten segitu behar dugu, ikertzen segitu dezaten. Gure profesionalen artean euskalduntzeko bigarren plana abiarazi behar dugu, euskara egunerokoan normal erabil dezaten. Osabide, informazio kliniko bakarra, euskaraz ere eskaintzeko inbertitu behar dugu... azken batean Gipuzkoan eta Euskadin, orokorrean, Osakidetzak zerbitzu ona ematearen alde lanean segituko dugu.



AUZO LAGUN, KOOP.E. - ARRASATE

Estatutu Sozialen 32. artikulua dioenaren arabera, Ohiko Batzar Orokorrerako deia egiten da.

## OHIKO BATZAR NAGUSIA DEIALDIA

**DATA:** 2013ko maiatzak 25.

**ORDUA:** 10:30ean, lehen deialdia.  
11:00etan, bigarren deialdia.

**TOKIA:** Garaia Berrikuntza Gunearen Auditorioa (Arrasate).

### GAI - ZERRENDA

- 2012 ko BATZAR OROKORREKO AKTA ONARTZEARI BURUZKO TXOSTENA, ETA BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO BAZKIDEAK IZENDATZEA.
2. MEMORIAREN IRAKURKETA ETA ONARPENA.
  - 2012ko Kudeaketari buruzko akordioa.
  - 2013ko Kudeaketa Planaren onarpena.
  - 2013-2016 eperako Plan Estrategikoaren onarpena.
- 2012ko KONTUEN ETA BALANTZEAREN AZTERKETA.
- SOBERAKIN GARBIEN BANAKETA.
- EKONOMIA ARAUBIDEARI BURUZKO ESTATUTUEN XEDAPENAK.
  - Sarrera kuotak eta ekarpena.
  - Kapitalari egindako ordainketa.
  - IPDK aplikatzeko irizpideak.
- KONTSEILU ERREKTOREAREN JAKINARAZPENAK.
- MONDRAGON TALDEARI ETA ERKOP KOOPERATIBARI BURUZKO TXOSTENAK.
- BALIABIDEEN BATZORDEKO ETA KONTSEILU ERREKTORE KIDEAK BERRITZEA.
- GALDERAK ETA ESKARIAK.

Susana Roa.  
Lehendakaria

2013ko maiatzaren 15a

# HERRIAK

BERGARA

## Italiatik Angiozarrera San Migel nola iritsi zen ikasteko margoak

- ▶ Goimendiko San Migel Monte ermita konpondu zutela 75 urte bete dira aurten
- ▶ Jatorrizko taulak Labrazen zeuden eta Gasteizko Elizbarrutiko museoan daude egun

OIHANA ELORTZA | BERGARA

Baserritar bati ihes egin zezenak. Kobazulo batean sartu zen animalia. Bere nagusiak, orduan, balezta atera eta gezia jaurti zion, baina bide erdian buelta hartu eta berari sartu zitzaion begian. Hala ere, baserritarra ez zen hil. Harridura, gotzainari kontatzera joan zen. Hiru eguneko baraualdia eta otoitzaldia agindu zituen hark, eta kobazulo aurrera joan zen erromes. Han zeudela, San Migelen presentzia antzeman zuten, eta kobazuloan bertan eliza bat egiteko gogoaz aldudun gotzainari.

Harrezkero, hiru aldiz agertu zitzaion gotzainari San Migel kobazulo hartan. Gargano mendiko San Migelen santutegia erromesendako leku garrantzitsu bihurtu zen eta kristautasunaren eremuan eragin handia izan zuen.

### San Migel Txiki jaiak

Italiako Gargano mendian izan zen istorio hori V. mendean, 490. urteko maiatzaren 8an. "Horren harira, San Migel izena hartu zuten mundu osoko hainbat tonkor eta elizek; tartean, Angiozarko Goimendi auzoan dagoen ermitak. Maiatzaren 8an ospatu izan dira hemen beti jaiak. San Migel Txiki jaiak ere ospatzen dituzte data horren bueltan Oñatin, esaterako", argitu du Jose Anjel Mikeok, Angiozarko auzo-alkateak. Angiozarko Goimendi auzoko jaietan, San Migelen jatorria jasotzen duten istorioa kon-



Jose Anjel Mikeo Angiozarko auzo-alkatea, San Migel Monte ermitan, erretaulak atzean dituela. | JOSETXO ARANTZABAL

tatzen duten erretaulak jarri dituzte aurten hango ermitan. Joan den domekan egindako ospakizunetan jarri zituzten.

### Trintxerak

Erretaula horiek aurten jartzearren arrazoia da 75 urte pasa direla ermita hori konpondu zutenetik, gerra zibilaren ondoren. "Mende laurdena pasa da gerra zibilaren barruan tropak hemendik pasa zirenetik. Ermitaren behealdean ikus daitezke oraindik orduan eraikitako trintxerak.

Gure amak kontatzen zuen ermita konpontzea egunerokotasunera bueltatzeko modua zela. Gerrako gertaera horiek pasa eta normaltasuna, egunerokotasuna, berreskuratu gura zuten eta bide horretan garrantzitsua zen euren dako San Migel Monte ermita konpontzea eta txukuntzea", kontatu du Mikeok.

### Orduko kontu-liburua

Gaur egungo itxura 1863an hartu zuen ermitak, 1820an egindako elizari elizpea gehitu ziotenean.

### ESANAK

"Gerra ostean, eguneroko martxa berreskuratzeko garrantzitsua izan zen ermita konpontzea"

JOSE ANJEL MIKEO | AUZO-ALKATEA

Egun Angiozarko parrokiaren gordeta dagoen orduko kontu liburuak jasotzen duenez, bidekoei aterpea eskaintzeko eta batzarrak egiteko lekua izateko egin zuten elizpe hori.

1936-1937 urteetan bizi izandako Espainiako gerraren ondorioak ere jasotzen ditu liburuak beste dokumentu batean, berriz ere elizan meza emateko baimena eskatzeko eta behar ziren berritze lanak egiteko. Denbora horretan galdu egin zen aurretik zegoen San Migelen irudi barrokoa; buru barik eta erdi erreta agertu zen karobian.

### Labrazatik Angiozarrera

Goimendiko San Migel Monte ermitan jarri dituzten artelaren kopia horiek XVI. mende hasierako Arabako Errioxako Labraza herrikoak dira jatorriz, nahiz eta egun Gasteizko Elizbarrutiko museoan dauden ikusgai.

XVI. mendean margotutako eta aldarea osatzen zuten taula haien kopia dira Angiozarko ermita horretan jarri dituztenak. Taulatiko baten nekazaria azaltzen da balezta eskuan duela kobazuloan gorde den zezenari jaurtitzeko; hurrengoan, baserritarra ageri da gotzainaren aurrean, gezia begian duela; hirugarrenak prozesioa irudikatzen du eta San Migelen agerkundea laugarrenak. Berpizkunde garaiko taulen kopia horiek jartzeko baimena Elizbarrutiko Arte Sakratuaren museoak eman die auzotarrei, jatorria azaltzeko baldintzapean.

*Sile Sile*

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

**BARRIO autobus eta mikrobusak**

- Eskolabako langoak
- Lipelagietara irteerak
- Sagardogintza irteerak
- Eskolazak

Prezio lehenagorik!

Egiteko gaitasun handia

komunikazio gaitia

Abilape kalea 6, 4-B Ermua • Tel.: 943 17 15 01 • Fax.: 659 87 89 89  
E-posta: info@autocaresbarrio.es • Webgunea: www.autocaresbarrio.es

**MONTE TABERNA**  
edari, jana eta kirola

Munduko erakutsia 2  
Tel.: 943 79 20 66

# Apraiz: "Axerikoa zubian astoa ikusi gura dugu"

Musakola erabat murgilduko da jaietan asteburuan; herri bazkarian, 200 lagun

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

"Axerikoa zubian gure astoa ikusi gura dugu, orain dragoiz beteta dago-eta. Ez dugu dragoi guztiak kentzea eskatzen, baina gure estandarteak leku bat merezi du. Kanean galdetu digute ea alkatetzatik ez dugun gai horren gainean ezer egin behar jaietan; egingo dugu zerbait, astoa ikusi arte ez dugu etsiko", adierazi digu umoretsu Jesus Mari Apraizek. Arrasateko auzorik *independenteeneko* jaiak ondo ezagutzen dituen inor bada, Apraiz da hori. Beti bezain *saltsero*, beti bezain gertuko, baita Musakolakoak ez direnendako ere: "Auzorako sarrera *doakoa* izango da denendako. Auzokoak ez direnak ere ongietorriak izango dira; ondo konpontzen gara denekin. Denok zaudete gonbidatuta".

## Urrezko Astakiloa, "ohorea"

Jaietako ekintzak joan den aste bukaeran hasi ziren, baina gaurko, biharko eta etziko gorde dituzte ekintza potoloenak. Aurtengo nobedadeen artean, gaueko rock kontzertuaren ordez gaztetxo-



Jaietako protagonista eta auzoko "estandarte" den astoa, iaz. | GOIENA

dako DJ emanaldiak antolatuta izana aipatu digu Apraizek: "Rock kontzertu bat kendu egin dugu, azken urteetan ez zen-eta jende askorik egoten. Horren ordez DJ emanaldia antolatu dugu, gaztetxoak mugitu daitezten".

Bestalde, biharko herri bazkarian 200 bat lagun izatera helduko dira, "inoiz baino jende gehiago". Martitzenean batu zituz-

ten zerrendak eta 185 lagunek emanda zuten izena. Urrezko Astakiloa nor izango den ez digu aurreratu, noski: "Jaietan bakarrik ez, auzoaren alde lan egiten duenari ematen zaio saria. Auzotarren artean oso sari estimatua da, ohorea".

Gainera, eguraldiak ondo helduko diola dirudi. Batez ere, bihar eta etzi, "egunik handienetan".

## EKINTZA AIPAGARRIENAK

### GAUR, EGUBAKOITZA

#### ERRETIRATUEN EGUNA

**10:00** Jaien hasiera.

**19:00** Ikurrinaren igoera eta txapela eta zapia jartzea.

**19:30** Erretiratuendako jaiak eta afaria Al-Andalusen.

**22:00** Bolo txapelketa San Isidro elkartearen ondoan. Izen-ematea bolatokian.

### BIHAR, ZAPATUA

#### KOADRILEN EGUNA

**12:00** Umeendako Asto Jaia San Antolin eskolan.

**13:30** Mundu osoko kategorian, Urrezko Astakiloa banatzea.

**15:00** Herri bazkaria San Isidro eliza ondoan.

**18:00** San Isidro sokatira sari nagusia San Antolinen. Sari ederrak egongo dira.

**23:00** DJ Amaia San Antolin plazan eta Kaixo taldea San Isidro eliza ondoan.

### ETZI, DOMEKA

'POBRE DE MI'

**11:30etik 13:30era** Puzgarriak San Antolinen.

**22:30** Azken traka *Paseo maritimoan*.

## Sanjuanetarako esaldi laburren lehiaketa antolatu dute

Arrasateko Erdu-AEK-k, EHEk eta AEDk sanjuanetarako esaldi laburren lehiaketa antolatu dute, Udalarekin elkarlanean. Aukeratzan den esaldi horren bidez, antolatzaileen helburua da arrasatearrak San Juan jaiak euskaraz bizitzera animatzea. Esaldia jaiak girotzeko erabiliko diren euskarri guztietan –pegatina, kartela, eskuorria...– agertuko da. Esaldiak bidaltzeko epea maiatzaren 20an bukatuko da. Irabazlea maiatzaren 22an emango dute aditzera.

## Harrera Elkarteen nazio batzarra bihar goizean Kulturaten

Euskal preso ohi eta errefuxiatuei babesa emateko Harrera Elkartek nazio batzarra egingo du bihar Kulturateko areto nagusian. Lehen deialdia 09:30erako egin dute eta bigarrena, berriz, 10:00etarako. Elkarteen lehen urtearen balorazioa egingo dute, eta baita etorkizunerako ildo nagusiak zehaztu ere. Aurkezpena Arrasaten egin zenez, lehen batzar orokorra ere gurean egitea erabaki dute. Hurrengo batzarrek beste herri batzuetan izango dira.



# IKER

SUKALDEAK:

ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR 

## Irudimena barra-barra arrautza apur ez dadin

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

San Pankrazio Goi Eskola Politeknikoaren zaindariaren eguna ospatu zuten atzo unibertsitateko ikasleek. Urtero moduan, Arrautza Jaurtiketa lehiaketarekin hasi zuten eguna eta atzokoan ere erakutsi zuten irudimenik ez zaiela falta; diseinu ederrak ikusi genituen eta baita eraginkorrak ere, askok lortu zuten-eta arrautza osorik lurreratzea.

29 taldek eman zuten izena; iaz baino gutxiago. Hala ere, jarraipen handia duen ekintza da: 100 ikasle baino gehiago erakarri zituen ekimenak. Hiru kategoria saritu zituzten: hegaldirik luzearen saria Artalde taldeak eraman zuten, hegaldirik politenarena Alex

Kremeto taldeak eta diseinurik politenarena, amaitzeko, ArrautzKu taldeak irabazi zuten.

### Ikasleen motibazioa sustatu

Tramankulua diseinatzeko tamaina ertaineko oilo-arrautza bat, kartoi mehea, soka eta kola erabiltzeko aukera izan zuten ikasleek, besterik ez. Arrautza jaurtiketaren ostean, ikasleek diseinatutako irrati-kontrol bidezko autoen lasterketa egin zuten. Ekintzok helburu bikoitza zuten: parte-hartzaileen ahalmen zientifiko eta teknikoak ebaluatzea eta lehiaketan bidez ikasleen arteko motibazioa sustatzea. Eguraldiak ez lagundu arren, giro ederrean ibili ziren.



JON BEREZIBAR

## Interes handia piztu zuen Zuazok

Udaberriko hitzaldi zikloaren barruan Koldo Zuazok eguaztenean eskaini zuen saioak interes handia piztu zuen. Euskararen garapenaren eta euskalkien sorreraren gainean egin zuen berba; azken urteetan landu dituen teorien berri eman zuen hizkuntzalari ezagunak eta Kulturateko areto nagusia ia bete egin zuen.

### Kontzertua gaztetxean gaur, herri maputxearen alde

AGAKOK eta Askapenak elkarlanean, herri maputxearen aldeko kontzertua antolatu dute gaur gaztetxean (22:00). Guaka talde maputxeak eta The Torcido Monkey Dream talde mexikarrak joko dute, eta, antolatzaileek jakinarazi dutenez, sarrera doakoa izango da.

### Umeen danborradan parte hartzeko lehen entsegua bihar

San Juan jaien aurreko aste bukaeran egiten den umeen danborrada antolatzen hasi dira SUDC elkartekoak. Lehen entsegua bihar egingo dute, hilak 11. Lehengo San Viator ikastetxean –orain Gaztelupe deitzen da– egingo da entsegua, 11:00etan. Ordu bete inguru iraungo du.



29 taldeetako baten jaurtiketaren unea, atzo. | JOKIN BEREZIARTUA

## Udalekuetan izena emateko azken eguna da gaur

J.B. | ARRASATE

Gaur bukatzen da Txatxilipurdiren udaleku irekietan izena emateko epea. Antolatzaileek gogora ekarri gura dute epez kanpo datozenek ez dutela aukerarik izango izenik emateko. Helburua urterokoa izango da aurten ere: 2 eta 10 urte arteko haurrentako aisialdi plan ederra eskaintzea, kalean, eta euskarari berebiziko garrantzia emanda.

Era berean, gaur amaituko da begirale izateko izen-ematea: "Jadanik jaso ditugu eskaera pila bat, gertukoak eta urrunagokoak ere", diote. Udalekuen aurkezpenean jakinarazi zuten moduan hiru baldintza bete behar dituzte begiraleek: 18 urte edo gehiago izatea, euskara jakitea eta ekainaren 8rako antolatu duten formazio saiora joatea –egun osoko saioa izango da–. Aukeraketarako honako irizpide hauek hartuko dira kontuan: begirale titulua izatea, ikasketak, esperientzia, lanerako prestutasuna eta bizilekua. Argibide gehiagorako Txatxilipurdira jo (943 79 54 46).

# Musikarekin hazi, hezi eta bizi...



-Musika eta mugimendu tailerra (5 urtetik aurrera)

-Hizkuntza Musikala (helduentzat ere)

-Ahotsa, abesbatzak eta kantu bakarlaria

-Instrumentu musikalak

-instrumentu herrikoiak: Alboka, txistua, trikitixa, panderoa

-Gitarra eta baxu elektrikoa, bateria eta konboak

-Biolina (3 urtetik aurrera)

-Organoa

-Musika hezkuntza berezia

-Taldeak: Orkestrak, banda, trikitixa, abesbatzak...

## Matrikula zabalik ekainaren 15era arte



Bergarako Musika Eskola

Tel: 943765780

idazkaritza@bme.e.telefonica.net



Bergarako Udala

## ZALDIBAR

## EMAITZAK

Sonografos - Lasagabaster	4-4
At. Betraye - Abokajarro	4-2
Aston Birra - Aldatz	3-6
Iriztu - Ostantz	4-5
Iluntz - Dribling	0-12
Haizea's Weah - Fidel & Discipulos	3-4

## A MULTZOAREN SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Lasagabaster	13	4
2 Sonografos	12	4
3 At. Betraye	11	4
4 Aldatz	11	4
5 Abokajarro	7	4
6 Aston Birra	2	4

## B MULTZOAREN SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Ostantz	14	4
2 Iriztu	13	4
3 Dribling	12	4
4 Fidel & Discipulos	10	4
5 Haizea's Weah	5	4
6 Iluntz	3	4

## PARTIDUAK

MAIATZAK 11, ZAPATUA

10:00 Ostantz-Fidel / Sonografos

11:00 Iriztu-Dribling / Aldatz

12:00 Sonografos-Aldatz / Iriztu

13:30 Lasaga-At. Betraye / Dribling

16:30 Abokajarro-Aston Birra / Haizea's

17:30 Iluntz-Haizea's Weah / Abokajarro

## Finalerdiak

Maiatzaren 25an jokatuko diren txapelketako finalerdietan, ondorengo partiduetako irabazleek jokatuko dute: 1.A-4.B eta 2.B-3.A, alde batetik, eta 1.B-4.A eta 2.A-3.B, bestetik.

## AEDk antolatutako 26. Arrasate Literatur Lehiaketak baditu jada finalista nagusiak

Maiatzaren 16an banatuko dituzte sariak Kulturaten, 18:30ean hasita

ANE ETXEBERRIA | ARRASATE

Urteroko hitzorduari hutsik egin gabe, aurten ere AEDk literatur lehiaketa martxan jarri du. Dagoeneko porposamen guztiak jaso eta irakurketa sakona egin dute antolatzailerek, eta, beraz, esan daiteke AED euskara elkarteak antolatutako 26. Arrasate Literatur Lehiaketa azken txanpan sartu dela. Aurten ere hiru mailatan banatu dira lanak, ipuinen atala, poesia atala eta bertso-papereen atala. 198 lan aurkeztu dira lehiaketara: 124 ipuinen atalean, 46 poesien atalean eta 28 bertso-papereen atalean. AED pozik dago parte-hartzearekin: "Alde batetik gora egin duelako kuantitatiboki, iaz 138 lan aurkeztu baitziren; eta, bestalde, orain arte parte hartu izan ez duten Eskoriatza, Bergara eta Oñatiko hainbat eskolatatik ere bidali dituztelako lanak".

Maiatzaren 16an, eguaztenean, izango da sari banaketa ekitaldia, 18:30ean, Kulturateko areto nagusian. Ekitaldia xumea izango da eta Uxue Alberdi bertsolari eta idazlea izango da aurtengo gonbidatu berezia. Elgoibartarrak hitzaldi txikitxo bat egingo du lehenbizi, gaztetxoei bere bizipenen berri emate aldera eta bere

## FINALISTEN ZERRENDA

## IPIUINEN ATALA

- ▶ Malen Arana Errasti
- ▶ Koldo Zubia Salas
- ▶ Ane Arrieta Umerez
- ▶ Judith Zubia Aranburu
- ▶ Irune Loza Quintero
- ▶ Ander Arregi Altuna
- ▶ Iñaki Goitia Lukas
- ▶ Ainhoa Barberan Garai

## POESIA ATALA

- ▶ Manex Carabias Aznar
- ▶ Alaitz Barrutia Ezpeleta
- ▶ Leire Etxezarreta Learreta
- ▶ Ane Zuazubiskar Iñarra
- ▶ Ana Muñoz Txintxurreta
- ▶ Elene Etxaniz Agirre

## BERTSO-PAPERA

- ▶ Jokin Godoi Gutierrez
- ▶ Josu Fradejas Rodriguez
- ▶ Ixak Sarasua Antero
- ▶ Jone Perez Moreno
- ▶ Ane Zuazubiskar Iñarra

esperientziaren inguruan aipamenak egin eta gaztetxoak animatzeko.

## Antolatzailak pozik

Itxaro Artola AEDko arduradunak balorazio oso positiboa egin du aurtengo lehiaketaren inguruan; izan ere, Debagoien osora lehiaketa zabaltzeko apustua egin dute eta emaitza eta harrera ezin hobea izan da. "Aurten lan asko jaso ditugu, iaz baino gehiago, baina pena bakarra zera da, bi taldetan ezin izango dugula saririk banatu, ez baita lanik jaso, besteak beste, DBHko 1. eta 2. mailetan poesia atalean eta nagusien mailan bertso-paperean". Lanen kalitateari dagokionez, "denetariko lanak jaso ditugu, batzuk beste batzuk baino hobek, baina orokorrean oso pozik gaude jasotako lanekin", adierazi du Artolak.

Halaber, ikastetxeek eskainitako laguntza eskertu nahi izan du Artolak; izan ere, "ikastetxe eta bertso-eskolen laguntza izugarria izan da, eurak aritu dira gazteak animatzen eta baita epai-mahaian lanak irakurri eta baloratzeko". Horrela, bada, geroz eta gutxiago falta da aurtengo irabazleak zeintzuk diren jakiteko; zorte on, guztiei!

## Geometriatik sortutako artelan erakusketa

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

Marra eta forma geometrikoak dira Javier de la Iglesia Barakaldoko artistaren obra piktorikoaren protagonistak. Elementu edo irudi matematikoak errepikatu eta tarte-katuz, espazio bisual ezberdinak eta efektu optikoak irudikatzen ditu artistak.

*Irudimenaren erritmoan* erakusketan, eskuaira, kartaboa eta konpasa dira oinarritzeko tresnak. Hiru tresna hauekin egiten dituen figura sinpleen konbinaziotik sortzen ditu bere artelan konplexu eta ikusgarriak.

Bere lanak oso bereziak dira, sinpletasunetik sortzen diren arren, ikuslearen begirada eta perspektibarekin jolas egiten dute. Ikusle bakoitzak, gainera, bere lana ahuldu beharrea aberastu egiten du. De la Iglesiak, bere teknikari esker, zenbait kasutan efektu optikoak sortzea lortu du. Erakusketa domeka arte egongo da Harresi aretoan. Hortaz, bizitzarekin egin ohi den moduan, sinplea eta konplexua nahastu nahi dutenak dako interesgarria.

## Herri arteko lehen kanporaketa izango du Arrasatek domekan

X.U. | ARRASATE

Herri arteko pilota txapelketa hasiko dute aste bukaeran, eta Arrasatekoei lehenengo kanporaketa jokatzea egokitu zaie. Bergarak datorren astean hasiko ditu lanak, lehenengo kanporaketaz libratu ostean. Hala, Debagoienean bi herri-tako ordezkariak izango ditugu aurten txapela janzteko borrokan: Arrasate eta Bergara, hain zuzen ere.

Eta Arrasatekoen lehenengo kontrarioa ez da makala izango, domekan 17:00etan hasita (Urkape) Ordiziako pilotariak izango dituzte-eta aurrean.

## Hiru kategoria lehiaketa

Bada, herri arteko txapelketa gogotsu hartzen dute herriko pilotariak; izan ere, klubeko maila guztietako pilotariak helburu jakin baten alde egiten dute lan.

Arrasatekoei dagokienez, Ibai Bolinagaren ardurapean, kadete mailan hauek izango dira etxeko ordezkariak: Garate, Moron, Egia eta Iturriotz. Gazte mailan Moronek eta Etxezarretak jokatuko dute. Eta senior mailan ere pilotari mordo dituzte aukeran: Zuazua, Oreja, Bolinaga, Arregi eta Arabaolatza.



DRAGOI GIMNASIA TALDEA

## Espainiako Txapelketan bikain

Maiatzaren 3tik 5era Dragoi gimnasia taldeko neskek Zaragozan izan ziren aerobikeko Espainiako Txapelketan lehiatzen. Bertan, aurrez jokatutako txapelketetatik sailkatutako Espainia osoko gimnastak elkartu ziren eta Kanpazar Harrobiko laguntzarekin bertan izan ziren arrasatearrak. Taldekako ariketetan laugarren postua lortu zuten; bakarka eta bikoteka egindako ariketetan ere oso emaitza onak lortu zituzten.

arbolapeta

★

bginko



Leino isolatzaileak  
PVC, aluminioa, beira, eguma

Aitor Zabalza Agirre  
Tallería 21 - C-1 Pab  
BERGARA

E-posta.: txipi@txipi.com  
www.txipi.com

606 58 18 10 - www.txipi.com

RUB  
HAIZEA



Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10  
Tel.: 943 79 52 50

# Maiatzaren 22an hasiko dira hondakinentzako kuboak banatzen

Uda aurretik jarri gura dute atez ateko bilketa

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Hondakinak gaika biltzeko sistemari buruzko bilera parte-hartzaileak egin zituzten urte hasieran, eta han hartutako erabakiak herritarrei helarazteko bilerak egiten ari dira bigarren fase honetan. Udan sartu aurretik du asmoa Udalak bilketa sistema martxan jartzeko, eta bilerak egin ostean, hilaren 22an hasiko dira materiala herritarrei banatzen: errefusarendako kubo grisa, organikoarendako kubo marroia, papera eta kartoia batzeko kubo urdina eta plastikoa batzeko poltsa horiak.

Larrañan eta Zubikoan

Bidaurretatik gora bizi diren herritarrek Larrañako frontoian jasoko dute materiala eta Bidau-

rretatik behera bizi direnek, berriz, Zubikoa kiroldegian. "Hilaren 22tik 31ra goiz eta arratsalde egongo dira materiala banatzen. Kuboek gain, gainera, hemendik eta urtea bukatu arerako poltsa horiak ere emango zaizkie herritarrei, 60 familia bakoitzari. Horrez gain, zalantzak argitzen lagunduko duen hondakin hizegitxoa eta zein egunetan zein hondakin ateratu behar den jasotzen duen imandun egutegia ere jasoko dute", argitu du Nerea Zubia zinegotziak. "Materiala jasotzeko, nortasun agiria erakutsi beharko du herritar bakoitzak", gehitu du udal ordezkariak.

Maiztasunari dagokionez, errefusa eta kartoia eta papera astean behin batuko dituzte; plastikoa eta ontzi arinak, astean



Martitzen goizean Eteo eraikinean egindako bilera. | O.E.

birritan, eta organikoa, hirutan. Fardelak, konpresak edo gaixoei behar dituzten gasa, tirita eta medikamentuak, esaterako, eguneroko zintzilikatu ahal izango dira kuboaren ondoko kaxotxean. Bizilagun bakoitzak berari dagoen zenbakia edo kodea izango du jarrita esekitokian. Asmoa da kode horiek txip baten bitartez irakurtzea eta irakurketa hori informatizatzea. Horretan dihardute, baina oraindik ez dago prest

**Nortasun agiria erakutsi beharko du herritarrek kuboak batzen dituen**

programa. Debagoien osoan jarriko dute, gainera, sistema informatiko hori. Programa hori indarrean jarri bitartean, eskuz zainduko dituzte hutsegiteak.

**Tamaina askotariko kuboak**

Banatu dituzten kuboak tamaina ezberdinetakoak dira. Errefusa eta organikoa biltzekoak, esaterako, 10 litrokoak dira eta kartoia eta papera jasotzeko familiako kuboak, 20 litrokoak. Hala

**Larrialdi guneak erabiltzeko giltza Udaltzaingoa eskatu beharko da**

ere, 20 litroko kubo marroia ere eskatu ditu Udalak, behar diren kasuetan emateko, adibidez, senide asko bizi diren familiei. Plastikoa eta ontzi arinak jasotzeko poltsak, berriz, 30 litrokoak dira. Udalak banatuko dituen poltsez gain, beste poltsa batzuk erabiltzea ere onartuko dute, horiak baldin badira eta sailkapena ondo egiten bada.

Bilketa orduari buruz, 23:00etatik aurrera egingo da eta herritarrek 20:00etatik aurrera atera ahal izango dituzte hondakinak. Behin bilketa eginda, kuboak ahalik eta azkarren jasotzeko gomendioa egin dute udaletik.

**Garbigune mugikorra**

Ezohiko kasuetarako, larrialdiguneak egongo dira. Bi jarriko dituzte herritarren eskura: Eteo parean bat eta Garagartzan bestea, garbigunea baino apur bat gorago. "Ekainaren 13tik aurrera, hamabostean behin, garbigune mugikor bat ere egongo da herriko erdigunean, herritarrek dituzten hondakinak batzeko", zehaztu du Nerea Zubia zinegotziak. Horiez gain, ekarpen guneak ere egongo dira herriko landa-gunetan auzotarrendako, esaterako, San Pedro eta Olabarrieta auzotan jarriko dituztenak.

Datozen egunetan jarriko dituzte esekitokiak herriko gune ezberdinetan, gehienak, orain arte edukiontzia egon diren tokietan. Zehazki non jarriko dituzte jakiteko, erakusketa dago zabalik Santa Ana aretoan.

## Sei edukiontzi erre dituzte urte hasieratik

O.E. | OÑATI

Urtea hasi zenetik sei edukiontzi erre dituzte herrian, azken biak astelehen goizean, Arkitekto Lizaur kalean. Ondoa aparkatuta zegoen auto baten atzeko aldea ere erre zen sute horren ondorioz. Udaltzainak kristala apurtuta sartu ziren barrura autoa mugitzeko, sua erregaiaren depositura heldu baino lehen. "Joan den urtean bederatzi edukiontzi erre zituzten eta aurten dagoeneko sei erre dituzte. Gehienak, gainera, toki berean, Arkitekto Lizaur eta Aita Madina kaleetan. 900 euro inguruko kostua du edukiontzi bakoitzak", dio Idoia Lazpita udaltzainburuak.



Arkitekto Lizaur kalean edukiontziak erreta, astelehenean. | OÑATIKO UDALTZAINGOA

Udaltzainburuak herritarrei egin die dei ezer ikusiz gero abisua emateko: "horrela inguruko autoak kendu ahal izango

ditugu, behintzat." Udal Gobernuak kale bandalismoarekin lotu ditu ekintzak eta EAJk ere salatu egin ditu gertaerak.

## Atez atekoaren aurkako pintadak

Hondakinak gaika biltzeko atez ateko sistemaren aurkako pintadak agertu dira herrian. Aste bukaeran hainbat agertu dira herriko hainbat kale eta auzotan; besteak beste, kultura etxean, Ugarkalden, Kalegoienan eta Arrueko etxeetan.



GOIENA

## Saiheski dastatzea egingo dute bihar plazan, Natra Oñati saskibaloitzaile taldeari laguntzeko

Saiheski dastatzea antolatu du biharko Aloña Mendiko saskibaloitzaile sailak. Saiheski pintxoak eta edaria banatuko dituzte eguerdian eta iluntzean Foruen plazan, eta aterako duten dirua Natra Oñati taldeari laguntzeko izango da. Hilaren 24tik 26ra jokatu du Natra Oñatik LEB ligara igotzeko play-off-a Malagan edo Extremaduran, eta bidaiako gastuetarako izango da dirua.

## Nesken arteko futbol partiduak inaugurako du San Lorentzeko futbol zelaia zapatu goizean

Aloña Mendi eta Arizmendi taldeetako kadete mailako nesken partidua jokatu da bihar, zapatua, San Lorentzeko futbol zelaia inauguratzeko. 10:30ean hasiko da norgehiagoka. Udaleko, Jaur-laritzako, Gipuzkoako futbol federazioko, Zuazola Larraña Institutuko eta Aloña Mendiko ordezkariak egongo dira inaugurazio ekitaldian. Partiduaren ostean, luntxa egongo da.

## Mikel Fernandez eta Iker Alberdi Arantzazuko txirrindulari proban izango dira bihar

Aloña Mendiko txirrindularitza sailak antolatuta, Arantzazuko igoera egingo dute bihar, zapatua, 44. aldiz. Lasterketa 16:30ean hasiko da, Portalekuan, eta helmuga, urtero bezala, Sindika ostatuaren gainean egongo da. Igoera horretan lehenengo eta bigarren urteko gazteek hartuko dute parte; tartean, Sumofic taldeko bi oñatiarrek, Mikel Fernandezek eta Iker Alberdik.

## Auzoko produktu-dastatzea Murgian eta olagarro-dastatzea Kasablankan, asteburuan

Murgian eta Kasablankan auzoko jaiak ospatuko dituzte asteburu honetan. Askotariko ekintzak antolatu dituzte batean zein bestean; tartean, produktuen dastatzea. Murgian, esaterako, auzoko produktuak probatuko dituzte zapatu goizean; txakolina, haragia, ezti eta gazta, esaterako. Kasablankan, berriz, olagarroa eta sagardoa eskainiko dute zapatu iluntzean.

# Auzo-konposterako gune gehiago egingo ditu Udalak

130 familiak egin dute eskaera, guztira, eta hurrengoia lkerlekukoa izango da

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

"Hondakin organikoa da zabor-tegietan eta hondakinen kudeaketan arazo gehien ematen duena. Hori horrela, auzo-konpost guneekin lortu nahi duguna da ahalik eta hondakin organiko gehien ziklotik ateratzea. Hori da gure apustu sendoa", adierazi du Arianne Kareaga zinegotziak.

Labegaraietako izan zen Bergarako lehenengo auzo-konpost gunea, baina Udala dagoeneko ari da hurrengoak prestatzen. Bergaran, oraingoz, 130 familiak eman dute auzo-konposta egiteko izena. Badirudi hurrengo gunea lkerleku kalekoa izango dela, eta maiatzaren bukaeran hasiko dira hura antolatzen: "28 familiak eman dute izena. Pentekoste jaien ostean bizilagunekin harremanetan ipiniko gara. Formazioa eskainiko zaie eta zeinek zein kubo erabili antolatuko dugu".

Osintxukoa ere berehala ipiniko dute martxan eta Bolun eta Espaloian ere egokituko dituzte guneak. Aipatutako horiez gain, herritarren eskaerak jaso ahala gune gehiago egiteko aukera aztertzen joango da Udala.

## Labegaraietan pozik

Labegaraietako bizilagunak oso pozik daude auzo-konpost gunearen funtzionamenduarekin. Bost hilabete dira martxan jarri zela eta hamabi familiak erabiltzen dute. "Oso pozik gaude. Teknikariek esan digute konpost ona



Labegaraietako bizilagunak lehenengo konposta ateratzen. | OIHANA ELORTZA



lkerleku kaleko auzo-konposterako gunea prestatzen ari dira. | IKERNE ITURBE

lortzen ari garela. Gainera, ikaragarria da nola jaisten den zabor kopurua etxean", kontatu digu Iñaki Muxikak. Joan den eguaz-

tenean lehenengo konposta atera zuten, eta, hala, bizilagunek elkarrekin daukaten ortura eraman ahal izan zuten.

## Aszensio jaiak ospatuko dituzte zapatuan eta domekan Zubiaurre eta Martoko auzoetan

Bihar, zapatua, 11:00etan salda eta txorizoa banatuko dute eta 16:00etan mus txapelketa egongo da Txarrantxan. 17:00etan magia saioa egongo da, 18:00etan txokolata eta 18:30ean, buruhandiak. 19:00etan toka txapelketa egongo da, 20:00etan kalejira eta, eguna amaitzeko, dantzaldia Javishou taldearekin. Domekan meza egongo da 11:00etan San Migel ermitan; eta 16:00etan, tute txapelketa.

## Beart elkarteko artista gehienek erakusketa irekiko dute gaur, elkarreak Boluan duen egoitzan

Beart elkarreak erakusketa irekiko du. Boluko 49. zenbakiko lokalean irekiko dute erakusketa; zehazki, lokaleko sarreran erakusketa zabaltzen duen lehen aldia izango da. Berezitasun hori kontuan izanda, elkarteko bazkide gehienek -80tik 60 inguruk- parte hartuko dute, koadro banarekin. Gaur, egubakoitza, hilak 10, 19:30ean izango da irekiera ekitaldia.

## Domingo Irala kalean egingo du gaur, egubakoitza, Jolas Leku ibiltaria Jardun euskara elkarreak

Jarduneko Domingo Iralara eroango du gaur, egubakoitza, Jolas Leku ibiltaria. 17:00etatik 19:00etara egongo dira han, eta, ohi bezala, askotariko jolas eta abestiak egingo dituzte 3 eta 12 urte arteko umeekin. Jardunetik argitu dutenez, duela bi aste egitekoak ziren Jolas Lekua bertan behera laga behar izan zuten. Bada, oraindik eguna zehaztu barik egon arren, egin egingo dute.

## Odol emaleek dei egiten diete herritarrei eguaztenean, hilak 15, odola ematera joan daitezten

Odol emaleen elkarreak jakinarazi duenez, hilaren 15ean, datorren eguaztenean, izango da hurrengo odol ateratzea. Hori horrela, gogora ekarri nahi diete herritarrei odola ematearen garrantzia eta, bide batez, dei egiten diete egun horretan osasun etxera joan daitezten.

## Udalak GKEendako eta Gizarte Zerbitzuetan ari direnendako laguntzen baldintzak kaleratu ditu

GKEei programak garatzeko dirulaguntzak emango dizkie Udalak. Izendatutako kopurua 54.200 euro da eta onuradun izateko baldintzak dagoeneko kaleratu dituzte. Gizarte zerbitzuen arloan dihardutenendako 19.400 euroko laguntza ere badu, eta baldintzak kalean dira. [www.bergara.net](http://www.bergara.net) helbidean daude baldintzak.

## ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,  
txerri, bildots,  
untxi eta  
baserriko oilaskoak.*

Matsiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09

## UGARTE

ARROZTEGIA - ALTZARIAK

ARROZTEGIA  
San Juan 1a  
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA  
lkerleku zeharbidea  
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA

## TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza  
materialak

Telleria (Labegaraieta)  
BERGARA  
Tel.: 943 76 27 93

## BERGARA MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

*Sukalde eta bainu enzimarak*

Urdur 8 BERGARA  
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47  
Fax: 943 76 04 77

## Sugoi

ERLOJUAK,  
ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behe  
943 76 59 54 BERGARA



## UREDERRA

Iturgintza  
Berogintza  
Aire egokitua  
Konponketa  
Baimenta

Amurlaga 11  
686 943 918



Gosari bereziak  
09:00etatik zabalik

Matsiategi 3, behe • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

- Afariak
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Hanburgesak
- Sandwichak
- Entsaladak





Txosna batzordeko ordezkariak Xaxau-rekin. | MONIKA BELASTEGI

## Txosnaguneak martitzenera arteko egitaraua prestatu du

Hiru txosna, agertokia, jateko gunea eta karpa handia egongo dira; eta adin guztietarako ekintzak

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Pazkoak ate joka daude eta Txosna batzordean asteon aurkeztu du ordurako prestatu duen egitaraua. Krisitik eratorritako murrizketek eragin arren, egitaraua bete-betea dator –ikus ondoko taula– eta Txosna batzordea bera ere, azken urteetako osatue-

na izan da, "eragile ugarik hartu dute parte bertan", azpimarratu zuten prentsurrekoan.

Bideberrin hiru txosna, eszenatokia, jateko gunea eta karpa handia egongo dira. Txosnetako baten, gainera, errazioak eta ogartekoa emango dituzte, aurreko urteetako erantzun ona iku-

sita. Horrez gain, San Martin plazan ere egongo da beste txosna bat eta hori ere Txosna batzordeak kudeatuko du.

Zero zabor filosofiarekin bat eginez, aurreko urte edalontzi guztiak –katxi eta kubata edalontziak barne– berrerabilgarriak izango direla azaldu zuten agerraldian eta gaika biltzeko aukera egongo dela ere bai.

Berrikuntzei dagokienez, San Martin plazako txosnan tonbola jarriko dute. 2 eurotan salduko dituzte txartelak eta guztiak dute saria. Martitzenean beste berrikuntza bat egongo da, izan ere, azken urteetan ez bezala, txosnak egun horretan ere zabaldu egingo dituzte.

Presoak ere gogoan izango dituzte. Zapatuko ekintzak eurei eskaini dizkiete, eta besteak beste, kalejira egingo dute San Martin plazara "denok mugitzen bagara mugituko dugulako".

Agerraldian azpimarratu zuten moduan, "txosnagunea alaia, euskalduna eta herrikoa izatea", nahi dute, "guztiantzat irekia".

### Bitorianatxo: Blanca Narbaiza

Aurreko urtean Blanca Narbaiza izango da Bitorianatxo ea berak egingo die ongietorria Pazkoei egubakoitzean udaletxeko balkoitik. Baina ez da bakarrik egongo; *Guti* eta *Felisin* berarekin egongo dira, eurek jaurtiko dute eta txupinazioa. Hain zuzen, Udalak omendu nahi izan ditu Bergaren alde urteetan egin duten lanagatik.

### TXOSNETAKO EGITARAUA

#### EGUBAKOITZA, 17

**14:30** Ikasleen bazkaria, San Martin plazan.

**21:00** Txosnen irekitzea.

**22:30** Kontzertua: Bertan, bizio, Fiachras eta Gozategi.

#### ZAPATUA, 18

**14:30** Elkartasun bazkaria Alaia Martin eta Aitzol Barandiaran bertsoariekin. Txartelak Arranon eta Kortazarren eskura daitezke 12 eurotan.

**Gero**, Plazak bete ekimena: kalejira San Martin plazara.

**23:00** Kontzertua: Guaka, lheskide eta Kop.

#### DOMEKA, 19

**18:00** Irrien Lagunen Kultura plazara.

**20:00** Kontzertua: Anje Duhalde.

**23:00** Film laburren lehiaketa.

#### ASTELEHENA, 20

**19:00** Erromeria Laket taldearekin.

**00:00** Kontzertua: Emon.

**Gero**, DJ Bull.

#### MARTITZENA, 21

**18:00** Baltsa jaitsiera.

## Angiolilloren liburua auzolanean muntatuko dute bihar gaztetxean

A.B. | BERGARA

Aitor Arantzabalek, espetxean egon zen denboran, Michele Angiolilloren gaineko liburua idatzi zuen. Bada, orain, liburua herritarrekin batera auzolanean muntatuko dute. Bihar, zapatua, egin dute deialdia. Gaztetxean elkartuko dira, 12:00etan. Angiolillo liburutegia ari da muntaketa prozesuak antolatzen. "Liburuak 112 orrialde ditu, bi aldetan idatzita; beraz, 56 orrialde dira. Pertsona bakoitzak orri bat hartuko du eta liburua muntatuko dugu", azaldu dute. Gasteizko Irrintzi inprimategian inprimatu ostean, ekainaren 14an aurkeztuko dute Bergarako gaztetxean.

Aitor Arantzabal "oso pozik" dago lanarekin, eta gehitu du: "Hasieran, hamar ale atera eta zenbait laguni eman nizkien. Horietako bat gaztetxera eraman eta haien esku utzi nuen. Internetez zabaldu zuten, gerora etorri da liburuxka inprimatzaren ideia. Denon ondasuna izan behar da gure herriko historia, eta lantxo honekin ekarpen xumea egin nahi dugu".

## Harrera paregabea egin diete bailarako ZIG geletako ikasle eta irakasleei Ipintza institutuan

Oñati, Arrasate, Bergara eta Elgoibarko ZIG geletako 30 bat ikasle eta 14 irakasle batu ziren

IMANOL GALLEGU | BERGARA

Bergaran egin dute aurtengo topaketa eskualdeko ZIG geletako –Zeregin Ikasketarako Gelak– ikasleek. Nolabaiteko elbarritasun maila duten gaztetxoei helduak direnean autonomo izan daitezten estrategiak ematea da gela horien helburua, eta azkeneko urteetan gela ezberdinetako ikasleek euren arteko harremanak sendotzeko topaketa egin izan dute.

### Aurreko Bergaran

Eguaztenez egin zuten topaketa, eta Ipintza institutuak egin zituen anfitrioi lanak.

Oso alai iritsi ziren bertara, 10:00 aldera, Oñati, Arrasate, Bergara eta Elgoibarko ZIG geletako ikasleak; guztira 30 bat ikasle eta 14 irakasle elkartu ziren. Ipintza institutuan Jose Mari Juaristi zuzendaria, zenbait irakasle eta ikasleak zituzten zain,



Topaketan parte hartu zuten ikasle eta irakasleak Ipintzako sarreran. | IMANOL GALLEGU

eta, ezusteko gisa, aurrekuarekin hartu zituzten. Txistu eta dambolinaren doinuek lagunduta eta dantzari jantzita, harrera paregabea egin zieten. Horren ondoren, Ipintza institutuko ZIG gelak ezagutzeko aukera izan

zuten eta institutuaren kanpoaldean duten ortua ere erakutsi zieten.

Ipintzan egon eta gero, erdigunera egin zuten guztiak eta Xabalote gaztelekura jo zuten. Instalakuntzak ikusteaz gain,

mahai-futbol eta ping-pong txapelketak jokatu zituzten eta Ipintzakoek antolatuta mokadutxo ere hartu zuten.

Eguna oso pozik eman eta gero, datorren urteko topaketara begira daude dagoeneko.

**Miluk**  
ile apaindegia

Ile apaindegiaz gain, ORAIN,  
estetika zerbitzua ere badugu!

Depilazioak • Masajeak • Gorputz eta aurpegiko tratamenduak

943 76 51 82 • Osintxu 13 • Bergara

LEKU BEREAN  
ZERBITZU GUZTIAK,  
ETOR  
ZAITEZ!





Aitzol Iturbe antzuolarra. | A.E.

Aitzol Iturbe | Bertsolaria

## "Denek ezagutzen naute; beraz, lasai nago saiorako"

A.E. | ANTZUOLA

Gaur iluntzean bertso jaialdia izango da Torresoroan eta bertan izango da Aitzol Iturbe, lan txukuna egiteko asmoz.

### Jendaurreko lehenengo saio ofiziala izango da gaurkoa...?

Osinalde txapelketan kantatu nuen lehen aldiz ofizialki, martxoan, baina herrian ofizialki lehen aldia izango da. Osinaldeko esperientzia oso polita izan zen.

### Eta gaurko, urduri?

Ez, normal nago; beste barik, nire helburua da lan txukuna egitea, eta nire bertsoekin inor ez aspertzea.

### Herrian ala kanpoan jardutea nahiago?

Herrian jardutea nahiago, guztiak ezagutzen naute eta badakite zer dagoen. Kanpora joatea okerragoa da, ardura bat duzulako, baina herrian guztiak dakite nolakoa naizen.

### Esperientzia duten bertsolariekin izango zara.

Bai; hori gustu handia da, ondokoak ondo kantatzen duenean norbera trankil ibil daiteke, entzuleak, behintzat, ondokoarekin entretenitzeko aukera dauka-eta. Nik, bertso txukun bat noizean behin botata, nahikoa. Izan ere, asko lasaitzen du ondokoak esperientzia izateak.

# Udalak hainbat hitzarmen onartu zituen bilkuran

Iker Mansok Mikel Jauregiren zinegotzi kargua hartu du Udalean

ANE ETXEBERRIA | ANTZUOLA

Martitzenean egindako osoko bilkurak hamar puntu izan zituen; ia guztiak onartu ziren, bat izan ezik, informazioa kontrastatu ahal izateko mahai gainean utzi baitzen. Hala, aurreko aktaren irakurketa egin ondoren, Udalaren eta Migel Altuna Institutuaren arteko hitzarmena onartu zen; horren bidez, Lantokiko prestakuntza modulu bat garatzea posible izango da.

Matz Errekan egitekotan dauden obra batzuen inguruko puntuak hainbat protesta eragin zuen; izan ere, EAJko zinegotzi Maria Eugenia Arrizabalagak xehetasun azterlanean hainbat kontraesan zeudela adierazi zuen eta informazioa kontrastatzeko eskaera egin zuen. Hortaz, gai hori mahai gainean geratu zen.

Berdegunen mantenurako kontratazioa egite aldera, eslei-

pena egiteko jardunbideari hasiera emateko baimena lortu zen, zinegotzi guztiak baiezkoa eman baitzuten. Halaber, udal kolonbarioa arautzeko ordenantza ere onartu zen.

Beste gai bat Sagastin egitekoa den biribilgunea izan zen. EAJko zinegotziek hainbat aipamen egin zituzten; nahiz eta aldeko botoa eman, "legearen barruan gauzak egiten badira" aipamena txertatu nahi izan zuen Arrizabalagak. Udalbatzatik dena legalki egin dela adierazi zuten, eta autobusekin hainbat proba egin direla adierazi, biribilguneak arazorik emango ez duela ziurtatzeko. Halaber, biribilguneak hartuko dituen lursail batzuen jabeek Udalari lur zati horiek laga dizkiotela esan zuen Iñaki Iartzak, Hirigintzako zinegotziak.

Torresoroa landa eremuko zentro balioaniztunaren erabile-



Iker Manso zinegotzi berria. | A.E.

ra eta kudeaketa kontratua luzatzeko proposamena ere onartu zuten udalbatzarrean. Martitzenekoa, beraz, osoko bilkura eman korra izan zen.

### Iker Manso zinegotzi berria

Bi urtean zehar Udaleko Gobernu Taldean Ogasun eta Pertsonal batzordean lanean aritu ondoren, Mikel Jauregik kargua utzi du Udalean, lanaren, familiaren eta udal zereginen bateraezintasunagatik.

Iker Mansok hartu du Mikel Jauregiren zinegotzi kargua; haren esku geratuko dira Euskara eta Hezkuntza batzordeak. Horrez gain, tokiko gobernu batzordeko kide berria ere izango da. Kargu horren aldeketa dela eta, Ogasun eta Pertsonal batzordeburu berria Inma Bersitain izango da hementik aurrera.

## Urgentziazko mozio bat onartu zuten

EAJren aurkako bi botorekin eta aldeko sei botorekin, urgentziazko mozioa onartu zuten udalbatzarrean. Mozio horren bidez, Antzuolako Udalak Onkologikoaren eta bertako langileen aitortza egin nahi du, alor honetan urte luzeetan egin duten lanagatik. Horrez gain, Onkologikoa Osakidetzan, osasun publikoaren sisteman, sartzeko nahia adierazten du.

## Azken futbol partidu garrantzitsua jokatu dute etxeok domekan

A.E. | ANTZUOLA

Domeka honetan, 17:00etan, denboraldiko azken partidua jokatu dute preferente mailako mutilek. Laugarren jardunalditik lider izan osten, joan den astean bigarren postura jaitsi ziren, Zestoaren aurka 4-2 galdu ostean. Kolpe itzela izan zen, Juanina Garai entrenatzailearen esanetan,

baina, karanbola arrarorik gertatu ezean, eta etxeok partidua irabazi eta Getariako taldeak ez, lehen postua berreskuratzeko aukera izango dute jokalariek. Hala ere, bigarren postuan gertatu, lehenengo bi sailkatuak mailaz igoko dira, "ezer arrarorik gertatu ezean". Beraz, Eztalako lehia garrantzitsua izango da.



Zestoaren aurka jokatu dute partidua. | X.I.

## Elkarbizitza oinarri izango duen parte hartze prozesua jarriko dute martxan

A.E. | ANTZUOLA

Maiatzaren 14tik aurrera, hau da, datorren martitzenetik aurrera, elkarbizitza oinarri izango duen parte hartze prozesua jarriko du martxan Udalak. Helburua da jatorri askotariko

antzuolarren ezagutza-gune bat sortzea eta elkarbizitzarako pausoak emateko lehen harria jartzea. Topaketak hamabost egunean behin izango dira eta herritar guztiei irekiak egongo dira.



ARROLA ELKARTEA

## Arrolakoak Araia inguruan

Aurreko domekan 20 bat mendizale elkartu ziren Araia-Aratz-Duru-Arantzazu ibilaldia egiteko. Aurretik egiteko irteera zen, baina eguraldi eskasa zela-eta atzeratu egin zuten, eta erabaki ederra izan zen; izan ere, eguraldi bikaina izan zuten mendizaleek domekan. Egun osoko irteera izan zen, zazpi bat ordukoa, eta paraje ederrez disfrutatzeak aukera izan zuten. Hurrengo irteera Aralar aldera izango da, ekainaren 2an.

**LARREA**
**TABERNA**

 Kalebarren 17  
 ANTZUOLA

**EGAÑA**

Era guztietako arotz lanak

 Tarima eta parketa jartzea  
 Zoruen kutxilatzeak eta barnizatuak

Kalegol 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

# AUTOAK

## Bezerearen aginduetara

Salmentak nabarmen jaitsi direnez, auto-etxeak eskari txikia eskaintza erakargarriekin handitu nahian dabilta

**K**risiak gehien astindu duen sektoretako bat izanik, auto-etxeak neurri bereziak hartzen ari dira. Bezeroak agintzen du, inoiz baino gehiago: deskontuak, eskaintza bereziak, finantzaziorako erraztasunak... Erosleak kalitatea, prezio ona, kontsumo txikia eta matxurarik edo buruhausterik eragiten ez dioten autoak eskatzen ditu. Hori berretsi digute Ford, Nissan, Citroen, Volkswagen, Seat eta Renault etxeek.



Ford Focus berria gurean salduen artean dago oraindik.



Renault Captur hiriko crossover berriak harrera bikaina izan du.



Volkswagen Golf berriak 2013ko Europako auto onenaren saria jaso du.



Nissan V200 furgoneta: fidagarritasuna eta mantenu merkea.

### FORD: KALITATEA, GERTUKO ZERBITZUA ESKAINITA

35 urte daramatza Ford Mugarriko Rafa Etxabek automobila-ren sektorean lanean. Nobedadei dagokienez, ezer gutxi aldatu da azken urtean eta Focus "familia" eta Kuga dira oraindik ere gurean gehien saltzen direnak: "Horiek dira gure produktu indartsuenak, gehien saltzen ditugunak. Batetik, lur orotariko ibilgailuak gustatzen zaizkien artean harrera ona duen Kuga ondo saltzen da eta modelorik salduena Focus-a da oraindik: Focus, Focus C-max eta Focus Grand C-max. Eskaintza zabala izan arren, gainerako modeloetan salmenta baxuak ditugu. Egoera dagoen moduan dago". Modelo salduenak zeintzuk diren esan eta berehala krisia aipatu du Etxabek: "Ez dut argirik ikusten. Aspaldi ari gara gutxiago eta okerrago saltzen. Prezioak duela 20 urteko berberak dira kasu askotan".

Ford etxearen lorpenen artean, Etxabek EcoBoost saria irabazi izana nabarmendu du. Gasolina



Citroën DS5, diseinua eta deportibotasuna.

motorretan –diesel motorren aginteari aurre eginez– aurre-rapen handiena izan duen etxea dela-eta jaso du sari hori. Hiru zilindroko, 1.000 zentimetro kubiko eta 125 zaldiko motorren artean mundu mailako sari garrantzitsua jaso dute: "Beste marken aldean jauzi handia eman dugu", dio Etxabek.

Auto elektrikoaren gainean gal-detuta ere argi egin digu berba Ford Mugarriko arduradunak: "Kutsatzen ez dutenaren justifikazioarekin ez nago ados; elektrizitatea oso kopuru txikian lortzen da era naturalean eta >

ALDATU ZURE  
NEGOZIO-EREDUA



NISSAN NV200

GAURSA

Avenida Otaola, 22 - Eibar 20600 - Tel. 943 82 09 74

www.goursacars.com

Kontsumo mistoa: 5,1-7,2 l/100 km. CO<sub>2</sub> emisioak: 135-169 g/km.



Nissan Qashqai indartsu jarraitzen du bere segmentuan.



Bezeroak badaki Seat Leon berriaren kalitate eta prezio arteko erlazioa oso ona dela.

ez diot nik bakarrik, hitzaldi eta saio ezberdinetan entzun izan ditut halako iritziak". Seguritasunaren arloan ere onenen artean dago Ford. 2011n Focus-ak puntuazio handiena atera zuen eta 2013an Custom modeloak eta Kugak ere berbera egin dutela esan digu saltzaile arrasatearrak.

Ingurumen arloan ere, Ford etxea ez da atzean geratzen: "Emisio baxuetan eta kutsadura ezan lehen postuetan gaude". Bezeroen eskaerak zorrotz egin dira eta prezioa lehen baino "askoz gehiago" begiratzeko da, ulertzeko denez: "Hala ere, bezeroak gero eta gehiago eskatzen du zerbitzua gertuko izatea. Ez autoa saldu aurretik bakarrik, baita autoa saldu ostean ere".

#### VOLKSWAGEN ETA SEAT: PUNTAKO TEKNOLOGIA

Arrasateko Musakola auzoko Udalaiz Autoak kontzesionarioan Audi, Volkswagen, Skoda eta Seat etxeekin egiten dute lan. Azaldu digutenez, ondoen saltzen dituzten autoak Volkswagengolf eta Seat Leon dira eta salmenten sailean aspalditik lanean diharduen Tomas Muñozek azaldu digu zergatik.

Golf-a mailaertaineko autoen artean "liderra" dela dio: "Mailaertaineko autoen gainetik dago produktuaren kalitateari dagokionez; eta garestiagoa izan arren, egun dauden deskontu eta finantziatorako eskaintza bereziki alde hori nabarmen lausotzen da". Golf-ari 2013ko autoaren saria eman diote Europan.

Seat Leon modeloari erreparaturaz, kalitatearen eta prezioaren arteko lotura bezeroendako "oso erakargarria" dela dio Muñozek:



Renault Scenic Xmod berria: monobolumenen artean, erreferentzia.

zek: "Gustukoa izateko sortu den autoa da. Linea eta ekipamendu aldetik osatua da eta jendeak badaki Volkswagen etxearen teknologia erabiltzen duela. Autoaren tripetan, neurri handi baten, Audi baten bermea du Seat Leon batek, baina merkeago".

Krisiak bezeroa "askoz zorrotzagoa" bihurtu du eta Udalaiz

**"Gertuko da zerbitzua, baita autoa saldu ostean ere"**

RAFA ETXABE  
FORD MUGARRI

Autoak etxeko saltzaileak badauki sektorea dagoen moduan egonda, erraztasunak, deskontuak eta bestelako eskaintza bereziak eskatu ahal dituela: "Saltzeko modua aldatu egin da erabat, sistema erotu egin da. Hainbat eta hainbat eskaintza berezi egiten zaizkio bezeroari eta eskaintza horiek gero finantziatorako denetariako erraztasunak ematen tartekatzen dituzte".

Honakoa ere gaineratu du: "Denetariako tratua ikusten dira, eta hori, bezeroaren mesederako da". Tratu horien artean autoaren aseguru oparitu izana aipatu du Muñozek, besteak beste.

Azalpena argia eta garbia da: egun autoen eskaintza askoz han-

diagoa da eskaria baino. Horregatik bezeroa ondo "mimatu" beharra dagoela dio Muñozek: "Kontzesionariora heltzen denean bezeroa deskontu eta eskaintza bereziki bonbardatzen dugu". Auto saltzaileendako egoera horren "zaila" izanik, egoera berezietan neurri bereziak hartu behar direla dio.

**"Saltzeko era aldatu egin da, sistema erotu egin da"**

TOMAS MUÑOZ  
UDALAITZ AUTOAK

#### RENAULT: LUR OROTARIKO AUTOEN ALDEKO HAUTUA

Automobilaren sektorean 27 urtez lanean diharduen Autoberrri kontzesionarioko Yolanda Bujandak Renault etxeko Captur berria eta Scenic Xmod nabarmendu ditu. Renault etxeak Ginebrako automobil-erakusketan aurkeztu zuen Captur berria. Diseinu erakargarria eta praktikoa duena –forma leuna duena eta abenturarako bokazioz jaioa–, hiriko crossover-en artean oso harrera ona izan du. Auto altua da –lurretik 200 milimetrora– eta crossover petoen edota lur orotariko ibilgailuen mailan kokatzen dute adituek. Valladolideko lantokian %100ean egina, kontsumo baxuko eta emisio txikiko autoen artean liderra izateko sortu dute.

Bestalde, Renault Scenic Xmod modeloak ere crossover-aren ezaugarriak ditu. 1996a ezkerko monobolumenen artean Europako erreferentzia izan den Scenicaren geneak galdu barik, pertsonalitate berriarekin dator Scenic Xmod-a. Diseinu ederra eta dotorea duena, monobolumenaren ezaugarri bereizgarria ez du galdu: auto barruko erosotasuna. Gainera, Extended Grip deritzon gailu berriarekin dator: trakzioaren kontrol sistema aurreratu bati esker ibilgailua ezin hobeto egokitzen da errepidera egoera zailetan –elurra, lokatza eta harea, besteak beste–.

Sektorea asko aldatu dela diosku Bujandak: "2008a ezkerko krisian sartu ginenetik salmentak %60a jaitsi dira. Horrez gain, lanerako metodologia estandarizatu egin da eta orokorrean formazio eta informazio gehiago dago. Informatikak ere asko aurre-



# KUGA BELAUNALDI BERRIA.

PUNTAKO TEKNOLOGIAREKIN,  
ZURE BIZITZA ERRAZTEKO.



Ford Kuga Gera. Batez besteko kontsumoak: 5,21-6,8 7,7 l / 100 km-ko. CO<sub>2</sub> bario: 139 gramatik 179 gramatik / km-ko.

MUGARRI AUTOAK Araba Etorbidea, z/g. ARRASATE



ford.es



Itxura hori izango du Citroën C4 Picasso berriak.



Ford Kuga berriak lur orotariko ibilgailuen artean iraultza eragin du.

ratu du eta horrek informazioa hobeto erabili eta bezeroa modu eraginkorrago baten aholkatzeko aukera ematen digu". Noski, autoen teknologia ere asko aurreratu da: segurtasun aktiboan zein pasiboan eta ingurumenari ahalik eta kalte txikiena egiterako orduan. Horren adibide da Renault etxeak 2012a ezkeren %100ean elektrikoak diren autoak merkaturatzen dituela. Salmentek behera egin dute, Gobernuak lagundu duen arren: "Bezeroak azken urteetan auto merkea eskatzen du eta *low cost* autoen eskaera asko hazi da. Dacia autoak, adibidez, gero eta gehiago saltzen dira", adierazi digu Bujandak.

#### CITROËN: BEHAR BAKOITZERAKO ERANTZUNA

Chapimeko Mikel Loitik, besteak beste, Citroën etxeak duen aukera zabala azpimarratu du: "Jendeak zer nahi duen esatea ez da horren erraza, orokorrean berba egitea arriskutsua delako; izan ere, bezero bakoitzak behar propioak ditu". Horregatik, Citroën etxean behar horiei guztiei erantzuteko modelo mordoa dituzte: "Profil bakoitzarendako produktu konkretu bat izan dezakegu. Izan ere, inoiz ez ditugu horrenbeste auto izan".

Loitik onartu digunagatik, baina, egia da geroago eta kon-

tzientzia handiagoa dugula kutsadurarekin: "Azken urteotan ikusten ari garen zerbait da, kontsumo eta emisio txikiko autoak nahi ditugu". Eta auto markak ere horretan zentratzen dabilta modelo berriak egiteko orduan. Azken urteotan C4 dabilta ondo saltzen: "Horretan lagundu du gehien saltzen diren autoak segmentu horretakoak direla, baina monobolumen salmentek ere gora egin dute nabarmen. Ez dakit gure belaunaldiko asko familia ekartzen ari direlako, geroago eta espazio handiagoko autoak nahi ditugulako edo benetan erosoak direlako, baina ondo saltzen dira auto horiek. Egia da gure markak harrera oso ona izan duela monobolumenekin. Esaterako, C4 Gran Picasso autoak denetik du, oso ondo dago eta familia duenarendako oso gomendagarria da. Ekipazio aldetik oso jantzita daude, eta prestazio onak dituzte, gama txikietatik hasita". Gainera, aurrean monobolumen berria aterako du Citroënek: "Opor osterako edo iritsiko da, eta autoa eza gutu eta gurera ekartzeko gogoz gaude".

Horrekin batera, Citroënek DS gamako autoen aldeko apustu nabarmena egin du: "Gama jeneralistik haratago doaz DS gamako autoak. Kutsu deportiboak dute eta diseinu aldetik bertzaileak dira. Akabera oso ona duten autoak dira, baina egia da garai oso onak ez direla hauek produktu apur bat garestiagoak saltzeko; baina Citroënek horren aldeko apustua egin du. Hala, DS gamaren barruan Citroën DS5 autoa azpimarratuko nuke".

## Auto elektrikoaren gainerako datuak

Krisialdiak moteldu egin du auto elektrikoaren garapena, besteak beste, horiek erosteko laguntzak txikitu egin direlako eta ibilgailuak oraingo besteak baino garestiagoak direlako.

Espainiako auto-parkean auto elektrikoaren salmentetan gorakada handiagoa egon ez izanaren beste arrazoi bat da auto elektrikoaren bateriak kargatzeko zentroen falta. Geroago eta gehiago daude (Espainian 773 puntu daude; 627 dira turismoendako, eta 9 dira karga azkarrekoak), baina ez dira nahikoa. Bateriak kargatzeko prozesuari dagokionez, 30 minututan bateriaren %80 betetzen da, eta 10 minutuz elektrizitate sarera konektatuz gero 60 kilometroko autonomia lor daiteke (50 kW-ko potentziaz). Alde horretatik, bateriak eta kargatze sistemak hobetzeko lanean dabilta marka asko buru-belarri. Baina, zenbat aurrezten da halako auto batekin? Elektrizitatea gasoil edo gasolina baino merkeagoa da. Endesak egin duen azterketa batean diote urtean batezbeste 1.065 eta 1.335 euro artean aurrezten dela (15.000 kilometro eginda eta gaueko elektrizitate tarifa murriztua kontutan izanda). Eta egia da, baita ere, mantenu kostuak askoz txikiagoak direla.

#### NISSAN: QASHQAI AUTOAK LIDER JARRAITZEN DU

Nissan etxeak azken urteotan errege ezaguna du, eta, salmenta kopuruei begiratuta, Qashqai modeloak ez du amorerik emateko asmorik: "Salmenta orokorretan lider da Espainian, eta, noski, baita bere segmentuan ere", diosku Gaurisa Autoetako Jose Luis Larrañagak. Eta lidergo horrek

oinarri sendoak ditu: "Dituen ezaugarriengatik publiko zabalarri eskainitako autoa da. Gazteek ondo hartu duten modelo da, eta baita nagusiek ere. Hala, kalitateari eta prezioari begiratuta, aukera ezin hobea da".

SUV autoak merkaturatu zituztenean bazirudien asfaltozko errepidetik kanpo erabiltzeko beharra zutenei bideratutako auto modelo zela, baina berehala ikusi zen ezetz: "Bezeroen ia %100ek errepidean erabiltzeko erabiltzen dute Qashqai. Oso automobil eroso da, praktikoa, handia izan barik tamainu aproposkoa, eta, egunero erabiltzeaz batera, bidaiatzeko ere aproposa da". Bistan da Nissan etxeak modelo horrekin bete-betean

asmatu zuela, baina modelo azpimarratzea ez da nahikoa; krisialdi sasoi honetan, prezioaren aldeko apustua egin dute: "Oso prezio ona du. Prever planarekin 16.000 euro ordainduta posible da Qashqai bat erostea, eta merkaturatzean ez dakit beste inork halako ezaugarriak dituen beste auto bat erosteko aukerarik ematen duen. 1.6 dCi motordun modelo azpimarratuko nuke. Nahiz eta kontraesana dirudien, kontsumo txikiarekin potentzia handia duen autoa delako".

Beste segmentu baten, Larrañagak Nissanen proposamen berrietako bat azpimarratu du: "Nissan V200 modelo profesionalerik zuzendutako furgoneta komertziala da. Baina taxi-auto moduan erabiltzeko homologatu zuten, AEBetan lehenengo, eta Espainian hasi dira orain, eta horrek erakusten du auto horren sendotasuna. Horrekin batera, mantenu-gastu txikia izateko pentsatua dago". Eta, aisialdirako automobil moduan ere erabiltzen hasi dira asko eta asko.

Amaitzeko, Nissan Juke modelo ere aipatu nahi izan du Larrañagak: "Auto txikien merkaturatzean, estetika apurtzailea du. SUV txiki bat da, baina oso eroso. Baliteke kapritxo txiki bat izatea, baina gazteek begi onez hartu dute".

## "Formazio eta informazio gehiago dago, bi aldeetatik"

YOLANDA BUJANDA  
RENAULT AUTOBERRI

## "Inoiz ez dugu Citroënen horrenbeste modelo izan"

MIKEL LOITI  
CITROËN CHAPIME

## "Qashqai modelo da Espainian auto salduena"

JOSE LUIS LARRAÑAGA  
NISSAN GAURISA

Goienarent  
Ibilgailuen alokairua



20 €-tik  
eguneko



## AUTO ETA FURGONETEN ALOKAIKURUA OÑATIN

- ✓ Lantokira nahiz etxeko atarira eramango dizugu ibilgailua DOAN
- ✓ Ibilgailuen flota zabala preziorik onenetan
- ✓ Enpresa nahiz partikularrentzako zerbitzua
- ✓ Aireportuko zerbitzua

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK  
943 71 66 52 / 619 44 71 75

www.goienarent.com  
goienarent@goienarent.com

# Poltsikoak agintzen duen hori

Auto merkeen eskariak gora egin du eta, horren barruan, bigarren eskukoak eta okasiokoak askoren aukera dira

**A**uto berrien matrikulazioak behera egiten jarraitzen du. Auto merkeak bilatzen dituzte erosle gehienek jada; hala baieztatzen dute saltzaileek. Eta bigarren eskuko eskaria gorantz doa. Faconautok, Automozio Kontzesionarioen Elkartearen Federazioak, emandako datuen arabera, 2012an egindako salmenten zatirik handiena, ia erdia, hamar urte baino gehiagoko autoena izan zen. Erabil-tzaileek, autoa badaukate, ahal den gehien eusten diote eta autoa behar dutenek ahalik eta merkeena bilatzen dute. Iaz saldutako bigarren eskuko auto tipikoa ia hamar urte dituen eta 10.000

euro inguruko prezioan saldutakoa izango litzateke, federazioaren datuen arabera.

## AUKERA ZABALA

Bigarren eskuko eskaintza indartzeko apustua ez da berria. Bai Citroën Chapime zein Renault Autoberri kontzesionarioetan arlo berezitu moduan dihardute aspalditik lanean. "Bezero guztiak ez doaz berriaren bila", azaltzen du Chapimeko Mikel Loitik, "eta erdiberri eta bigarren eskuko inguruan asko datoz galdezka; lehen baino gehiago", auto-saltzaileak aitortzen duenez. Autoberri ere negozio iturri garrantzitsu moduan ikusten dute bigarren eskukoena eta "stock



Bigarren eskuko autoen erakusketa.

**Erosleak, batez ere, auto merkeen bila doaz gaur egun**

handia izaten" saiatzen direla beti. Renaulten kontzesionario Kontxi Etxeberriak zalantza barik dio "ibilgailu merkeen bila" doazkiela erosle berriak eta bigarren eskukoaren kasuan 3.000 eta 6.000 euro bitarteko gastu-muga horre-

tan kokatzen direla bezeroak. Ford Mugarriko Rafa Etxabek ere bat egiten du emandako datu horiekin, auto merke eta bigarren eskukoaren igoera nabarmena agerikoa dela esan eta zehazten du orain urte batzuk bigarren esku-

www.renault.es / 902 333 500

## RENAULT CAPTUR BIZITZARI EUTSI



f Renault España YouTube Renault ESP



### ESPAINIAN FABRIKATUTAKO CROSSOVERRA

Renault Captur gama: kontsumo mistoa (l/100 km) 3,7tik 5,4ra. CO2ren emisioa (g/km) 98tik 125era.  
Renault garrantzitsuenak eife

DRIVE THE CHANGE



**AUTOBERRI, S.L.** SAN ANDRES AUZOA, 8. TEL. 943 712 472. ARRASATE

ko autoan 7.000 eta 8.000 euro artean saltzen baziren, orain, kopurua 4.000 eta 5.000 euro artekoa dela. Mikel Loitik dioenez, orientazio handia behar izaten dute bigarren eskuko edo okasio-ko autoen bila joaten zaizkien bezeroek, eta aurrekontuan eta beharretan oinarritzen dira. Gaur egun, baina, lehenesten dena aurrekontua da. "Poltsikoak agintzen du", dio Loitik argi eta garbi. Ahalegin hori ikusita, Chapimekoak dio bezeroari egokitzen saiatzen direla, eta, saltokian bertan ez badaukate, eskatzen den hori kanpotik ekartzen saiatzen direla.

**ORAIN, PIVE-TIK KANPO**

Espainiako Industria Ministerioak otsailean jarri zuen indarren Pive plan berria baldintza malguagoekin. Orain, auto zaharra txatarretara eramateko, 10 urte izan behar ditu, gutxienez, ibilgailuak, eta eroslearen jabetzakoa izan behar du (zenbat denboraz zehaztu barik). Plan berriak, baina, kanpo lagatzen ditu urtebete baino gutxiago duten auto erdiberriak eta bigarren esku-koak, orokorrean. Mugarrin, esaten baterako, Rafa Etxabek azaltzen duenez, egoera berriak 0 kilometroko autoen ia desagerpena ekarri du turismoen kasuan. "Orain bezeroari berari ez zaiolako komeni", dio.

**BERME GUZTIEKIN**

Legeak ezartzen duenez, profesional batek saldutako bigarren

**BIGARREN ESKUKO AUTOEN ESKAINTZA**

RENAULT AUTOBERRI	URTEA	EZAUGARRIAK
Renault Clio Sport 2.0	2007	200 ZP, gasolina / 73.039 km / 9.000 euro
Dacia Sandero 1.2	2012	75 ZP, gasolina / 3.240 km / 8.850 euro
Ford Mondeo 2.0	2006	130 ZP / 125.460 km / 6.500 euro
Renault Kangoo 1.5 DCI	2011	Diesela / 19.340 km / 10.800 euro
Renault Laguna	2008	Automatikoa / 42.260 km / 11.300 euro
FORD MUGARRI	URTEA	EZAUGARRIAK
Ford Focus	2012	Diesela / 0 km / 18.500 euro
Ford Transit	2012	Diesela / 0 km / 21.700 euro
Ford Focus TDCI	2011	110 ZP, diesela / 12.500 euro
Land Rover Td Freelander	2000	Diesela / 5.500 euro
Mercedes Vito CDI 8 jarleku	2004	Diesela / 14.500 euro
CITROËN CHAPIME	URTEA	EZAUGARRIAK
N-C4 e-HDI Exclusive	2013	110 ZP / 500 km / 19.500 euro
G C4 Picasso HDI Exclusive	2013	110 ZP / 600 km / 21.500 euro
DS5 Hybrid4 Sport	2012	Hibridoa / 10.500 km / 35.500 euro
C4 Aircross Exclusive 2WD Hdi	2012	150 ZP / 1.150 km / 30.000 euro
C Elysée Hdi Exclusive	2012	92 ZP / 2.600 km / 14.000 euro
UDALAITZ AUTOAK	URTEA	EZAUGARRIAK
Audi A3 Sportback 1.6 TDI	2012	105 ZP / 19.100 euro
Audi A3 Sportback 2.0 TDI	2010	140 ZP / 18.900 euro
Audi A4 2.0 TDI	2012	143 ZP / 25.100 euro
Audi A4 Avant 2.0 TDI	2012	136 ZP / 27.500 euro
Audi A5 3.0 TDI Quattro	2007	Lau gurpileko trakzioa / 19.900 euro
GAURSA AUTOAK	URTEA	EZAUGARRIAK
Nissan Juke	2013	110 ZP (81 kW) 4x2 / 4.000 km / 16.900 euro
Nissan Qashqai 2.0 dCi	2012	150 ZP (110 kW) / 0 km / 21.500 euro
Nissan Qashqai 1.5 dCi	2013	110 ZP (81 kW) / 0 km / 22.500 euro
Nissan NV 200 Combi7 1.5	2013	90 ZP, diesela / 0 km / 16.500 euro
Nissan Murano Tekna 2.5 dCi	2012	190 ZP / 24.000 km / 34.500 euro

Eskaintza baliagarriak akats tipografikorik ez baldin badago.

eskuko autoak, gutxienez, urtebeteko bermea izan behar du salmenta gauzatzen den unetik. Epe horren barruan, saltzailea da ibilgailuak beharrezko ezaugarri eta baldintzak betetzen dituen erantzule. Kontzesionarioetan, baina, bermea bera eta zerbitzua zabalagoa da. Kontxi Etxeberriak guztiaren gainetik "konfiantzaren bermea" ipintzen du, "beti gaudelako hemen". "Barne garantia eta transferentzia bermea kontzesionarioetan bakarrik" ematen dela dio Autoberrikoak. Mugarriko Etxabek, gainera, exijentzia maila handia aipatzen du: "Bai markak berak eskatutakoa eta baita bezeroek exijitzen dizkigutenak ere". Legea betez eta profesionalki jardunda, gainera, berme guztia emateaz gain, lana sortzen dutela azpimarratzen dute auto-saltzaileek.

**KLANDESTINOAK**

Horren harira, modu klandestinoan egindako salmenten hazkunde ere salatu gura dute kontzesionarioetatik. Kaltea egiteaz gaiz, nabarmentzen dute berme guztiarekin eta legearen barruan erosketa bat egiteko modu bakarra benetako profesionalengana jotzea dela.

**Berme osoa eta konfiantza profesionalak ematen dute**

**Economy ordezkoko piezak: 5 urtetik aurrerako ibilgailuendako kalitatea**

Volkswagen jatorrizko ordezkoko piezak\*



Urteen poderioz, zure ibilgailuaren jatorrizko piezek higadura sufrizten dute; horregatik, **Economy gama** sortu dugu: Volkswagen kalitateak eskaintzen dizuten ordezkoko piezak.

**5 urtetik aurrerako ibilgailuentzako** soluzio bikaina eskaintzen dizugu; gainera, prezio ekonomikoagoetan oinarrituta. Nola lortu dugu hau? Erreferentzia berberaren diseinuaren aldaketarekin eta barianteen murriztearekin.

Gainera, beste abantaila osagarri batzuk eskaintzen ditu gama honek; esaterako, ordezkoko piezen diseinuan erabilitako **goi mailako teknologia**.

Economy gama osatzen duten ordezkoko piezak zeintzuk diren azalduko dizugu; aurrerantzean, baina, gama honetan pieza gehiago egongo dira.

**Economy freno-pastillak**  
Iraunkortasun handia. Egiaztatutako iraupen luzea. Frenaketa ona.




**Economy isilgailuak**  
Korrosioarekiko erresistentea. Enkaje perfektua. Balio-bizitza: 8-10 urte artean.



**Economy bateriak**  
Mantentze-lanik ez. Balio-bizitza luzea.



**Economy bujia**  
Fidagarritasun handia. Kontsumo-efizientzia. Balio-bizitza luzea.



**Economy freno-diskoak**  
Frenaketa-potentzia ezin hobea. Balio-bizitza luzea.



**Economy eskuilak**  
Garbiketa ezin hobea. Zarata txikia. Erresistentzia handia.



**Economy motelgailuak**  
Segurtasun osoa. Portaera egokia martxan.



**Economy alternadorea**  
Zure ibilgailuak uneoro sortzen dituen kontsumo elektrikoak jasaten ditu. Zure ibilgailuari egokitutako karga ezaugarriak ditu.



**Economy homozinetika-juntura**  
Iraunkortasun eta fidagarritasun handia. Zure ibilgailuaren ezaugarriak kontutan hartuta diseinatutako pieza.



**Economy ordezkoko piezak: Volkswagen kalitatea prezio paregabe.**



Volkswagen Service  
Zure Volkswagenen kalitatezko zainketa behar du; eta zuk, preziorik onenak.

# Goiena Rent: enpresen eta partikularren zerbitzura

Auto txikiak, handiak eta furgonetak ematen ditu errentan Zubillagan egoitza duen (Oñati) enpresa horrek

**A**utoak eta furgonetak alokatzeko bada zerbitzua Debagoienean. Berri samarra dela esan daiteke (ekainean urtebete dela zabaldu zuten Jon Obesok eta Maite Almeidak), baina ibarrean zegoen hutsune bat bete eta dagoeneko erabat txertatu dela ere azpimarra daiteke. Maite Almeidak datuekin erakutsi digu hori argi eta garbi, eta baita pozik erakutsi ere: "Orain arte oso erantzun ona izan dugu. Hasi ginen bi autorekin, ez genekielako ze eskaera izan behar genuen, eta orain baditugu dagoeneko sei auto eta hiru furgoneta. Beraz, nahiko ondo goaz, bai".

**PREZIOAK ETA ESKAINTZAK**  
Goiena Rentek eskaintzen dituen auto edo furgonetak edozeinek aloka ditzake, jakina. Eta enpresaren funtzionamenduaren araberak, ikusten da errealitatean ere halaxe gertatzen dela. "Hasieran pentsatzen genuen zerbitzua



Jon Obeso, Goiena Rent enpresako ibilgailu birekin.

enpresendako izango litzatekeela, euren bidaietarako. Baina hasi gara konturatzen partikularrek ere nahiko alokatzen dutela; batez ere, furgonetak. Kasu horretan, batez ere oporretarako edo aisialdirako (asteburu-pasa, sagardotegietara joateko...) alokatzen dituzte. Gainera,

bederatzi plaza izanda, prezio aldetik oso ondo irteten da".

Edozelan ere, eta prezioei dagokienez, kontuan hartzekoa da, baita ere, ingurukoekin alderatuta prezio merkeenetakoak dituela Goiena Rentek partikularren kasuan. Eta deskontu bereziak egiten dituztela.

## Jakin beharrekoak

**ZERTARAKO ALOKATU?** Bederatzi plazako furgonetak, adibidez, "asteburu-pasa joateko koadrilan, edo oporretara... edo partikularrek alokatzen dituzte kargazko furgonetak, etxe aldaketak egiteko... Enpresek, berriz, gehienbat, bidaiak egiteko alokatzen dituzte autoak. Normalean, izaten dira enpresetako komertzialen bidaietarako, edo, enpresa berean, beste herri bateko delegazioetara joateko. Merkeago irteten da, adibidez, hegazkinean joatea baino".

**PREZIOAK** "Webgunean daude ([goienarent@goienarent.com](mailto:goienarent@goienarent.com)), baina esan daiteke merkeenetakoak garela. Inguruan dagoen enpresa bakarra eta Gasteizen dauden enpresak baino merkeagoak gara partikularrei zuzendutako eskaintzan".

**ESKAINTZA BEREZIAK** "Alokairu luzeen kasuan deskontuak egiten ditugu. Eta kilometro gutxi egiten dituztenen kasuan ere egiten ditugu deskontuak. Eguneko X kilometro kontratatzen dira, baina jakinez gero gutxieneko horiek ez direla egingo, orduantxe egiten ditugu deskontuak".

**ZEINI ZUZENDUTA?** "Orain Eibartik-eta ere hasi dira deitzen, baina batez ere Debagoienekoak dira gure bezeroak. Hasieran pentsatzen genuen zerbitzua enpresendako izango zela. Baina hasi gara konturatzen partikularrek ere nahiko alokatzen dutela; batez ere, furgonetak".

www.citroen.es

## CITROËN C4 AIRCROSS PLAN PIVE SERIE BEREZIA.



**CITROËN C4 AIRCROSS**  
HDI 115 S&S 6V 2WD SEDUCTION  
**20.450 €-ren truke.**

BARNE HARTZEN DU:  
AIRE-GIROGAILU AUTOMATIKOA HOZTEKO  
ESKULARRU-KAXAREKIN  
IRRATI, CD, ETA MP3-A  
CONNECTING BOX (BLUETOOTH, AUDIO-HARGUNEA ETA USB)  
16"-KO ALUMINIOZKO HAGUNAK  
GAUEKO LED FAROAK  
KANPOKO ATZERAKO ISPILUAK, ELEKTRIKO-KI ERAISGARRIAK  
ARGIEN PIZTE AUTOMATIKOA ETA EURIA BATZETAKO  
SPOT & START SISTEMA  
AURREALDEKO LAINOTAKO ARGIAK  
ESP + ASR + HILL ASSIST + 7 AIRBAG  
BARRUKO ORDENAGAILUA

CITROËNek nahiago du TOTAL

Jarrai gaitzazu: [f](#) [t](#) [v](#)

AURKI ITZAZU,  
HILABETEKO IZAR PREZIOAK  
[www.carstore.citroen.es](http://www.carstore.citroen.es)  
webgunean.



CREATIVE TECNOLOGIE

### CITROEN PIVE PLANA: + PIVE + DESKONTUAK + EKIPAMENDUA

Hilabete honetan, zure Citroën C4 Aircross guztiarekin dator, PIVE plana ere badu barne. Bizitza atsegina izatea ahalbidetuko dizun teknologiarekin, eta gertu esperientziak berriak bizi izateko. Plan honekin bat egin nahi? Gainera, [www.carstore.citroen.es](http://www.carstore.citroen.es) webgunean sartuz gero, prezio paregabeak aurkituko dituzu: Izar Prezioak.

KONTSUMO MISTOA (L/100 KM) / CO2 IGORPENA (G/KM): CITROËN C4 AIRCROSS: 4,6 - 4,9 / 119 - 129.

Prezio baliagarria: Citroën C4 Aircross Hdi 115 S&S 6V 2WD Seduction (zergak, garraioa, eskaintza eta PlanPive2 barne), Pive planari eusten dioten, eroslearen jabetzakoa den auto bat trukean uzten duten eta Banque PSA Financeren bidez gutxienezko 6.000 euroko kapitala eta 36 hilabeteko finantzaketa egiten duten bezero partikularrendako. Hilabetea amaitu arte, parte hartzen duten salmenta puntuetan. Ikusten den modeloa: Citroën C4 Aircross Exclusive sabai panoramiko packarekin. Eskaintza ez da bateragarria. Kontsultatu baldintzak [www.citroen.es](http://www.citroen.es) webgunean.



Debagoieneko Citroën zerbitzu ofizialak:

**TALLERES CHAPIME S.C.L.** - San Andres 5 Tel.: 943 79 45 22 - ARRASATE

**AUTOS ION** - Amillaga 36 - Tel.: 943 76 47 49 - BERGARA



## OHARRAK

## JOLASEN IKASTAROA

Bihar, zapatua, gurasoendako euskarazko jolasen ikastaroaren lehen saioa egingo dute, 10:30etik 12:30era, kiroldegian. Kultura etxean eman behar da aurretik izena; prezioa bost euro da.

## BISITA GIDATUA

*Ez kutuko altxorrak* programaren bueltan, Elorretako errotara euskarazko bisita dago bihar. 12:00etarako egin dute hitzordua Ibarraundin.

## GAZTELEKUA

Hankapalo tailerra izango dute bihar arratsaldean gaztelekuan; etzi, berriz, zinema dute gazteek.

## IKASTAROA

Zoriontsuak izateko entrenamendu mentalari buruzko tailerraren lehen saioa egingo dute etzi, domeka. Bi ordu-tegi daude: 09:00etatik 13:00etara, euskaraz; eta 15:00etatik 19:00etara, gazteleraz. Interesatuek [uarozena@musikene.net](mailto:uarozena@musikene.net) posta elektronikoa eman behar dute izena.

## ARETO FUTBOLA

Bihar, areto futbolearen, lehen erregionaleko lehia dago kiroldegian, 10:30ean. Etxekoak Aritza Matekizki gasteiztarren kontra lehiatuko dira.

# Martin Garitanok herriko errealitatea gertutik ezagutu du

Egun osoko bisita egin zuen atzo, eragileen eta herritarren ekarpenak jasotzeko

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Gipuzkoako diputatu nagusi Martin Garitano Eskoriatzan izan zen atzo. Herriko errealitatea gertutik ezagutzeko eta eragile ezberdinen nahiz herritarren ekarpenak jasotzeko etorri zen.

Diputazioko ordezkariak udal etxea bisitatu zuten lehenengo; osoko bilkuren aretoan, Garitanok esan zuen Eskoriatzan etxean bezala sentitzen dela, eta "bertakoak entzuteko" eta ahal den neurrian "laguntzeko" zegoela Eskoriatzan. Jarraian, Beñat Herce alkateak herriko errealitatearen eta etorkizuneko erronken berri eman zien; eta langileek eta udal ordezkariak kezka helarazi zizkieten; besteak beste, euskara eta enpleguarekin lotutako iradokizunak egin zizkieten.

Jarraian, unibertsitaterantz abiatu ziren, eta hango ikasleen kezka erantzun zituzten. Bisitak ez ziren hor amaitu. Handik Mazmelara joan ziren, auzo-alkateekin batzartzeko; eta bazkaldu ostean, instalazio esanguratsuenak bisitatzeko asmoa zuten. Hain justu, Zaldibar, zaharren egoitza, kiroldegia eta Zubiate. Eguna amaitzeko, batzar irekia egitekoak ziren Ibarraundin.



Udal ordezkari eta langileak, alkatearen adierazpenak entzuten. | MIRIAN BITERI



Huheziko ikasleek euren kezka helarazi zizkieten Garitanori. | M.B.

## Udala bake epaile titular eta ordezkari bila dabil

Udalak bake epaile titularra eta ordezkari hautatzeko deialdia egin du. Eskaerak Udalaren erregistro nagusian aurkeztu behar dira maiatzaren 29a baino lehen. Izendapena lau urterako da; kargudunak urtean 1.600 euro inguruko ordainsaria jasoko du, karguarekin bateragarri diren jardueren diru-sarrera arruntekin bateragarria dena. Legez dagozkion eskuduntzengatik prozesu zibil eta penalak beteko ditu, hala nola ezkontza zibilak edo leku-kon frogak.

## San Juan Txiki Eguna egingo dute bihar Mendiolan

San Juan Txiki Eguna ospatuko dute bihar, zapatua, Mendiolan. 10:00etan hasiko dira ospakizunak, etxafuego eta kanpai jotzarekin; eta ordu erdi geroago, Elixaberrirantz abiatuko dira. 11:30ean, meza santua izango dute fededunek. Jateko eta edatekorik ez da falta izango elizkizunetik irtetean: salda eta txorizoa gertu izango dute, trikitilariak giroa alaitzen duten bitartean. Eguraldi txarra eginez gero, Mendiolan bertan egingo dira ekintzak.



FILO MARTINEZ

## Lorea Armendarizen dominak

Pozik bueltatu da Lorea Armendariz zapatuan Irunen izandako Gipuzkoako Gimnasia Erritmikoko Txapelketa Nagusitik. Hiru domina lortu zituen: kadete B kategorian, lehena izan zen uztaiarekin egindako proban; eta bigarrena, mazoekin. Kategoria bereko sailkapen orokorrean ere lehena geratu zen. Goiko irudian, Armendariz, erdian, podiumean.

## Tantaidui hariztia ezagutzeko aukera dago etzi

M.B. | ESKORIATZA

Eskola Agenda XXI programaren bueltan, Tantaidui hariztira irteera gidatua antolatu dute domekarako Ibarraundi eta Leintz Gatzagako museok. Herritar guztiei dago zuzenduta gatz museoko Aitziber Gorosabelek gidatuko duen zailtasun txikiko mendi irteera hori. 09:30erako jarri dute hitzordua Ibarraundin; handik hariztirantz abiatuko dira, lehenengo autoz, eta gero oinez. Irteerak 1,5 euro balio du; egunean bertan ordaindu ahal izango da.



JAGOBA DOMINGO

## Zorionak, Bernabe Errasti!

Bernabe Errastik 103 urte bete zituen zapatuan, eta astelehenean Udaleko eta Olazar erretiratuen elkarteko ordezkari omenaldia egin zioten. Ardo botila bi, bonboiak eta bertako produktuz osaturiko otarra opari egin zizkieten. Pozik eta sasoiatsu ikusi genuen Errasti, ondokoekin berba egiteko gogoz eta aurrera jarraitzeko energia handiz.



## KONPONKETAK:

Txapa

Margoa

Mekanika



Joan den urtean udaberri eta udako arropa aurkezteko egindako desfilea. | GOIENA

## 'Durana Fashion Day'-k kolorez jantziko du Durana

UDA elkartearen eskutik saiheski errea jateko aukera izango da bihar

MIRIAN BITERI | ARETXABALETAKO

Udaberriko eta udako arropa eza-gutarazteko, *Durana Fashion Day* egingo dute ostera ere herriko komertzioek. Orain arte egubakoitz arratsaldean izan bada ere, bosgarren edizio honetan eguna aldatzea erabaki dute, eta bihar arratsaldean egingo dute. Aretxarteko presidente Idoia Elexpuruk azaldu digu aldaketa horrekin gonbidapena egin gura dietela aretxabaletarrei zapatu arratsaldean "herrian geratzeko" eta bertan dagoen giroaz gozatzeko.

Betiko moduan, Aretxarte elkarteok herriko hainbat dendaren eskaintza erakutsiko dute Durana kalean. UDAko futbol entrenatzaile Igor Arenatzak gidatutako desfilea 18:00etan hasiko da. Adin guztiei zuzendutako arropa eroango dute jantzita modelo lanak egingo dituzten boluntarioek. Gazteen arropa, esaterako, UDA kirol elkarteok jokalariek jantziko dute; herriko hainbat umek ere desfilean parte hartuko dute, gurasoek lagunduta, denboraldiko jantzi koloretsuak eroaten. Batzuek zein besteek etxean utzi beharko dute lotsa.

90 kilo saiheski

Modeloak pasarelan dauden bitartean, herritarrek saiheski errea probatzeko aukera izango dute Mitarte kalean. Josu harategikoak

okela erretzeaz arduratuko dira eta UDAko partaideak, berriz, pintxoak eta edatekoa banatzeaz. 90 saiheski kilo inguru erreko dituzte.

JULEN ARRIOLA | MODELOA

### "Janzkera zaintzea gustuko dut; arropa mundua beti gustatu izan zait"


Julen Arriola aretxabaletar gazteak desfilean parte hartuko du bihar. UDAko jokalariek badu eskarmentua.

**Lehen aldiz parte hartuko duzu?**

Ez, oraingo honetan bigarren aldian izango da irtengo naizena.

**Zer dela-eta animatu zara agertoki gainean ibiltzera?**

Helburua bikoitza da: herriko dendei laguntzea; eta, bestetik, denok batera ondo pasatzea.



IDOIA ELEXPURU

**Gustura zabilta modelo lanetan?**

Bai, gustura egiten dugu lan hori.

**Janzkera zaintzea gustuko duzu?**

Bai, arropa mundua beti gustatu izan zait, kaleko edo mendiko arropa erabiltzen badut ere.

**Herrian horrelako ekintzak antolatu behar direla uste duzu?**

Bai. Horrelako ekintzekin giro ona sortzen da; azken baten, herriko jendeak parte hartzen du.

## Hondakinen gaineko azken batzar informatiboa egingo dute bihar goizean

M.B. | ARETXABALETAKO

Aretxabaletako Udalak sortutako Hondakinen Mahaia azken batzar informatiboa egingo du bihar, zapatua. Herritarrek, *Ideien Zaparrada* egitaspora aurkeztutakoak eta udal ordezkari politikoak elkartuko dira 11:00etan hasiko den bilkuran.

Sei taldetan banatu da mahaia: merkatariak, ostalariak eta elkarte gastronomikoak;

hezkuntza eta erretiratuak; Zero zabor eta 5. edukiontziairen aldekoak; industria; landa gunek; eta herritarrek batu dira.

**Hitzaldia astelehenean**

Bestalde, astelehenean, *Hiri hondakinen kudeaketa egokiak baliabideak sortzen ditu eta osasun babestu* hitzaldia eskainiko dute Kepa Olaiz eta Julia San Jose adituek, 19:00etan.



TXEMA GALLEGO

## Aitor eta Xabier Gallego irabazle

Domekan Hondarribian jokaturako Bidasoaldeko Errepublikazaleen III. Xake Txapelketan lan bikaina egin zuten Arlutz Xake Taldeko Aitor eta Xabier Gallego Bereziartua aretxabaletarrek. Mini-benjamin kategorian lehiatu ziren eta lehenengo bi postuak lortu zituzten: Aitorrek txapela jantzi zuen, eta Xabier bigarren geratu zen. Pozik bueltatu ziren 8 eta 6 urteko anaiak herrira.

## Gurrutxagaren 'Confidencias de un futbolista' dago gaur

Zuhaitz Gurrutxaga futbolariak Arkupe bisitatu du gaur, egubakoitza, 22:00etan. *Confidencias de un futbolista* bazarriketa eskainiko du Realeko jokalariei ohiak; hamar urtetik gorakoendako zuzenduta dagoen emanaldia da hori. Sarrerak bost eurotan salduko dira.

## 'Motxila bete ipuin' kontakizunarekin dator Iraitz Lizarraga

Ipuin kontalaria izango da bihar, zapatua, 11:00etan, Arkupen. Iraitz Lizarraga zizurkildarrak *Motxila bete ipuin* izeneko kontakizuna kontatuko die lau urtetik gorako neska-mutikoei. Arkupeko liburutegian izango da ordubete inguru iraungo duen emanaldia.

Jon Diaz  
starakina  
Loramendi 1  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABALETAKO

Mobiliario  
ARENZA  
ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA  
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETAKO

PINTURAS  
UNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak  
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea  
ARETXABALETAKO  
Tel.: 943 77 00 33 / 943 79 42 56

# 'Prozaka.eus' antzezlari buruzko galdeketa egin dute

Loramendiko sustapen taldeak hausnarketa bultzatu gura izan du ekintza horrekin

M.B. | ARETXABALETA

Apirilaren 20an, Loramendi Elkarteko sustapen taldearen eskutik, *Prozaka.eus* ikuskizuna izan zen Arkupen; Zاراia aretoa bete egin zen eskainitako hiru saioetan, eta, astebete geroago, Loramendik ikusleen %20ri galdeketa egin zien, iritzia jasotze eta hausnarketa egite aldera. Horren emaitza ezagutarazi gura izan dute orain elkartekoek.

Pozik daude emaitzarekin; sustapen taldearen helburuak "erabat" bete egin direla jakinarazi dute: galdeketa araberak, alde batetik, ikusleek "oso gustura" ikusi zuten ikuskizuna; eta bestetik, ikusleek agerian utzi zuten esketxetan eta elkarriketetan islatuta ikusi zutela euren burua, eta horrek pentsatzera eta hausnartzera eragin zituela.

Sustapen taldeak nahiko luke sentsibilizazio ekintza horiek ez daitezela ikuskizunean bakarrik gelditu. Honakoa nabar-

mendu dute: "Ekintza hauek eragindako hausnarketaren ondorioz izan gaitzen norbanako bakoitza protagonista eta izan gaitzen gai praktikan jartzeko; hau da, motibaziotik erabilerarako pausoa emateko gai izan gaitzela. Bakoitzak eman behar du pausua aurrera euskara erabiliz". Azkenik, Loramenditik eskerrak eman dizkiete ikuskizunean izan eta galdeketa parte hartu zutenei eta baita lana posible egin duten aktoreei, elkarrizketatuei, teknikariei eta Copreciri ere.

DATUA

## %20

IKUSLEGOA

Antzezlana ikusten egondako %20ri egin die galdeketa Loramendik.



Unanueren lan bat. | GOIENA

## Nikasio Unanueren lanak Arkupen daude

M.B. | ARETXABALETA

Nikasio Unanue aretxabale-tarrak *Plumilak* izeneko erakusketa du ikusgai Arkupen. Kultura etxeko erakusketa aretoko ohiko ordutegian bisita daiteke: astelehenetik egubakoitzera, 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara; eta zapatuetan, goizez.

Denera, 17 koadro daude ikusgai. Horietako batzuk aretxabale-tarrak berak asmatutakoak dira eta beste batzuk, ostera, Picasso, Zabaleta edo Arteta bezalako artista ospetsuen arte lanen kopiak dira. Edozelan ere, koadro guztiak luma-muturra teknika irekin egin daude. Erretiratu zenean hasi zen Unanue margotzen, eta orain egindakoa ikusteko aukera dago.

LEINTZ GATZAGA

# Beste bi ortu esleitu dituzte

Hori horrela, bi ortu geratu dira hutsik, eta, ezustekorik ezean, Udalak horrela utziko ditu

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Aisialdirako egokitutako ortuak eskatzeko baldintzak flexibilizatu, halako beste bi adjudikatzea lortu du Gatzagako Udalak. "Lau zeuden soberan, bi eskaera gehiago jaso ditugu, beraz hasiera batean ez da arazorik izango bie ortu bana emateko. Ortuak hartuko duen batek etxea du Gatzagan, eta besteak hemen egiten du lan; beraz, biek ala biek, badute lotura herriarekin", kontatu du Imanol Saez de Biterik, Mendietako zinegotziak.

Azken adjudikazio horiekin, beraz, udal partzeletan egokitutako sei ortuotatik pare bat geratu dira hutsik. "Seguru aski, hala geratuko dira aurten. Ezin da eskaera gehiagoren zain egon, gauzak landatzeko berandutu egingo delako", adierazi du Saez de Biterik. Edozelan ere, zinegotziak gehitu du hutsik geratu diren bi ortuen mantenuaz Udala bera arduratuko dela: "Garbi mantentze aldera, urtean behin edo pare bat bider desbrozatu egingo ditugu".

Sorginen bidaia, irailean

Bestalde, Sorginak Emakume Elkartek buru-belarri dihardu 25. urteurreneko ospakizun ekitaldiak antolatzeko ahaleginarekin. Asteotan, urteko bidaiaren gainekoak erabaki guran dihardute. Izan ere, elkartean emakumezko edadetuak daudela-eta, urteotan egun-pasak antolatu dituzte, bestetan egin izan dituzten asteburu pasen lekuan. Oraingoan, baina, zerbait berezia egin guran asteburu pasako bidaia berreskuratzekotan dabilza. "Irailean 20-22ko asteburura atzeratu dugu aurteko bidaia, elkarteko kideen beharrak aintzat hartuta; eta orain datotarako aukerak aztertzen gabiltza, bidaiaren kostoa eta baldintzak tarteko, bereziki, elkarteko emakume edadetuen zailtasunak kontuan hartuta", azaldu du Rosa Urretak, Sorginak elkarteko kideak. "Nahi duguna da Bilbotik zuzenean ateratzeko eta bidaiako hiru egunak ahalik eta gehien aprobetxatzeko aukera emango digun lekua aukeratzea", zehaztu du.

ORAIN

LEHEN

ORAIN

LEHEN

## Zure bainuontzia kendu eta dutxa jartzen dizugu

# EGUN BATEAN

hori guztia kalitate eta zerbitzu onena emanda.

Dei egiguzu konpromiso berik eta dituzun zalantza guztiak argituko dizkizugu.

Iturgintza, gasa, kalerakzioa eta eguzki-platea termikoen instalazioa etxeako unarandako  
Mitarte 5 behea - Tel.: 943 71 52 51 - 605 71 66 92 - ARETXABALETA

## ARAMAIO

## Hilaren 24a, udalekuetan izena emateko azken eguna

J.B. | ARAMAIO

Udalekuetarako hilaren 24a baino lehen eman behar da izena. Aurten uztailearen 10etik 23ra izango dira, bi egunak barne -10:00etatik 13:00etara-. 3 eta 12 urte arteko umeek eman ahalko dute izena eta prezioa izango da 36 eurokoa. Izena emateko, haurraren datuekin betetako fitxa eta Udalak Euskadiko Kutxa edo Vital Kutxan duen kontu zenbakian 36 euro sartu izanaren ordainagiria aurkeztu behar da -haurraren izenean-, udaletxean edo eskolan.

Begirale izateko, berriz, ekainaren 15eko formazio saiora agertzea derrigorrezkoa izango da. Ordutegia honakoa izango da: 09:30etik 13:30era. 17 urte baino gehiago dituztenek eman ahalko dute izena eta 240 euro kobratuko dute. Bestalde, baloratuko da begirale titulua edota irakasle-eskola ikasi izana, EGA titulua izatea, umeekin esperientzia izatea eta aramaioarra izatea. Begirale izan gura dutenek ere maiatzaren 24a baino lehen egin behar dute eskaera.

## Lorabari Astea, ABBk egindako lanaren erakusleho izateko

Bihar, amaitzeko, azoka berezia egingo dute plazan, 10:00etatik 14:00etara

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Hilaren 4a ezker Lorabari Astea da Aramaion. Aramaio Basarri Barri egitasmoak hainbat ekintza antolatu ditu, Elkartasuna guraso elkartearekin eta San Martin eskolarekin elkarlanean. Aste bereziaren helburua da ABBk azken urteetan egindako lanaren erakusleho izatea. Zapatuan Patxi Uribarrenak eta Alex Mendikutek gidatutako bisitan 20 lagun inguru elkartu ziren: "Eguraldi aparta, hainbat bitxikeria eta beste hamaika istorio entzuteko irrikaz, aurrerago ere elkartzeko gogoz gelditu ginen denok", esan digute. Hilaren 5ean, berriz, Arriolako bide zaharrea hainbat sendabelar ezagutu eta identifikatzeko aukera izan zuten; 40 bat lagun elkartu ziren.

Asteon ere hainbat ekintza egin dira: martitzenean, eskola jangela eredu ezberdinen gainean jardun zuten Sabrina Pato eta Patxi Gaztelumendik; eguaztenean, sagar ekologikoaren gaineko tailerra eskaini zuen Xabier Akizuk eta atzo, azkenik, ogi ekologikoa egiteko aukera egon zen Azkoaga auzoan.



Patxi Uribarrena Olabetxo zubian azalpenak ematen, bisita gidatuan. | ABB

### Azokan, produktu ekologikoak

Egitarrak ez du etenik izango bihar arte. Gaur Idurre Arangurenen olio zaharra erabiliz xaboa nola egin daitekeen erakutsiko du, Sastiñan (18:30). Hala ere, biharkoa izango da egun handiena. Antolatzaileek azoka berezia prestatu dute Bizente Goikoetxea plazan, 10:00etatik 14:00etara: gazta, ezti, sendabelarrak, ogia, moxal haragia, sagardoa eta sagar

zukua, esnekiak, ardo eta garagardo ekologikoak, sasoiko eta bertako produktuak zein Euskal Herriko beste hainbat produktu egongo dira salgai. Horrez gain, bidezko merkataritza postua, herriko musikari eta dantzarien saioak, haurrendako tailerrak eta bideo emanaldiak egongo dira. Amaieran aste ekintzetan parte hartu dutenen artean otzara bat zozketatuko dute.

## ELGETA

## Gipuzkoako txapelketako 80 bat bolari espero dituzte zaturako Bolatokian

L.Z. | ELGETA

Gipuzkoako hiru txirilo txapelketako seigarren jardunaldia jokatu da bihar, zapatua, Elgetako Bolatokia tabernan. Aurreko jardunaldietan 80 bat bolari elkartu izan dira —21 talde—, eta Elgetan ere beste hainbeste izango direlakoan daude antolatzaileak.

### Elgetako bi talde

Txapelketan dihardute Elgetako bi taldek, eta, bost jardunaldi jokatu ostean, Elgeta A taldea laugarren doa taldekako sailkapenean. Txapelketan herriko bolari onena, oraingo, Sebas Arantzeta da: zortzigarren doa. Zapatuan 17:00etan emango diote hasiera tiraldiari.

## Teilatu-hodiak garbitzeko deialdia egin du Udalak; hilaren 25a baino lehen eman behar da izena

Teilatu-hodiak garbitzeko makina eta pertsonala kontratatuko ditu Udalak ekainean. Aukera baliatu gura duen herritarrik balego, hilaren 25a baino lehen jakinarazi behar luke udaletxean. Udalak eraikin publikoetako garbiketara ordainduko du, eta izena ematen dutenen artean ordainduko da gainerakoa.

## OHARRAK

### ASENTZIO EGUNA

Domekan, 12:00etan, meza esango dute ermitan. Gero, trikitalariak eta mokadutxoak egongo dira gaztetxearen eskutik.

### MENDI IRTEERA

Kantsatzekek Atxuriara egingo du irteera domekan. 08:00etan elkartuko dira plazan.

### FRONTENIS

Aste bukaera honetan ez da partidurik jokatu. Hurrengoan hasiko da txapelketa.

### HAURESKOLA

Zerbitzua irailetik azarora bitartean erabiltzen hasi nahi dutenek astelehena dute izena emateko azken eguna.



Gaztetxean aurreko urte baten egindako festa. | GAZTETXEA

## Kontzertu indartsuak eta elkartasun festa aste bukaeran gaztetxean

Herri maputxea izango da protagonista zapatuan

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Aste bukaera betea dute gaztetxean. Gaur, barikua, BC Bombs talde bilbotarrak eta Argentina Argies laukoteak egingo dute kontzertua 22:00etan hasita. Sarrera bost euro da, eta lehenengo garagardo upela doan emango dute.

Zapatuan, beste hiru talde igoko dira gaztetxeko eszenatokira. Egunka elkartasun kutsua izango du hasieratik. Herri maputxearen inguruan antolatutako

emanaldia izango da zapatukoa, izan ere ikus-entzunezkoa eta mahai ingurua ere antolatu dituzte gaztetxean. "Guaka taldeak euren egitasmoaren berri eman zigunean bat egitea erabaki genuen", adierazi dute Elgetako Gazte Asanbladatik. "Nahiz eta Bordelen bizi txiletarrak dira, eta taldearen irabazien zati handi bat preso politiko maputxeen senitartekoei bideratzen dute".

Asanbladakoek antzekotasun handiak ikusten dituzte euskal

herriaren eta herri maputxearen artean. "Hizkuntza propioa dute, zapalduak dira, bi Estaturen menpe bizi dira, ez dute estatusik herri bezala...".

Zapatuan, maputxeen errealitatea ezagutzeko ikus-entzunezkoa eskainiko dute gaztetxean, 17:30ean. Gero etorriko dira herri afaria eta kontzertuak. Guaka taldearen aurretik The Torcidos Monkey Dream (Mexiko) eta ZZ Blues Band (Soraluze) ariko dira. Sarrera hiru euro da.

### ASTE BUKAERA GAZTETXEAN

#### MAIATZAK 10, BARIKUA

22:00 Kontzertua:

- ▶ BC Bombs (Bilbo).
- ▶ Argies (Argentina).

#### MAIATZAK 11, ZAPATUA

17:30 Bideo emanaldia eta mahai ingurua.

19:30 Poteoa gaztetxetik abiatuta.

21:00 Herri afaria.

23:00 Kontzertua:

- ▶ ZZ Blues Band (Soraluze).
- ▶ The Torcidos Monkey Dream (Mexiko).
- ▶ Guaka (Txile)

# ZIGARROLAKO JAIK 2013

## ARRASATE



### MAIATZAK 10, ostirala (Erretiratuen Eguna)

- 10:00 Kanpai errepika eta kohete jaurtiketa, jaiak hasi direla iragartzeko.  
 10:15 Haurrentzako kirol-jokoak auzoko eskoletan.  
 11:30 Danborrada Arizmendi ikastolako umekin.  
 17:00 SPINNING MASTERKLASA, Musakolako kiroldegian, kanpoko patinaje aterpean. Monitore adituak. Izen ematea kiroldegian.  
 17:30 Txokolate eta bollikao banaketa 12-17 urteko gazteentzat.  
 Haurrentzako tailerrak 3-12 urte bitarteko haurrentzat, gazte txokoan.  
 17:30 Pintxo dastaketa. EKINEK antolatuta, San Antolin eskolan.  
 18:30 Gazteentzako jokoak, gazte txoko kanpoko patioan.  
 19:00 Ikurrina igotzea. Buruhandiak gaitariekin batera. Alkatetzatik gozokien jaurtiketa. Txapela eta zapia ikurrina igotzean jantziko ditugu.  
 19:30 Auzoko erretiratuentzako jai-afaria Al-Andalus kultura elkartearen.  
 22:00 Bolo txapelketa bolatokian, San Isidro elkartearen ondoan. Izen ematea, bolatokian.  
 23:00 Rock kontzertua: RPL eta GARRAXI. San Antolin plazan.  
 Berbena San Isidro eliza ondoan, garai guztietako musika Oñatiko DJ Javi Sound-en eskutik.  
 + beranduago BER-TA-RA

### Egun osoan kohete jaurtiketa

### MAIATZAK 11, larunbata (Koadrilen Eguna)

- 10:00 Eguzkia eta eguraldi ona.  
 11:00 Gazteentzako patata-tortilla lehiaketa. Talde bakoitzari patatak, arrautzak eta olio emango zaizkio. Zartagina, kanpin-gasa eta bestelako osagaiak talde bakoitzak eraman beharko ditu. Izen ematea, Musakolako gazte txokoan.  
 11:00-13:00 Gaztetxokoak antolatuta Scooter-Skate 2. txanda. Bukaera San Antolin eskolan.  
 11:30-13:30 Puzgarriak San Antolin ikastolan.  
 12:00 Umeendako asto jai, auzoko herri eskolaren inguruan.  
 Herri txikiteoa, gaitariekin alaituta.  
 Erretiratuen etxeko tabernatik irtengo da astoa. Mesedez, ordurako azaldu.  
 12:00 Auzoko tenis txapelketaren finala. Musakolako kiroldegian.  
 13:30 Mundu osoko kategorian, Urrezko Astokiloak eman eta jartzea.  
 14:00 Aurten ere ez da egingo manifestazio ofizialik, edo bai.  
 15:00 Herri bazkaria San Isidro eliza ondoan (eguraldi txarra eginez gero, aterpean egingo da). Musakolako txarangak alaituta. Bazkari-txartelak erosteko: Ziorla, Meneta eta Txinato tabernetan.  
 Zozketak eta jai zoroa izango dira.  
 Herri kalejira.  
 17:00 Lili eta Lalo taldearen eskutik ipuin kontaketa magikoa.  
 17:00-20:00 Puzgarriak San Antolin ikastolan.  
 18:00 San Isidro sokatira sari nagusia  
 1. Garaikurra eta bildotsa.  
 2. Urdaiazpikoa eta xanpain sorta.  
 3. Urdaiazpikoa.  
 4. Xanpain sorta.  
 19:00 Arrasate Musikaleko haize-egur taldearen, banda txikiaren eta orkestra gaztearen kontzertua Santa Teresa elizan.  
 19:30 Buruhandiak gaitariekin batera.  
 23:00 Euskal Herriko DJ hoberena: DJ Amaia San Antolin plazan.  
 Berbena San Isidro eliza ondoan, KAIXO taldeak alaituta.  
 Gauerdian Hainbat moda-ikuskitun auzoko pertsonaia xelebrenekin.

### MAIATZAK 12, igandea

- 10:00 Eguzkia eta eguraldi ona.  
 11:00 Meza nagusia San Isidro elizan.  
 11:30-13:30 Puzgarriak San Antolin ikastolan.  
 11:30 Gimnasia erritmiko erakustaldia Musakolako kiroldegian.  
 12:30 Txikiteoa, Arrasate trikitixa eskolak alaituta.  
 17:30 Zezentxoak San Antolin ikastolako patioan.  
 18:30 Kalejira Arrasate trikitixa eskolak alaituta.  
 22:30 Azken traka Paseo Maritimoan: suzko erruberak, sorpresa ikusgarria, agurra eta amaiera.

### MAIATZAK 15, SAN ISIDRO eguna

- 11:30 Meza nagusia San Isidro elizan. Ondoren abesbatza eta herritarrentzat luncha San Isidro elkartearen.  
 14:00 Baserritarrek euren zaindariaren omenezko bazkaria egingo dute.

### Datorren urtera arte.

### AUZOKO ARTISTEN ESKULANEN ERAKUSKETA

Ostiralean, larunbatean eta igandean, musakolako erretiratuen egoitzako lehen solairuan, auzoko artisten eskularen erakusketa izango da.

VIRGINIA ile apaindegia • ARIGARA iturgintza • GOI SOLUTIONS • INDAR zerbitzu integralak  
 EGUREN arraindegia • UDALAITZ • ILUNA taberna • ARRASATE ELEKTRIZITATEA  
 IMANOL iturgintza • IOSU taberna • JEY JULIWER taberna  
 JOMA • ESTRELLA taberna • MENETA taberna • TXINATO taberna  
 ZIORLA taberna • GAINDEGI jatetxea • BEBERLY taberna • MUSAKOLA estankoa

**Ondo pasa jaiak!**



Gorlako oso ibilbide zirrargarria da. | JOSETXO ARANTZABAL

**AUTOMOBILISMOA**

# "Ibilbideagatik, pilotuek Gorlako Igoera maite dute"

Zapatuan 68 pilotu izango dira irteera puntuan, denboraldia hasteko gertu

**XABIER URZELAI** | ARRASATE  
Euskadiko auto igoeren denboraldia hasiko dute bihar Bergaran -joan den astean hasi zuten rallysprintena, Azpeitian- eta urteko lehenengo hitzordurako jendea gozoz dabil, 68 pilotu izango dira -eta Boluko auzoan, irteera puntuan (15:00): "Gorlako Igoerak 22 urte egingo ditu, eta jaso dugun eskaera kopuruaz bistan da pilotuek lasterketa hau maite dutela, ibilbidea gustuko dutela", adierazi digu aste barruan Gorlaracing taldeko Xabi Zabaletak.

Urteurrena ospatzeko, gainera, lasterketak oihartzun handiagoa izateko lanean ibili dira antolatzaileak, eta eguaztenean prentsaurrekoa egin zuten Lainon, aurtengo xehetasun guztiak azalzteko.

**Debagoiendar asko**

Biharko lasterketan ibarreko pilotu asko egongo dira irteera puntuan; 20, guztira. Antolatzaileek azpimarratu duten moduan, "goraipatzekoa da krisi garai hauetan izena eman duen pilotu kopurua". Kopuruaz gain, kalitatea ere aipatu dute antolatzaileek: "Clio autoek ikuskizun polita eskainiko dute".

Igoerak azken urteetan ospe handia hartu du eta aurtun Manuel Cobo Espainiako txapeldunak parte hartuko du. Haren Porche 911k begirada ugari erakarriko ditu. Autoak ez dira ikuskizun bakarria izango. Urtero moduan, Gorlako Igoerako ibilbidea ere emango du zeresana. Bihurguneak, igoerak, errepide estuak... Eguerdialdiak laguntzen badu, ikusleek gogotik gozatuko dute.

**Segurtasuna oso presente**

Ezbeharrak saihesteko, antolatzailerak nahiz txapelketako komisarioek segurtasun kontuak asko azpimarratu dituzte. Ohar horrekin batera zirkuitua garbi mantentzeko dei ere egin dute.

**DEBAGOIENEKOAK**

PILOTUA	AUTOA
<b>BERGARA</b>	
Aitor Zabaleta	Lola BMW
Iñigo Lizarralde	Citroen Zx
Roberto Gomez	Mitsubishi EVO
Igor Calleja	BMW 325i E36
Iker Murillo	BMW 325i
Iker Cruz	Renault Clio Sport
Iñigo Errasti	Renault Clio Sport
Markel Cestafe	Mitsubishi EVO
Garikoitz Badiola	Alfa Romeo 75
<b>ONATI</b>	
Ruben Nogueiras	Silver Car
Aitor Ramirez	BMW 320 ST
Josu Lertxundi	BMW M3 E36
Monika Muñoz	Citroen ZX 16v
Josu Agirre	Audi S3
<b>ESKORIATZA</b>	
Alberto Murillo	BMW E36
Aitor Frutos	Renault Clio Sport
Gorka Idigoras	Opel Astra GSI
<b>ARETXABALETA</b>	
Ander Corcuera	VW Golf GTI
Mikel Otxoa	Citroen Saxo
<b>ELGETA</b>	
Asier Unzetabarrenetxea	BMW 325i

**FUTBOLA**

## Mondrako zaleei dei egin die zuzendaritzak etziko

Mondrak, Aloña Mendik eta Aloñak jokatu dute etxean; Antzuolaren partidua ere berezia da

**X.U.** | ARRASATE

Asteburuan etxean jokatu dute Mondrak, Aloñak eta Bergarak, eta Aretxabaleta Trintxerperen zelaira joango da. Azken horiek 5 puntura dagoen hirugarren postuagatik lehiatu nahi dute denboraldi amaierara arte, eta Aloña eta Bergara lasai antzean dabilta, lanak eginda dituzte.

Mondraren eta Lagun Onaken partidua (domeka, 16:30), berriz, finala da bi taldeendako. Arrasatearrek jipioa jaso zuten Hondarribian (5-0), eta sailkapenaren

zuloan sartu dira berriro. 31 puntu dituzte, Ostadarren moduan; azpeitiarrek 34 dituzte.

Zaleak domekan Mojategira erakartzeko zuzendaritzak ez du sarrera kobratuko, eta horrekin batera sariak banatuko dituzte. Zozketa bat egingo dute bazkideen artean, eta beste bat zozketako txartela erosten dutenen artean.

**Antzuolak, azkena**

Erregionalean, joan den astean porrot mingarria jaso zuen Antzuolak, eta lidergoa galdu zuten Geta-



Mondrako jokalaria. | J. ARANTZABAL

riakoren mesedetan. Juanina Garai entrenatzaileak, baina, Goienari esan moduan bigarren sailkatua ere seguruenik mailaz igoko denez, lidergoa galtzeak ez du ondorio horren larririk ekarriko.

**TXIRRINDULARITZA**

## Bailarako ziklismoa lutoan, Larrinagaren heriotza dela eta

**X.U.** | ARETXABALETA

Bailarako txirrindularitza lutoan dago Joseba Larrinagaren heriotza dela eta. Larrinaga pertsona oso ezaguna zen aretxabaletarren artean; udal-langilea zen, eta kirolzale amorratua. Aurten 45 urte egingo zituen, ekainaren 5ean, hain justu ere (1968an Aretxabaletan jaioa).

**Paralimpikoetan, domina**

Gazteagotan korrika asko ibilitakoa zen: Sidneyko (2000. urtea) eta Atlantako (1996) Joko Olinpiarretan aritu zen, Paralimpiar Jokoetan, bietan maratoian, eta 5.000 metroko lasterketan ere bai, Atlantan. Hain justu ere, 1996an, zilarrezko domina lortu zuen Atlantan, maratoian. Aspaldiko urteotan, baina, zikloturista amorratu bilakatuta zegoen.

Urtero moduan, aurtengo denboraldirako ere hainbat hitzordu zituen begiz jota, besteak beste, lagun artean egin nahi zituen hainbat bizikleta martxa; tartean, Irati Extreme gogorra. Horiek ondo prestatzeko, joan den domekan Bergarako Aspanogi 6+3 zikloturista martxan izan zen, hor ere lagunartean.

**Ziklisten artean ezaguna**

Bizikletan ibiltzen direnek urrutetik prestatzen zuten harendako agurra, edozein maillot jantzita ere, erraz antzematen zelako aurretik zetorrena *Mar-do* zela. Hark zuen urritasun fisikoak berezi egiten zuen; bizikleta gaineko ibilkera ezohikoa zuen, berea. Askok igarriko dituzte haren errepideko agurrak faltan.



Larrinaga, kasko beltzarekin, domekan Bergaran, lagunekin. | JOSETXO ARANTZABAL

**ASTEBURUKO HITZORDUAK**

**FUTBOLA**

**OHOREZKO ERREGIONALA**  
Trintxerpe-Aretxabaleta  
Zapatua. 16:30. Pasai Antxo.

**Mondra-Lagun Onak**  
Domeka. 16:30. Mojategi.  
Aloña Mendi-Berio  
Domeka. 16:30. Azkoagain.  
Bergara-Urola  
Zapatua. 17:00. Agorrosin.

**ERREG. PREFERENTEA**  
Antzuola-Idiazabal  
Domeka. 17:00. Estala.

**1. ERREGIONALA IGOERA**  
Aretxabaleta-UDA-Ostadar  
Zapatua. 16:00. Ibarra.

**OHOREZKO GAZTEAK**  
Mondra-Tolosa  
Zapatua. 15:30. Mojategi.  
Aloña Mendi-Ostadar  
Zapatua. 16:30. Azkoagain.  
Bergara-Zumaiaiko  
Zapatua. 18:30. Ipintza.

**GAZTEAK, IGOERA FASEA**  
Iñitxa-Aretxabaleta  
Zapatua. 18:30. Legazpia.

**ESKUBOLOA**

**EUSKADIKO TXAPELKETA, IGOERA FASEA**  
Ford Mugarri-Virgen Europa  
Gaur. 19:00. Santoña.

Ford Mugarri-Pontevedra  
Zapatua. 16:30. Santoña.  
Santoña-Ford Mugarri  
Domeka. 12:30. Santoña.

**SASKIBOLOA**

**LEHEN NAZIONAL MAILA**  
Araberrí-MU  
Zapatua. 16:30. Gasteiz.

**GIPUZKOAKO SENIORRAK**  
MU A-Take Orbela  
Gaur. 20:00. Musakola.  
Soralue BKE-Aletiko SS  
Zapatua. 16:30. Labegaraieta.

**BIGARREN SENIOR MAILA**  
Donosti Dolp.-Aloña Mendi  
Zapatua. 20:00. Benta Berri.

**HIRUGARREN SENIORRAK**  
MU B-Tecun  
Zapatua. 17:30. Musakola

**ATLETISMOA**

**OTALA-ZELAIKO 35. KROSA**  
Domeka. 10:00. Haurrendako lasterketa, 11:00etan nagusien proba.

**AUTOMOBILISMOA**

**GORLAKO 22. IGOERA**  
Zapatua. 14:00. Bergara.

**ZIKLISMOA**

**ARANTZAZUKO 44. IGOERA**  
Gazte mailako lasterketa  
Zapatua. 16:30. Onati.

**PILOTA**

**GAUR, EGUBAKOITZA**  
Bergaran, 19:00etan hasita: Bost partidu jokatu dituzte Udaberri txapelketakoak. Eskoriatzan, 19:00etan: Udaberri txapelketa barruan, hiru partidu jokatu dituzte. Aretxabaletan, 19:30ean: Udaberri txapelketa partidu bat jokatu dute. Arrasaten, 20:30ean hasita Udaberri txapelketa hiru partidu jokatu dituzte.

**ZAPATUAN**

Bergaran, 11:00etan hasita Udaberriko Lau 1. erdi barruan, hiru partidu jokatu dituzte. Arrasaten, 10:30etan hasita Udaberriko Lau partidu jokatu dituzte. eta 18:00etan hasita beste hiru partidu

**DOMEKAN**

Arrasaten, 17:00etan hasita Herri Arteko Txapelketa kanporaketa, Uarkapen.

## ESKUBALOIA

Pablo Gartzia | Ford Mugarriko entrenatzailea

## "Saso puntuan onen goaz Santoñara, baina ez dakit igotzeko nahikoa izango ote den"

Ford Mugarrik domekara arte jokatu du Lehen Nazional Mailarako igoera fasea

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Hirugarrenez jokatu du Ford Mugarrik Lehen Nazional Mailarako igoera fasea. Katalunian eta Asturiasen jokatu eta ez zuen zortetik izan. Hirugarrena etxean jokatzeko eskaera egin arren, Pablo Gartziairen taldeak Santoñan jokatu du oraingoan (ikus beheko taula). Igoera fasea nola planteatu duten galdetu diogu entrenatzaileari.

**Ze egoeratan heldu zarete igoera fasera?**

Fisikoki oso ondo heldu gara. Denboraldiko sasoi puntuan onenean gaude, baina ez dakit Lehen Nazional Mailara igotzeko nahikoa izango ote den.

**Lehen partidua irabaztea inportantea da?**

Orain dela bi hilabete hasi ginen igoera prestatzen, eta etxeko lanak ondo egin ditugula esango nuke.

## "Igoera lortzeko, aldeko baldintza asko izan behar dira une berean"

Baina bai, lehenengo partidua irabazi beharra daukagu. Bestela, akabo.

**Madrildarren kontra hasiko duzue fasea. Nolako taldea da?**

Egia esan, ez daukagu erreferentzia zuzenik. Eskola bateko taldea dela badakigu, eta oso indartsuak direla ere bai. Guk gure lana egin beharko dugu, eta momentuan erabakiak hartu.

**Bigarren lehiari galiziarrek izango dituzue aurrez aurre.**

Talde gogorra da. Euren jokoa ezagutzen dugu: badakigu nola jokatzeko duten erasoan eta defentsan. Dena den, gaur, gure ondoren jokatu dute eta gertutik ikusiko ditugu.

**Azken lehia, domekan, etxeko taldearen kontra. Igoera faseetan etxeko taldeak abantaila izaten duela diote.**

Santoñako taldea etxekoa da, baina profesionalak izan diren jokalariek eta entrenatzaileak ditu.

Arraten eta Bidasoan ibilitako Julian Ruiz da entrenatzailea. Etxeko taldea izateak baino askoz gehiago kezkatzen nau horrek. Talde berezia da.

Aurkariak indartsuak direla jakinda ere, guk gure lana ondo egiten badugu, hiru partidua irabazteko aukera asko izango ditugula badakigu.




Pablo Gartzia | JOKIN BEREZIARTUA

## Hirugarrenean bai?

Asmo horrekin goaz. Baina badakigu zaila izango dela. Multzo gogorra egokitu zaigu.

**Gogorra litzateke esku hutsik itzultzea?**

Bai. Zoritxarrez, igoera barik geratzera ohituta gaude, baina azken asteetan lan psikologiko handia egin dugu. Ford Mugarriko jokalariek guztie txiki geratu zaie Euskadiko txapelketa, baina badakite Lehenengo Nazional Mailara igotzeko aldeko baldintza asko izan behar direla une berean.



## 'Baserrisarea.com' da bertako ekoizleen lanera gerturatzeko Interneteko leihorria berria

Debagoienerako nekazaritzaren erakusleihora da *Baserrisarea.com*. Beste zerbitzu askoren artean –denda birtuala barne–, ekoizleen lanaren eta produktuen berri ematen da atarian, kontaktu eta guzti.

**M**aria Jesus Revueltak Eskoriatzako Eraña auzoan dauka ortua. Orain dela bi urte erosi zituen sailak, formazioa jaso eta gero. Aretxabaletako kontsumo taldeetako baten hornitzailea da, hain zuzen. Berria da nekazaritza munduan, baina formazio handia jaso du.

**Nolatan hasi zinen ekoizle moduan?**

Aitak betidanik izan du ortu txiki bat eta orain dela bost urte formazioa jasotzen hasi nintzen. Artean ez neukan lan finkorik eta erabakia hartu nuen. Kostata, baina, lurrak eskuratu nituen eta erakundeekin laguntza handiarekin hasi nintzen ekoizten.

**Hasiberria izanda, esperientzia faltan igarriko duzu, ezta?**

Bai, noski. Biolurretik, hala ere, laguntza handia ematen didate: gaixotasunak, aholkuak, planifikazioa... Gainera, guztia ekologikoa da eta kontu handia eskatzen du horrek. Bertako garaiko produktu



“Guztia modu ekologikoan landatzen eta zaintzen dugu eta horrek arreta handia eskatzen du. Bertako garaiko produktu ekologikoak izateak, baina, balio handia du”

ekologikoak izateak, baina, balio handia du. Gaur bertan [eguzteina] etorriko da teknikaria bisita egitera, hain justu.

**Aurten ortua berandu dabilela entzuten da, ezta?**

Eguraldia ez dabil oso fin. Letxuga, kipulin, ilar eta baba handien garaia da. Landatu ditut tomateak eta piperrak, eta baita marrubiak ere. Hilabeteko atzerapenarekin dabil ortua; eskerrak berotegia daukagun. Ea eguraldiak hobera egiten duen, ze, bestela, neguko barazkiak agortu

egingo baitira eta udakoekin hasita ere ez gara egongo. Gauza bakoitzak bere garaia dauka eta faktore horien mende egon behar duzu.

**Nora bideratzen duzu ekoiztutakoa?**

Aretxabaletako kontsumo talde bat daukat eta oso gustura nabil. Biotarre mota egiten ditut: handiak eta txikiak; 25 otarre, guztira. Denera herriarrek hartzen dute parte kontsumo talde horretan. Astearen behin, martitzenetan, banatzen ditugu otarreak. Konpromisoa

hartu besterik ez dago, eta taldekoak gustura daude. Otarre handia nahikoa izaten da lau kideko familia batentzat astebeterako. 60 euro da hilean otarre handia; eta txikia, ostera, 32 euro da eta pertsona batentzat edo etxean, adibidez, afaldu besterik egiten duen bikote batentzat egokia izan daiteke. Kontsumo taldeaz gain, gustatuko litzaidake poliki-poliki Aretxabaletako azokara ere joatea. Asmoa daukat, irailan, udako sasoi oparoa izaten dela eta, azokara ere joaten hasteko.

## IGOERA FASEA

## PARTIDUAK

HILAK 10, EGUBAKOITZA

19:00 Ford Mugarri - Virgen Europa

21:00 Santoña - Pontevedra

HILAK 11, ZAPATUA

16:30 Ford Mugarri - Pontevedra

18:30 Santoña - Virgen Europa

HILAK 12, DOMEKA

10:30 Virgen Europa - Pontevedra

12:30 Santoña - Ford Mugarri

baserrisarea.com  
Debagoieneko landa eremuaren erakusleihora

- Gure produktuak ekologikoak dira
- Gure landak berriz eta ondo zaintzen ditugu
- Gure erakundeak atari bikoitzak dira
- ...eta askoz gehiago!

Debagoiena BASERRI SAREA

# KULTURA

## Debagoieneko artisten eskutik, askotariko antzerki maratoia bihar

- ▶ Eskoriatzako Teatro Kanape taldeak antolatu du, Udalaren eta herritarren laguntzarekin
- ▶ Ibarraundi museoan 18:00etan abiatuko da publikoarentzako antzerki maratoia

A. ARANBURUZABALA | ESKORIATZA

Antzerkia eta gorputzaren espresioa lantzeko eta gozatzeko aukera zabaltzeko helburuarekin, herriko Teatro Kanape taldearen ekimenez antzerki topaketa egingo dute bihar, zapatua, Ibarraundi museoan.

Herrian sortu eta herritar guztiendako izan nahi duen ekimenaren arima diren Iraia Arzamendik, Olatz Pagaldai eta Ahinara Zubizarretak Ibarraundi museoan antzerki maratoia antolatuko dute, Debagoieneko askotariko adin eta eskarmentudun artisten istorioak 18:00etan hasiko den antzerki-maratoian bilduta. Hiru euroren truke, bada, antzerki, kanape eta edaria eskuratzeko proposamen paregabea.

### Antzerki maratoi ibiltaria

11:30ean Ibarraundin elkartuko dituzte partaideak, elkar ezagutu eta nork bere agertokia atontzeko. Elkarrekin bazkalduko dute gero, eta ondoren, entsegu orokorra egin ostean, 18:00etan zabalduko dituzte publikoarentzako ateak.

Antzerki jaialdia hasiko da orduan. Ibarraundi kanpoan bildutako ikusleei harrera eginda, barrura sartu eta zazpi antzerki taldeak Ibarraundin sakabana-tuta, lanean hasiko dira, nor bere agertokian, gutxi gorabehera hamar minutuko saioa eginda. "Ikusle bakoitzak hautatuko du nondik eta zer hasi gura duen ikusten eta bozina batek abisatuko dio lekuz eta saioz aldatzeko unea dela", azaldu du Iraia Artzamendik. Talde bakoitzak zazpi aldiz egingo du, beraz, antzezlanak, ikusleei saio guztiak ikusteko aukera emanda horrela. Saiotik saiora, herriko dendari eta tabernarien laguntzarekin kanpoan jarritako tabernaxora joateko aukera ere izango da.

### Askotariko istorio artistikoak

Denetarikozko kontakizunak batuko dituzte *Ibarraundi antzokian* bihar; horiek guztiak, taldeek asmatutako gidoi originaletan: "Lekuari buruzko informazioa eman zitzaien gidoiaren abiapuntu bat izateko eta, era berean, aipamen bat egiteko. Hortik abia-



Ahinara Zubizarreta, Iraia Arzamendi eta Olatz Pagaldai, Teatro Kanapeko kideak. | TEATRO KANAPE

### TOPAKETAKO EGITARAUA

#### ZAPATUA

**11:30** Parte hartuko duten antzerki taldeak Ibarraundin bilduko dira.

**13:00** Partaideen bazkaria.

**18:00** Antzerki maratoia: Ibarraundiko txoko ezberdinetan, ikusleentzako zazpi antzerki talderen emanaldiak. Ibarraundi kanpoan tabernaxoa egongo da.

tuta, istorio fantastikoak, barre eragitekoak, gaur egungo lan egoeraren gainekoak, kritika soziala egiten dituztenak sortu dituzte. Batzuk bakarriketa formatuan kontatuko dituzte, bideo formatuan beste batzuk, eta beste batzuk, berriz, taldekako antzerkia eginda.

### Herriko txokoak antzoki

Kanape Teatro taldearen asmoa da urtero herriko eraikin bat antzerki topaleku bilakatzea. Udalean baimena eskatu zutenean, hainbat aukera eskaini zizkien, eta segituan egin zuten Ibarraundiren alde: "Eraikinaren historiak, herrian daukan zentzuak eta, era

**"Antzerkiaren muina barrutik ezagutarazi nahi izan dugu"**

AHINARA ZUBIZARRETA | TEATRO KANAPE

**"Herrian sortutako ekimena da, herritarrendako"**

IRAIA ARZAMENDI | TEATRO KANAPE

berean, barruan dagoen lekuegatik, aproposena iruditu zitzaigun, eta niretzako, bereziki, oso toki kuttuna da, han bizi izandakoa naiz-eta", dio Ahinara Zubizarreta taldekideak.

### Lagundu dutenei esker onez

Asko dira atzeko lanetan jardun dutenak; horregatik, bada, Kanape Teatrokoen partetik: "Modu batera edo bestera lagundu diguzuen guztioi, eskerrik asko!".



Ruper Ordorika | Musikaria

# "Bakarka, kantuen sustraietara zoaz; kantatzeko beste modu bat da"

Gitarra konpainia bakarra duela kontzertu intimoa egingo du Arkupeko Zaraia aretoan bihar, zapatua, 22:00etan; sarrerak leihatilan salgai

**A. ARANBURUZABALA | ARETXABALETA**  
Ruper Ordorika oñatiarrak *Bakarka* kontzertua egingo du Arkupeko Zaraia aretoan bihar, zapatua, 22:00etan. Sarrerak leihatilan bakarrik salduko dituzte, 8 eurotan. Gitarra konpainia bakarra duela igoko da agertokira.

## Zer dela eta bakarrik?

Aspaldian nuen era horretako emanaldiak egiteko beharra, baina erabakirik ez nuen hartzen. Beharrak eraginda hemen edo han kantatu izan dut kanturen bat edo beste inoiz bakarrik, baina ez kontzertu oso bat. Orain, berriz, aspaldiko asmo bat gauzatzea lortu dut. Niretako ere ona da bakarrik ibiltzea. Taldearekin izango ez nintzen lau aretotara joateko aukera eman dit.

## Zer moduz orain artekoak?

Niretako ikas bidaia bat izan da eta kontent naiz horregatik. Marikan, Tafallan eta Lasarten izan naiz eta biharkoa da azkena. Datorren urtean ere egingo nituzke beste hainbat bide beretik. Beti hobeto guran, baina gustura ibili naiz orain artean. Formatu honetako emanaldiek beste kontzentrazio bat eskatzen dute. Bakarka, gauzak hurbilago dira eta uste dut aurrez ezagutzen nauenarendako aldaketa interesgarria ekarriko duela.

## Nolako izango da biharkoa?

Bakarka, nahitaez, sustraietara zoaz, kantatzeko beste modu bat da. Egia da kantuak nireak direla; hala ere, niretako pauso bat aurrera egitea da, norabide berean bada ere. Saiatu naiz formatu honetako kontzertuetako aretoak ondo zaintzen, tamaina txikikoak, argi bereziak erabilia... Aretxabaletan lehenengoz izango naiz, gainera!



Ruper Ordorika gitarra konpainia bakarra duela kantuan. | RUPER ORDORIKA

## "Bakarkako kontzertuekin, aspalditik nuen beharra bete dut"

### Zer diozu erreperitorioaz?

Azkeneko diskoetan oinarrituta dagoen arren, beste sasoieta kantuak ere sartzen ditut. Garai ezberdinetako kantuen batura moduan definienezake, azkeneko etapari pisu berezia emanda, baina.

### Tranpa barik, dena zuzenean.

Aurrez grabatutako ezer ez dut, ez. Kantuak etorri bezala kantatzen ditut. Bakarka beste sakonera bat hartzen dute kantuek, espresio biluztuagoa dute.

**Erronka pertsonalaz gainera, taldearekin Hodei azpian diskoarekin jarraitzen duzu.**

Bai, disko berarekin jarraitzen dugu, baina dagoeneko urte eta piku baduenek, hasi gara beste garai batzuetako kantuak ere kontzertu horietan sartzen.

### Hurrengo diskorik bada gertu?

Ba, egia esan, orain hilabete eskas bukatu dugu azkenekoa grabatzen. Dena ondo bidean, udazkenerako ateratzeko asmoa dugu; beste pauso bat emango dugu orduan. Goiz da horretaz berba egiteko, akaso aldaketak egingo dira, eta, badaezpada, ez dut askorik aurreratu gura. Gehiena eginga dago eta azkeneko ukituak ematea falta da.

### Azkeneko diskoak, kanpoan, atzerrian eta beste lagun batzuekin grabatu dituzu. Azkena ere bai?

Ez, hortxe ezberdintasunetako bat; oraingoa, Euskal Herrian, Azkarate estudioetan grabatu dut eta nirekin izan ditut Mugalariak taldekoak.

## Aretxabaletarren erromeria kuttuna domekan da

Udalak erabaki du domekan egitekoa den Ojala Zelaiko krosari Joseba Mardo izena ipintzea

**OIHANA ELORTZA | ARETXABALETA**  
Ojala Zelai erromeria egingo dute domekan. Urtero moduan, egun osoko egitaraua prestatu du Aretxabaletako Udalak: herri krosa, haurrentzako jolasak, paella lehiaketa, besteak beste, proposatutakoak.

### Paella lehiaketa

Lasterketek emango diote hasiera egunari. 10:00etan, haurrendako lasterketak hasiko dira Ojala zelaian eta 11:00etan, 35. Ojala Zelai herri krosa egingo dute, Joseba Mardo krosa, Joseba Larrinagaren omenez. Urkuluko urtegiari itzulua eman beharko diote kirolariek. Bi kategoriatan lehiatuko dira: banaka eta binaka. Parte hartzeko izena lasterketa hasi aurretik eman behar da hantxe bertan, 09:30etik aurrera. Sari

banaketaren ostean, animaliekin jolasak egingo dituzte.

Paella lehiaketa arratsaldeko ordu batean hasiko da. Arroza, olio, tipula, gatza, kolortzailea eta berakatza antolatzaileek jarriko dituzte. Gainerako osagaiak parte-hartzaileek eraman beharko dituzte. Lehiaketa horretan parte hartzeko, bost euro ordaindu behar dira izena ematerakoan. Arkupe kultura etxean apuntatu behar da eta gaur, egubakoitza, da azken eguna horretarako.

Horrez gain, sagardo festa ere egingo dute eguerdian Aretxabaletako Leizarra musika eskolako trikitilariekin, eta herri bazkaria horren segidan. Arratsaldean, euskal disko festa eta dantza saioak egingo dituzte musika eskolako dantza taldearen eskutik.

## 'Hemen' poesia liburua kaleratu du Maite Toledo antzuolarrak

**O.E. | ARRASATE**

Kalean dago Maite Toledo antzuolarraren bigarren poesia liburua, *Hemen*. 37 olerki batzen ditu, batzuk beste batzuk baino luzeagoak. "Poesia bisuala islatzen da olerki motzetan, batez ere; luzeak gai baten ingurukoak dira", azaldu du egileak.

### Diseinatzaileen ilustrazioak

Joan den urtean idatzi zituen poesia gehienak; Sardinian oporretan zegoela hasi zen liburua idazten. "Aurreko libururitik hona, erosoago sentitu naiz; gozamenera eraman nau

liburuak", aitortu du egileak. Lau zati ezberdinetan batu ditu jasotako olerkiak: *Hilezkortasunera igarota*, *Poesiak salbatuko gaitu*, *Zu zeu* eta *Nabigatzen* izeneko ataletan, hain zuzen. Gainera, liburua ilustratuta dator. Azalean Kristobal Balentziaga inspirazio iturri hartutako irudi bat dago eta barruko orrietan beste diseinatzaile batzuen argazkiak datoz. Gustura gelditu da Toledo.

Ediciones Beta argitaletxearekin argitaratu du liburua. *Jet Lag* aurreko olerki lana ere etxe horrekin kaleratu zuen.

## Goiena Klubeko bazkideei honakoa dugu eskaintzeko maiatzean

**KAFE MAKINA**

NESCAFÉ Dolce Gusto Melody kafe makina dugu zozketatzeko!

**EROSKI**

**BASERRISAREA.COM**

DEBAGOIENEN BASERRI SAREARI esker baserriko produktuez osoturiko 4 otar zozketatuko ditugu.

**Baserrisarea**

**ARRIKRUTZ**

Hilero bezala, Arrikruz kobak bisitatzeko, 6 sarrera zozketatuko ditugu.

**ARRIKRUTZ**  
onaitiko obak

**MIHILUZE**

MIHILUZE jokoa irabaztea nahi? Bi joko ditugu zozketatzeko.

**Margia**

**BERTIKAL.COM**

Bertikal joko berria gazte zein helduentzako. 5 joko ditugu zozketatzeko.

**bertikal**

**Parte hartzeko**

DolceGusto  
Baserrisarea Bertikal  
Arrikruz Mihiluze

SMS: KLUBA [SARIAREN]  
[bazkide zkia] 215800 zkira.  
Telefonoz: 943 25 05 05  
E-postaz: kluba@goiena.com  
WhatsApp bidez: KLUBA [SARIA]  
[bazkide zkia] 688 69 00 07 zkira.

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.  
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioitzatzea. Eskubidea izango duzu datuotzen sartzeko, hain zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

943 25 05 05 | goienakluba.com

**goienakluba**  
Abantailaz betetako kluba!





Arrasate Musikaleko ikasleak eta irakaslea ziklo musikaleko kartelarekin eta instrumentuekin. | ARRASATE MUSIKAL

# Instrumentu guztiak martxan Arrasate Musikaleko zikloan

Ekain bukaera arte askotariko 22 musika emanaldi egingo dituzte, 40. urteurrena ospatzeko

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Hilaren 4an hasi zuen Arrasate Musikaleko ziklo musikala; eta ekainaren 28ra arte, eskolako instrumentu guztiak martxan ipiniko ditu, askotariko 22 emanaldi egiteko. Arrazoaia, bat eta bakarra: Arrasate Musikalen 40. urteurrena. Hori behar den moduan ospatzeko jai handia maiatzaren 25ean egingo dute,

baina aurreko eta ondorengo asteetan, txistu, gitarra, saxofoi, gaita, biolin, piano, tronboi eta bestelako instrumentuekin kontzertuak egingo dituzte.

## Askotariko instrumentuak

Ziklo musikaleko lehen emanaldia, esan bezala, maiatzaren 4an egin zuten Herriko Plaza Nagusian. Hain justu ere, txistularien

doinuak izan ziren protagonista. Bada, oraingo aste bukaeran, biolinak izango dira nagusi, Kulturaten, 18:30ean. Martitzenean, hilaren 14an, aldiz, gitarra astinduko dute Arrasate Musikaleko ikasleek. Emanaldi hori ere Kulturaten izango da, 18:00etan.

Hauek dira ziklo musikaleko maiatzeko emanaldiak: hilaren 17an saxo eta gaita emanaldia

## Maiatzaren 25ean jaia

40. urteurrenoko ospakizun nagusia hilaren 25ean egingo dute. Egun horretan, Arrasate Musikaleko historia egiten lagundu duten irakasle, ikasle eta gurusoak batuko dira. 12:00etan kalejira egingo dute. 13:00etan hainbat emanaldi egingo dituzte Herriko Plazan: ballet saioa, banda eta orkestra gazteak, lengoia musikalekoen saioa... 14:30ean bazkaria egingo dute Biteri plazan; 17:00etan jokoak; eta 19:30ean; musika bandaren kontzertua.

## Natura-argazkigintzari buruzko ikastaroetan izena eman daiteke

Arantzazu Gaur Fundazioak natura-argazkigintzari buruzko bi ikastaro egingo ditu: maiatzaren bata eta ekainean eta uztailen bestea. Lehena oinarrikoa izango da eta bigarrena hobekuntzakoa. Gema Arrugaeta argazkilaria izango da irakaslea.

Horietan parte hartu gura dutenek alde aurretik eman behar dute izena, 943 78 28 94 telefonoan edo [arantzazu@gipuzkoamendizmendi.net](mailto:arantzazu@gipuzkoamendizmendi.net) helbidean.

Ikastaroak Gandiaga Topagunean emango dituzte. Goizez 10:00etatik 13:30era eta arratsaldez 15:00etatik 18:00etara arte.

## Willie Nilek kontzertua egingo du Amaia antzokian bihar

Gaztemaniak ekimenari esker Willie Nilek kontzertua egingo du bihar, zapatua, Amaia antzokian, 20:00etan. Sarrerak zazpi eurotan eros daitezke leihatilan.

New Yorkeko olerkariak 2012an grabatutako *American Ride* diskoaren aurkezpena egingo du Arrasaten. Hark ekoitzi eta zuzendu zuen lana, Stewart Smithekin batera.

Melodia bikainak jaso ditu hamabigarren diskoan. Lanari izena ematen dion kantua 2013ko abesti onenetako bat izango dela diote adituek.

Nileren aurretik Jim TNT bakarleri arrasatearra igoko da oholtzara, folk doinuak eskaintzeko asmoz.



Angiozarko trikitilari eta pandero-jole taldea irakaslearekin. | HARKAITZ ULLAR

# Angiozarko trikitilarien maketaren aurkezpena gaur

Ekitaldira doazenek diskoa jasoko dute opari, eurek eramandako janariarekin truke eginda

M.B. | BERGARA

Angiozarko trikitilari eta pandero-joleek lehen diskoa aurkeztuko dute gaur, 19:00etan, hango elizan. 12 ikaslek hartu dute parte eta 24 kantu grabatu dituzte, tartean betiko kantuak –Osko-

rriren *Gaztelugatxeko altxorra*, Urdangarinen *Badira hiru aste* eta Esne Beltzaren *Esne saltzaila*, besteak beste; instrumentalak; ahotsa dutenak eta ikasleek eurek sortutakoak. "Urtero egiten dugu ekimen bereziren bat. Aur-

ten diskoa grabatzea pentsatu genuen", esan digu Harkaitz Ullar irakasleak. Pentsatu eta egin. Eskolan bertan, eurek zituzten baliabide eta instrumentuekin grabatu zuten. "Esperientzia polita izan da guztiondako, eta emaitzarekin gustura gaude", dio Ullak.

## Janaria Caritasera

Angiozarko trikitilari eta pandero-jole eskolako 12 ikaslek hartu dute parte diskoan. Bina kantu grabatu dituzte, eta horietatik erdiak eskainiko dituzte gaurko emanaldian. Irekia izango da herritar guztiendako.

Gainera, aurkezpen ekitaldira doazen guztiek diskoa jasoko dute opari. Trukean, jakiak eroatea eskatzen duten antolatzaileek. "Ekimen berezia egin gura genuen. Guk diskoak oparituko ditugu, baina, trukean, jakiak eskatu nahi ditugu", diote.

Iraungitzen ez diren jakiak jasoko dituzte; besteak beste, galletak, esnea, kontserbak, pasta, arroza, lekaleak... Diskoaren aurkezpenen jasotzen den janari guztia Caritas elkartera eramango dute antolatzaileek.

# 'Peter Pan' musikalaren bi emanaldi Kurasaalean urrian

Urriaren 26an egingo dute ikuskizuna, baina oraindik ez dituzte ordutegiak zehaztu

M.B. | BERGARA

*Peter Pan* euskarazko musikal Kurasaalen eskainiko dute urriaren 26an. Donostiako Udalak antolatutako ekimena da, Donostia Kultura erakundearen bitartez.

Bergarako musika eskolako kideek bi emanaldi egingo dituzte, baina oraindik zehaztu barik daude orduak. Aurrerago jakinaraziko dituzte antolatzaileek, eta baita sarrerak non eros daitezkeen ere.

## Aurretik beste batzuk

2012ko Gabonetan estreinatu zuten *Peter Pan* musikal Bergaran. Arrakasta itzela izan zuen herrian, eta, egun batzuk geroago, Elgetako Espaloian erakutsi zituzten *Peter Pan*-en abenturak. Oraingo honetan,



Peter Pan. | JOSETXO ARANTZABAL

mugak gehiago zabaldu, eta Donostiara helduko da. Aurretik, *Miserableak*, *Oliver!*, *Seusen mundua* eta *Olentzero&Co!* musikalak eskaini izan dituzte. Udan beste emanaldi batzuk egingo dituzte Bergarakoek herritik kanpo.

**1. ETXEBIZITZAK**

**103. ERRENTAN EMAN**

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan erdialdean. Deitu 685 72 78 12 zerbakira.

**Bergara.** Etxebizitza interesgarria ematen da errentan erdigunean. Garajearekin, eguzkitsua eta guztiz hornitua. Deitu 688 62 39 45 zerbakira.

**Elgeta.** Etxebizitza errentan ematen da Elgetako Salbador kalean. bi logela, sukaldia eta egongela. 650 23 10 19

**Eskoriatza.** Ikasleentzako etxebizitza ematen da errentan. Unibertsitateetik 15 metrora. Lau logela. Guztiz hornitua eta berokuntzarekin. 655 72 44 10 edo 656 71 65 11

**104. ERRENTAN HARTU**

**Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan, merke. Bi edo hiru logelakoa. 629 80 77 73

**105. ETXEA OSATU**

**Arrasate.** Pertsona bat behar dut Gelmako etxeetan etxebizitza osatzeko. Oñati. 687 26 46 58

**Bergara.** Pertsona bat behar da etxea osatzeko Bolun. 225 euro denabare. Wifiarekin. 670 85 86 68

**Oñati.** Pertsona bat behar dut etxebizitza osatzeko. Deitu 688 694 976 telefono zerbaki honetara. Ruben

**Oñati.** Pisua osatzeko pertsona bat beharko genuke. Langilea izatea gustatuko litzaziguke. Deitu 653 74 87 51 zerbakira 20:00etatik aurrera.

**2. GARAJEAK**

**201. SALDU**

**Aretxabaleta.** Santa Kurtz 24an garaje itxia salgai. Deitu 655 71 37 84 telefonora.

**Elgeta.** Salbador 21ean, garajea salgai. 650 23 10 19

**204. ERRENTAN HARTU**

**Oñati.** Garajea errentan hartuko nuke Errekalde edo Moiuva kaleen inguruan. 650 27 05 78.

**Oñati.** Garajea hartuko nuke errentan Bakardadeko Ama kale inguruan. Berdin da itxia edo irekia izan. Epe luzerako gurako nuke. 630 13 08 92

**4. LANA**

**402. ESKAERAK**

**Arrasate.** Neska gaztea arratsaldean umeak zaintzeko prest. Haur Hezkuntza ikasten. 685 77 43 24

**Arrasate.** 54 emakumea prest pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko esperientziak. 943 79 60 89

**Arrasate.** Emakume euskalduna goizetan lanerako gertu: umeak zaindu, plantxa lanak eta abar. 699 54 17 27

**Bergara eta inguruak.** Pertsona nagusiak zaintzen eta etxeko garbiketarik egiten esperientzia duen emakume arduratsua naiz, eta Bergara edota inguruko herrietan lan egingo nuke astean zehar zein asteburuetan. 633 65 69 65

**Bergara, Arrasate eta Oñati.** Garbitasun lanak: etxebizitza, tabernak, atarteak eta abar. Umeak edo nagusiak ere zainduko nituzke. Orduka ere bai. Berehalan lanean hasteko moduan. 625 86 99 51

**Bergara.** Emakume euskalduna prest goizetan etxeko lanak egiteko. 627 96 19 22

**Bergara.** Haur hezkuntza ikasketak egiten ari den neska euskalduna, ekainean eta uztailean haurrak zaintzeko prest. 618 43 60 35 edo 943 76 32 27

**Debagoiena.** Garbiketalaran lan egingo nuke: garajeak, base-riak, tabernak eta etxebizitza garbitzen, baita mezulari moduan ere. Interesatuok deitu 625 96 73 33 telefono zerbakira. Pascual

**ZURE IRAGARKIAK**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egutuzkeneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak iragaritoki ditugu. Hortik aurrera, ez du onartuko aldaketarik edo iragarkia bertan behera uzterik. GOIENAK ez du iragarkien ondoko operazioen erantzukizunik.

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu: nagusiak zaindu, garbitasun lanak eta abar. 943 53 35 82 edo 691 72 67 38.

**Debagoiena.** Emakume espainiarra lanerako gertu garbitasun lanetan zein nagusien zaintzan jarduteko. Baita etxean bertan bizi izaten ere. Esperientziaduna. 722 32 43 67

**Debagoiena.** Emakume euskalduna lanerako gertu. Eskarmentua daukat lantegian, denda, nagusi zein umeak zaindu eta abarrean. 606 50 25 67

**Debagoiena.** Emakumea gertu lanerako: nagusiak eta haurrak zaintzen zein atari, etxe eta abarren garbiketan. Brenda. 631 13 02 48

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusiak zaindu eta garbiketarik egiteko. Gauz ere bai. 672 96 08 22

**Debagoiena.** Emakumea lan egiteko gertu, nagusiak zainden eta garbiketalaran lan egiten. 943 76 48 26 edo 650 17 74 87. Maite

**Debagoiena.** Eritzaintza tituludun neska lanerako gertu: nagusiak zainden, garbitasun lanetan, gauak ospitalean egiten eta abar. Autoa daukat. Debagoienetik kanpo ere lan egingo nuke. 688 80 27 01 edo 943 25 02 96

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu: zaintza lanetan zein atari, taberna eta abarrak garbitzen. 661 94 19 13.

**Debagoiena.** 18 urteko mutil espainiarak loratzaintza lanak egingo nituzke. Gidabaimena eta esperientzia. 722 32 43 67

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu: nagusiak zainden, taberna, jatetxe eta abarrak garbitzen, gidari edo igeltsari. 636 60 48 51

**Debagoiena.** Erizain laguntzailea prest lana egiteko. 943 79 96 25

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu. Nagusiak zainden edo nekazaritzan arituko nintzateke. Etxean bizi izaten edo orduka. Lege dokumentuak eta erreferentziak ditut. 630 45 51 03

**Debagoiena.** Neska arduratsua eta esperientziaduna umeak zainduko gertu, garbiketarik egiteko edo nagusiekin egon eta pasioan laguntzeko. 695 73 87 95

**Debagoiena.** Neska arduratsua lanerako gertu. Orduka, egunez zein etxean bertan bizi izaten. Manikura eta pedikura lanak ere egingo nituzke. 727 74 42 36

**Debagoiena.** Neska arduratsua lanerako gertu. Orduka, egunez zein etxean bertan bizi izaten. Manikura eta pedikura lanak ere egingo nituzke. 727 74 42 36

**Debagoiena.** Neska arduratsua lanerako gertu: nagusiak edo umeak zaindu eta sukaldia zein garbitasun lanetan. Deitu 688 68 12 79 telefonora.

**Debagoiena.** Prest nago etxeak garbitzeko edo umeak zainduko, eitu telefono honetara: 647 10 58 72

**Debagoiena.** Neska arduratsua lanerako gertu: nagusiak zaindu zein garbiketarik egiten. Orduka edo egun osoz. 629 80 77 73

**Debagoiena.** Neska garbitasun lanak egiteko gertu. Orduka edo arratsalde. 672 70 71 25

**Debagoiena.** Neska nagusi edo umeak zainduko gertu. Etxean bizi izaten edo bestela. Geriatria ikasketak, gidabaimena eta erreferentzia onak ditut. Danny. 680 87 38 66

**Debagoiena.** Neska arduratsua lanerako gertu. Oinarritzko sukaldaritza eta geriatriarikasunak. Etxe, atari, taberna eta bestelako garbiketarik egingo nituzke eta baita nagusiak zaindu ere. Etxean bertan bizi izaten edo egun osoz zein orduka. 615 06 28 04

**Debagoiena.** Nikaraguako mutila lanerako gertu. Zaintzak egingo nituzke bai etxean bizi izaten zein egunez edo orduka. Baita baserrietan ere. Esperientziaduna. 631 45 60 53

**Debagoiena.** Nikaraguako mutila lanerako gertu. Zaintzak egingo nituzke bai etxean bizi izaten zein egunez edo orduka. Baita baserrietan ere. Esperientziaduna. 633 28 81 24

**Lan ezberdinak egiteko prest.** Lorategi lanak eta erakuntza lanak egingo nituzke. Bi urtetako esperientzia igeltsero gisa. Mudantza lanak egiten ere lagunduz neza. 663 34 70 36

**Zerbitzari.** 17 urteko mutila zerbitzari moduan lan egiteko prest. Esperientziaduna. Deitu 625 83 84 13 edo 679 38 39 54 telefono zerbakietara.

**7. ANIMALIAK**

**703. EMAN**

**Txakurkumeak opari.** Brako eta ardi txakur nahasketak. Astebete daukate. Beltz kolorekoak. 637 90 57 15

**Txakurkumeak.** Aurki bi hila-bete egingo dituzten txakurkume mestizoak ematen ditut opari. Inigo. 688 92 00 86

**8. DENETARIK**

**802. EROSI**

**Akordeoi kromatikoa.** Akordeoi kromatikoa erosiko nuke. Interesatuok deitu 607 16 03 60 edo 607 15 26 62 telefono zerbakietara.

**Haurren aukirako zakua.** Bugaboo Donkey haurren aukirako bi zaku berdin erosiko nituzke. 635 70 05 14

**Klarineta.** Bigarren eskuko klarineta erosiko nuke. 688 84 10 82

**Samsung Galaxy SII-SIII.** Bigarren eskuko Samsung Galaxy SII-SIII edo antzerako mugikorra erosiko nuke. Deitu 647 31 64 41 telefonora.

**805. TRUKATU**

**Lursailak.** Hiru zaldirentzako Arrasate-Eskoriatza inguruan lursailen bila nabil. Trukean, lursailen mantenua eta garbiketarik egingo nuke. Sastrakak kentzeko makina daukat. Interesatuok deitu 697 41 66 24 zerbakira.

**806. GALDU**

**Belarritakoa Bergaran.** San Pedro kalea eta Correos bitartean erdian zirkonita brillantea duen zilarezko belarritakoa galdu dut. Norbaitek aurkitu baditu, mesedez telefono zerbaki honetara. Aldez aurretik, mila esker. 637 52 89 83



**ETXEBIZITZAK SALGAI**

- BERGARA:**
- Zubiete 70 m<sup>2</sup>, 3 logela. Oso ondo. 132.223 €.
  - Alenarrika 73 m<sup>2</sup>, 3 logela. Oso ondo. 136.000 €.
  - Arrenarrika 84 m<sup>2</sup>, 3 logela, inpreselakoa. Garajea onakoa. 138.000 €.
  - Barrenarrika 90 m<sup>2</sup>, 3 logela. Erabat berritua.
  - San Pedro 78 m<sup>2</sup>, 4 logela. Erabat berritua. Garajea onakoa. 150.000 €.
  - Bala 66 m<sup>2</sup>, 2 logela. Inpreselakoa. Garajea onakoa. Oso ondo. 159.250 €.
  - Bidekuntzetan 45 m<sup>2</sup>, 2 logela. Inpreselakoa. 130.000 € PREZIO IRISERKIBERRIA
  - Zubietan 56 m<sup>2</sup>, 2 logela. Inpreselakoa. Oso ondo. 135.000 €.
  - Marzategi 65 m<sup>2</sup>, 3 logela. Berogailua, igogailua eta inpreselakoa. 158.000 €.
  - Goido Bidekuntza 74 m<sup>2</sup>, 3 logela. Inpreselakoa. 148.000 €. Aukera oso.
  - Zabalategi 80 m<sup>2</sup>, 3 logela. Inpreselakoa. 154.760 €.
  - Aduarrena 75 m<sup>2</sup>, 3 logela. Berritua. Oso ondo. 144.243 €.
  - Zubiete 60 m<sup>2</sup>, 3 logela. 138.313 €.
  - Zubiete 70 m<sup>2</sup>, 2 logela. 158.353 €.
  - Ibarra 65 m<sup>2</sup>, 3 logela. Berritua. 150.000 €.
  - Arzenarrika 70 m<sup>2</sup>, 2 logela. Inpreselakoa eta berogailuarekin. 154.760 €.
  - Zubietan 82 m<sup>2</sup>, 3 logela. Inpreselakoa eta berogailuarekin. 159.000 €.
  - Zabalategi 2 eta 3 logelakoak bitartean 850 PREZIO BERRIA.
  - Bidekuntzetan 147 m<sup>2</sup>, 4 logela. Inpreselakoa. 135.000 €. Prezio jaitzuerarekin.
  - Marzategi Agura 60 m<sup>2</sup>, logela bit. Terreta eta inpreselakoa. Garajea onakoa.
  - Marzategi 68 m<sup>2</sup>, 2 logela. Inpreselakoa. Erabat berritua.
  - Inpreselakoa 180 m<sup>2</sup>, 4 logela. 7 balizkoekin. Inpreselakoa. Prezio jaitzuerarekin.
  - Inpreselakoa 78 m<sup>2</sup>, 3 logela. Bolak, inpreselakoa eta garajearekin. 285.000 €.
  - Bidekuntzetan 90 m<sup>2</sup>, 3 logela. Inpreselakoa eta garajearekin. Oso ondo.
  - Arzenarrika 160 m<sup>2</sup>, 4 logela. Inpreselakoa. garajea. Oso ondo.
  - Marzategi 148 m<sup>2</sup>, 4 logela. Berritua. Oso ondo. 225.000 €.
  - Aduarrena 50 m<sup>2</sup>, 2 logela. 10m<sup>2</sup> terraza. Oso ondo. 210.350 €. PREZIO JAITZUEA.
  - Goido Bidekuntza 78 m<sup>2</sup>, 3 logela. Berritua. MAJORA EGARNA. 208.000 €.

- ANTZULEA:**
- Bidekuntza 60 m<sup>2</sup>, 2 logela. Oso ondo. Prezio jaitzuerarekin.
  - Errekalde 94 m<sup>2</sup>, 3 logela. Inpreselakoa eta berogailuarekin. 130.202 €.
  - Zabalategi 83 m<sup>2</sup>, 3 logela. Oso ondo. Prezio oso.
  - Sagasti 90 m<sup>2</sup>, 3 logela. Oso ondo. Prezio jaitzuerarekin.
  - **ETXEBIZITZEN ETA GARAIEEN ERAKUNTZA BERRIA.** Leke mesaez eta prezio interesgarriak.

- SORALUZETAN:**
- Sagar Etxea, Rabal, Aduarri eta Rabal. Erre onak.

- ELGETA:**
- Berrizte 48 m<sup>2</sup>, 4 logela. 126.512 €. Prezio jaitzuerarekin.
  - Inpreselakoa 77 m<sup>2</sup>, 3 logela. Berri. Oso ondo.
  - Berrizte 48 m<sup>2</sup>, 4 logela. 130 m<sup>2</sup> garajea + 90 m<sup>2</sup> terraza.

- OSINTZAN:**
- Bidekuntza 85 m<sup>2</sup>, 3 logela. Inpreselakoa. Berritua. 150.000 €. AURERA BERRIA.

**Betaurrekoak Bergaran.** Orain dela aste batzuk Bergarako erdialdean, eguzkitako betaurreko batzuk galdu nituen. Graduata daude. Fundaren barruan zeuden. Beltzak eta txuriak dira. Norbaitek aurkitu baditu, mesedez telefono zerbaki honetara. Aldez aurretik, mila esker. 617 51 27 71

**Erlouja Arrasaten.** Jose Luis Inarra kaletik Zerrajerako Eroskera bidean, Maala errailetetik pasatuta, erlojuak galdu da. Zilar kolorekoa, kate-mailaduna, laukiluz formaduna. Aurkitu

baduzu deitu zerbaki honetara mesedez: 943 79 38 29.

**HTC telefono mugikorra.** Larunbat iluntzean edo gauetan, apirilak 27, HTC markako telefono mugikorra galdu nuen Bergaran edo Antzuolan. Zuria da. Norbaitek aurkitu baditu, mesedez telefono zerbaki honetara. Aldez aurretik, mila esker. 695 95 07 24.

**Marmot jaka beltza.** Zira beltza galdu dut txanoarekin. Aurkitu baduzu deitu eta bila fango naiz. 678 53 12 25.

**ASTEAGA GOIENAN**

**GOIENA TELEBISTA**

EGUBAKOITZA, 10	ZAPATUA, 11	DOMEKA, 12	ASTELEHENA, 13	MARTITZENA, 14	EGUAZTENA, 15	EGUENA, 16
12:00 Planik bai?	10:00 Berriak	10:00 Magazinea	12:00 Magazinea	12:00 Magazinea	12:00 Magazinea	12:00 Magazinea
12:20 Magazinea	10:25 Magazinea	11:00 Zorion Agurrak	13:00 Gurean gaur	12:45 Gurean gaur	12:45 Gurean gaur	12:45 Gurean gaur
13:05 Zorion Agurrak	11:25 Etsatea libre	11:05 Oñati	13:30 Zorion Agurrak	13:15 Zorion Agurrak	13:18 Harmailatik	13:15 Altxorren bila
13:10 Gurean gaur	12:35 Magazinea	11:32 AZK2012	13:36 Oñati	13:22 Harmailatik	14:03 Pedalka	13:47 Jaiak: lazkaoko festak
13:40 Oñati	13:35 Oñati	12:32 Erreportajea	14:06 AsteON	14:07 Ekogune	14:38 Zorion Agurrak	14:17 Oñati
14:10 Pedalka	14:02 Berriak	13:02 Oñati	14:45 Berriak	14:40 Zorion Agurrak	14:45 Berriak	14:47 Zorion Agurrak
14:40 Zorion Agurrak	14:17 Atik Zra	13:35 Magazinea	15:15 Eguraldia	14:45 Berriak	15:10 Eguraldia	14:52 Berriak
14:45 Berriak	15:17 Magazinea	14:35 AsteON	15:18 Zorion Agurrak	15:10 Eguraldia	15:13 Klaketa	15:17 Eguraldia
15:05 Eguraldia	16:17 Zorion Agurrak	15:10 Zorion Agurrak	15:23 AZK2012	15:13 Harmailatik	15:59 Oñati	15:20 Jaiak: lazkaoko festak
15:08 Planik bai?	16:22 Oñati	15:15 Altxorren bila	16:23 Pedalka	15:53 Oñati	16:21 Harmailatik	15:50 AZK2012
15:28 AZK2012	16:55 Planik bai?	15:47 Pedalka	16:53 Zorion Agurrak	16:28 AsteON	17:06 AZK2012	16:20 Berriak
15:58 Ikusmira	17:15 Hitzlandia	16:37 Beranduegi.tv	16:58 Zorion Agurrak	17:03 Berriak	17:36 Zorion Agurrak	16:45 Eguraldia
16:14 Beranduegi.tv	17:42 AsteON	17:01 Klaketa	17:28 Eguraldia	17:28 Eguraldia	17:41 Berriak	16:48 Oñati
16:44 Zorion Agurrak	18:12 Pedalka	17:38 Atik Zra	17:31 Oñati	17:31 AZK2012	18:06 Eguraldia	17:08 Planik bai?
16:50 Planik bai?	18:42 Zorion Agurrak	17:38 Atik Zra	18:07 Erreportajea	17:56 Altxorren bila	18:08 Jaiak: lazkaoko festak	17:28 Hitzlandia
17:10 Berriak	18:47 Beranduegi.tv	18:43 Magazinea	18:37 Ekogune	18:28 Erreportajea	18:38 Erreportajea	17:55 AZK2012
17:30 Eguraldia	19:11 Magazinea	19:43 Berriak	19:07 Altxorren bila	19:08 Beranduegi.tv	19:08 Beranduegi.tv	18:25 Oñati
17:33 Planik bai?	20:11 Planik bai?	19:58 Zorion Agurrak	19:39 Zorion Agurrak	19:38 Zorion Agurrak	19:38 Zorion Agurrak	19:01 Zorion Agurrak
17:53 Altxorren bila	20:31 Berriak	20:03 AsteON	19:44 Berriak	19:48 Berriak	20:09 Eguraldia	19:06 Beranduegi.tv
18:25 Zorion Agurrak	20:46 Altxorren bila	20:33 Ekogune	20:14 Eguraldia	20:13 Eguraldia	20:15 Magazinea	19:31 Planik bai?
18:31 28. Klip	21:18 AsteON	21:03 AZK2012	20:18 Magazinea	21:00 Gurean gaur	21:00 Magazinea	19:51 Berriak
19:03 Beranduegi.tv	22:53 Pedalka	22:03 Klaketa	21:03 Gurean gaur	21:30 AZK2012	21:00 Gurean gaur	20:16 Eguraldia
19:28 Ikusmira	23:23 Magazinea	22:40 Beranduegi.tv	21:33 Berriak	22:00 Berriak	21:31 AsteON	20:18 Magazinea
19:43 Zorion Agurrak	00:05 Beranduegi.tv	23:05 Magazinea	21:58 Eguraldia	22:25 Eguraldia	22:01 Ekogune	21:50 Pedalka
19:46 Berriak		00:10 Eguraldia	22:00 Harmailatik	23:15 Klaketa	22:31 Berriak	22:20 Planik bai?
19:46 Berriak			22:45 Magazinea	00:28 Berriak	22:56 Eguraldia	22:40 Berriak
20:10 Eguraldia			23:45 Berriak	00:53 Eguraldia	22:58 Magazinea	23:05 Eguraldia
20:13 Planik bai?			00:01 Berriak	00:56 Magazinea	23:43 Harmailatik	23:08 Magazinea
20:33 Gurean gaur			00:26 Eguraldia		00:30 Berriak	23:53 Klaketa
21:00 Pedalka						



### Igor eta Onintza

Igor Labaien eta Onintza Arregi maiatzaren 16an ezkonduko dira. "Zorionak, bikote! Antzuolako koadrilaren partetik, ondo-ondo pasatu eguna eta gozatu Lanzaroten! Buetan mundiala antolatuko dugu Gaztelugainen!".



### Jon eta Miren

Jon Aizpiri eta Miren Osa maiatzaren 11n ezkonduko dira. "Bien laguneren partetik besarkadarik beroena bidali nahi dizuegu eta ea egun hori berezi egiten laguntzen dugun. Ondo-ondo pasatu eta orain arte bezalaxe jarraitu!".



### Juan Carlos eta Sandra

Juan Carlos Sanchez eta Sandra Chinarro arrasatearrak zapatuan ezkonduko dira. "Zorionak, bikote! Oso zoriontsuak izan eta primeran pasatu egun berezi honetan! Musu erraldoi bat, familiaren partetik!".

## ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.

Eskelaren prezioa: 130 euro.

Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 175 euro.

**Goiena: irakurriena Debagoienean.**

### ASTE BARRUAN, BAITA ERE:

**ARRASATE** Goiena: Otalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

**BERGARA** Jardun elkarte: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.

**OÑATI** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

**ARETXABALETA** Goiena: Basabe poligonoa E05. 943 25 05 05.

**ARAMAIO** Kintelena janari-denda: Nardeaga 11. 945 44 50 22.

**ELGETA** Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.

**ANTZUOLA** Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

## HILDAKOAK

**Enrique Diaz Cortes.** Bergaran, apirilaren 24an. 80 urte.

**Nicasia Lozano Lopez.** Aretxabaletan, apirilaren 30ean. 89 urte.

**Julio Larrion Oses.** Bergaran, maiatzaren 1ean. 82 urte.

**Ines Ormaetxea Garaio.** Arrasaten, maiatzaren 2an. 82 urte.

**Jabier Zabaleta Cortabarría.** Oñatin, maiatzaren 3an. 84 urte.

**M. Carmen Txintxurreta Madinagoitia.** Oñatin, maiatzaren 3an. 81 urte.

**Gregoria Ibarrodo Otadui.** Arrasaten, maiatzaren 4an. 83 urte.

**Gregorio Jimenez Igea.** Bergaran, maiatzaren 4an. 80 urte.

**Pepe Solaun Zubialdea.** Bergaran, maiatzaren 5ean. 79 urte.

**Bizente Lazkano Balzategi.** Bergaran, maiatzaren 5ean. 84 urte.

**Joseba Larrinaga Perea.** Aretxabaletan, maiatzaren 7an. 44 urte.

**Maritxu Balanzategi Etxebarria.** Arrasaten, maiatzaren 7an. 88 urte.

**Pedro Barquero Galan.** Arrasaten, maiatzaren 7an. 80 urte.

## ESKER ONA

### Joseba Larrinaga Perea



Maiatzaren 7an hil zen.

Egun latz hauetan modu batean edo bestean gurekin egon zareten guztioi, eskerrik beroenak eman nahi dizkizuegu, bihotz-bihotzetik, sendi osoaren partetik.

Aretxabaletan, 2013ko maiatzaren 10ean.

## MEZA



### Maitere Markuleta Lete



2013ko apirilaren 25ean hil zen, 65 urte zituela.

Haren aldeko ondra meza zapatuan izango da, maiatzaren 11n, 19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan.

*Zure hutsuneak sortzen digu zirrara, baina zurekin pasatako momentuakin eta zure maitasunarekin gogoratzean, ez zaigu faltako irrifarra.*

Beraratuko zaretenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean. Oñatin, 2013ko maiatzaren 10ean.

## MEZA

### Enrique Diaz Cortes



Marchenan (Sevilla) hil zen 2013ko apirilaren 24an, 80 urte zituela.

Haren aldeko meza zapatuan izango da, maiatzaren 11n, 19:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2013ko maiatzaren 10ean.

## URTEURRENA

### Bitxori Arregi Lamariano

Miguel Arkauz Telleriaren alarguna



2012ko maiatzaren 14an hil zen, 90 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, maiatzaren 12an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2013ko maiatzaren 10ean.

## URTEURRENA

### Eulalia Elkoro Ugarte

Markos Larrearen alarguna



2012ko maiatzaren 18an hil zen.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, maiatzaren 12an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2013ko maiatzaren 10ean.

## URTEURRENA



### Giomar Fernandez Aguirre



*Alaitasunez poztu izan duzu beti zuk gure tristura hurbilekua beti, etxeko, ederra zure lotura.*

Zure familia. Bergaran, 2013ko maiatzaren 10ean.

## URTEURRENA

### Paco Unanue Aretxaga



2012ko maiatzaren 10ean hil zen.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, maiatzaren 12an, 11:30ean, Aretxabaletako Jasokundeko amaren parrokiari.

*Maita zaitugu, aitatxo beti izango zara gurekin. Amatxo, seme-alabak eta bilobak.*

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean. Aretxabaletan, 2013ko maiatzaren 10ean.

ESKER ONA

**Jabier Zabaleta Cortabarría**



Oñatin hil zen 2013ko maiatzaren 3an.

---

Hileta elizkizunera etorritakoei eta samin agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean.

---

Oñatin, 2013ko maiatzaren 10ean.

OROIGARRIA

**Jabier Zabaleta Cortabarría**



Oñatin hil zen 2013ko maiatzaren 3an.

---

*Agur, osaba Jabier zure iribarrea ez dugu ahaztuko eta beti izango zara gure bihotzean.*

---

Inzatar ilobak.  
Oñatin, 2013ko maiatzaren 10ean.

OROIGARRIA

**Maritxu Balanzategi Etxebarria**



Ignacio Olazabal Larreategiren alarguna

Arrasaten hil zen 2013ko maiatzaren 7an, 88 urte zituela.

---

*Ez agurrik, ez adiorik gero arte bakarrik.*

---

Olazabal sendia.  
Arrasaten, 2013ko maiatzaren 10ean.

OROIGARRIA

**Joseba Larrinaga Perea**




Muxu handi bana tio Joseba, gaur bidali nahi dizugu, maite zaitugu, maite gaituzu, hori guztiok dakigu, zure aurpegia ezin ikusi,

*zure ahotsa ezin entzun, baina gogoan ta bihotzean, betiko izango zaitugu, nahiz ta Atlantan bigarren izan, guretzat beti txapeldun.*

---

Amaieur, Jokin, Zaraitzu, Ainhitz eta Jurgi.  
Aretxabaletan, 2013ko maiatzaren 10ean.

OROIGARRIA

**Joseba Larrinaga Perea**




Aretxabaletako kiroldegiko langile ohia eta Zuriñe Larrinaga lankidearen neba.

---

Bat egiten dugu familiaren saminarekin.




---

Ibarra Kiroldegiko langileak.  
Aretxabaletan, 2013ko maiatzaren 10ean.

OROIGARRIA

**Joseba Larrinaga Perea**

'Mardo'




---

*Ez agurrik, ez adiorik, gero arte bakarrik. Bat egiten dugu familiaren saminarekin.*




---

Dorletako Ama Txirindulari Eskola.  
Aretxabaletan, 2013ko maiatzaren 10ean.

OROIGARRIA

**Joseba Larrinaga Perea**

'Mardo'




---

*Pasadizu hau gaindituzeko bada zerbaiten beharra alaitasuna landatu zendun danondako barra-barra*

*ortu hartatik jasoko dogu oraingo hontan indarra agur eta ohore barrokalarri heldu da ilunabarra.*

---

Mardotarrok ez zaitugu inoiz ahaztuko.  
Aretxabaletan, 2013ko maiatzaren 10ean.

OROIGARRIA

**Joseba Larrinaga Perea**

'Mardo'




---

*Eskerrik asko, danagatik, Joseba, beti gogoan izango zaitugu.*

---

Zuhaitz, Gari eta Kepa.  
Aretxabaletan, 2013ko maiatzaren 10ean.

OROIGARRIA

**Joseba Larrinaga Perea**

'Mardo'




---

*Hau da bizitzaren patua nola ulertu gertatua guztion bihotza zatitua baina esperantzaz ikutua zure koadrilan beti izango zara maitatua*

---

Koadrilakua.  
Aretxabaletan, 2013ko maiatzaren 10ean.

OROIGARRIA

**Joseba Larrinaga Perea**

'Mardo'




---

*Urbaltzeko uretan murgilduta Kantauriko itsasoan askatasunean elkartuko gara.*





---

Urbaltz elkarte.  
Aretxabaletan, 2013ko maiatzaren 10ean.

OROIGARRIA

**Joseba Larrinaga Perea**


'Mardo'




---

*Nekez uzten du gezalak itsasoa ez hare harriak basamortua. Ez du liliak udaberria uzten ez elurak zuritasuna.*

Mikel Laboa




---

Aretxabaletako Udaleko zure lankideak eta Udalbatza.  
Aretxabaletan, 2013ko maiatzaren 10ean.

OROIGARRIA

**Joseba Larrinaga Perea**

'Mardo'





---

*Joan zara gu hemen utzita baina, jakin ezazu inoiz ez zaitugula ahaztuko. Ahuntzek homatik gara eta ganau jatekue ein barik. Zoooooouuoi.*

---

Peña Ahuntzek.  
Aretxabaletan, 2013ko maiatzaren 10ean.

OROIGARRIA

**Joseba Larrinaga Perea**

'Mardo'




---

*Maite zenuen horretan takarraran, bizikletan, poteuen, herrigintzan hutsune galanta gure gogoan.*




---

Urbaltz eta Txikibar tabernak.  
Aretxabaletan, 2013ko maiatzaren 10ean.

OROIGARRIA

**Joseba Larrinaga Perea**

'Mardo'




---

*Hik emundako poztasunaz jarraituko juau maitte hian bidie.*




---

Aretxabaletako Herrira.  
Aretxabaletan, 2013ko maiatzaren 10ean.

OROIGARRIA

**Joseba Larrinaga Perea**

'Mardo'




---

*Zu sortu zinen enbar beretik sortuko dira besteak. Aurrera bolie.*




---

Aretxabaletako Sortu.  
Aretxabaletan, 2013ko maiatzaren 10ean.

**BERGARA** Iñigo Cabezafuego eta Joseba B. Lenoir

*Egubakoitzak kartzelan* egitasmoko bigarren emanaldia egingo dute gaur, egubakoitza. Iñigo Cabezafuego eta Joseba B. Lenoir igoko dira kartzela zaharreko agertokira. Cabezafuego oso ezaguna da Bergarako gaztetxean; oraingoan, bakarlarari moduan etorriko da. Sarrera 3 euro.

Gaur, egubakoitza, gaztetxean 22:00etan.



JOSETXO ARANTZABAL



M4TIK.FR

**OÑATI** Pete Ross & The Sapphire

Pete Ross abeslari eta gitarra-jotzaile australiarra eta Susy Sapphire abeslari eta baxu-jotzaile neozelandarrak osatzen dute taldea. *Rollin'On Down The Line* hirugarren lana aurkeztuko dute Oñatin.

Etzi, domeka, Pako tabernan 19:30ean.

## MUSIKA

**ARRASATE** Herri maputxearen aldeko kontzertua

Askapenak eta Arrasateko gaztetxeak herri maputxearen aldeko kontzertua antolatu dute. Herri maputxearen aldeko kontzertuan Guaka talde maputxeak eta The Torcido Monkey Dream talde mexikarrak hartuko dute parte. Sarrera doan izango da.

Gaur, egubakoitza, gaztetxean 22:00etan.

**OÑATI** Igor Artzuaga, 'Mara'

Antixenako gaztetxeko maiatzeko kontzertu lasaia Igor Artzuaga *Mara* bakarlariak eskainiko du. Exkixu talde arrakastatsuan eta Mikel Urdangarinen lehen diskoetan parte hartutako musikaria da *Mara*. Bi disko kaleratu ditu bere izenean: *Argi izpi bat* eta *Smog*; eta beste bi *Lagun eroa* eta *Unibertsoa gu* Mara izenpean.

Gaur, egubakoitza, Antixena gaztetxean 22:00etan.

**ELGETA** BC Bombs eta Argies

BC Bombs taldeak Forever Bombs diskoa aurkeztuko du. Argies taldea Argentinatik dator. Sarrera: 5 euro. Lehenengo garagardo kupela doan.

Gaur, egubakoitza, Elgetako gaztetxean 22:00etan.

**OÑATI** Oñatiko eta Gasteizko musika eskoletako haize taldeak

Jose de Azpiazu Musika Eskola-ko haize taldeak eta Gasteizko Udaberria Musika Eskola-ko ikasleek Otamendi taberna inguruan kontzertua egingo dute.

Bihar, zapatua, Otamendi tabernan 18:00etan.

**BERGARA** 'Ahotsen soina'

BMEk eta Gabero abesbatzak emanaldia eskainiko dute.

Bihar, zapatua, Santa Marina Parrokian 18:30ean.

**BERGARA** DJ Humberto

DJ jaialdia gaztetxoendako, doan.

Bihar, zapatua, Zabalotegi aretoan 18:30ean.

**ARRASATE** Willie Nile eta Jim TNT

Willie Nile bakarlariak *American Rider* diskoa aurkeztuko du Amaia antzokian. Estatubatuarren aurretik Jim TNT arrasatearrak joko du. Sarrera 7 euro.

Bihar, zapatua, Amaia antzokian 20:00etan.

## NON-ZER

Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.  
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

MAIATZAK 10  
MAIATZAK 16**BERGARA** 'Kaleko mobida' punk-oi! emanaldia

Info7 irrati-ko *Kaleko mobida* punk-oi! irratsaioak hirugarren festa antolatu du. Emanaldiko kartel burua Janitors talde frantziarra izango da. Haiekin batera, Kaleko Urdagak, Hawkins Thugs eta Broken Faces ariko dira zuzenean.

Bihar, zapatua, Bergarako gaztetxean 22:00etan.

**ARETXABALETA** Ruper Ordorika

Ruper Ordorikaren kontzertua Aretxabaletan. Sarrera 8 euro.

Bihar, zapatua, Zاراia aretoan 22:00etan.

**ELGETA** Guaka eguneko kontzertuak

ZZ Blues Band (Soraluze), The Torcidos Monkey Dream (Mexico) eta Guaka (Txile). Sarrera: 3 euro.

Bihar, zapatua, Elgetako gaztetxean 23:00etan.

**ARRASATE** Emon taldeak kontzertu akustikoa eskainiko du

Bergarako Emon taldeak kontzertu akustikoa eskainiko du domekan Musakolako gazte txokoan.

Etzi, domeka, Musakolako gazte txokoan 19:30ean.

**BERGARA** 'Musikaren zirku mundiala'

Bergarako ikastetxeetako ikasleek *Musikaren zirku mundiala!* ipuin pedagogikoaz gozatzeko aukera izango dute.

Maiatzaren 14a, martitzena, Zabalotegin 09:00etan.

## ANTZERKIA

**ESKORIATZA** Antzerki maratoia

Eskoriatzako Kanape Teatro taldeak antolatutako antzerki maratoia. 11:30ean Ibarraundin elkartuko dira partaideak, elkar ezagutu eta nor bere agertokia atontzeko. Elkarrekin bazkalduko dute gero, eta ondoren, entsegu orokorra egin ostean, 18:00etan zabalduko dituzte publikoarentzako ateak.

Bihar, zapatua, Ibarraundi museoa 18:00etan.

## IKUSKIZUNAK

**BERGARA** Mixel Santamarina

Mixel Santamarina aktoreak *Adicto a la TV* ikuskizuna eskai-

niko du. Orubete iraungo du emanaldiak, eta doan izango da.

Gaur, egubakoitza, Bule tabernan 23:30ean.

**ARETXABALETA** 'Confidencias de un futbolista' bakarriketa saioa

Zuhaitz Gurrutxaga futbolariak eskainiko du bakarriketa saioa.

Sarrera 5 euro.

Gaur, egubakoitza, Zاراia aretoan 22:00etan.

## DANTZA

**ANTZUOLA** Herrixa Dantzan

Anelkar elkarteak antolatutako Elkartasun Festaren barruan, gidatutako dantzaldia afalostean. Bateko eta besteko dantza tradizional errazak. Helburua, ondo pasatzea. Dantza gidaria: Patxi Montero

Bihar, zapatua, Eskolako patioan 22:30ean.

## JAIK

**OÑATI** Murgiako Asentzio jaiak

Gaur, auzo afaria izango dute. Bihar goizean, zapatua, BTT irtee-

ra eta auzoko produktuen dastatzea; arratsaldean, auzo kirolak, eta iluntzean afaria eta erromeria. Domekan, 12:00etan meza eta luntza izango dute Asentzio ermitan.

Aste bukaeran, Murgia auzoan.

**OÑATI** Kasablankako jaiak

Gaur, egubakoitza, txorimaloak eta musika kontzertuak: Mende-ku Itxua, Tributo a Latzen (Arma Beltza), Los Galerna eta Screemers and sinners. Zapatuan, jolasak, auzo bazkaria, zaldiak eta txalak, Josu Zubiaren magia emanaldia eta erromeria. Domekan meza, bertso jaialdia eta luntza izango dute.

Aste bukaeran, Kasablanka auzoan.

**ARRASATE** Musakolako jaiak

San Isidro jaiak ospatuko dituzte Musakola auzoan.

Aste bukaeran, Musakolan.

**ARETXABALETA** Otala Zelai

Euria eginez gero, erromeria Iturrigorri frontoian izango da. Haurrentzako lasterketak (10:00), 35. kros herrikoia (11:00) eta sari banaketa (12:15); animaliekin jolasak (12:45); paella txapelketa (13:00); sagardo festa (13:30); herri bazkaria (14:30); euskal disko festa (16:00); dantza saioa (19:00); euskal disko festa (19:00)

Etzi, domeka, Otala Zelain 10:00etan.

**ELGETA** Meza Asentzio ermitan

Asentzio eguneko ospakizuna 12:00etan egingo dute.

Etzi, domeka, Asentzio ermitan 12:00etan.

## OSPAKIZUNAK

**ELGETA** Herri maputxearekiko elkartasun eguna

Herri maputxearekiko elkartasun eguna antolatu du Elgetako gaztetxeak. 17:30ean bideo emanaldia eta mahai-ingurua; 19:30ean, poteoa egingo dute eta 21:00etan herri afaria.

Bihar, zapatua, Elgetako gaztetxean 17:30ean.

**ARETXABALETA** 'Durana fashion day'

Aretxartek antolatuta herriko dendetako arropen moda desfilea. Horrez gain, UDAkoek pintxoak jarriko dituzte salgai Mitarte kalean.

Bihar, zapatua, Durana kalean 18:00etan.



OIHULARI CLOWN

**ANTZUOLA** 'La habitación secreta'

Claudia Cantone pailazo italiarrak *La habitación secreta* ikuskizuna eskainiko du Torresoroan. Orubete eta 20 minutu iraungo du emanaldiak eta Ana Frankek bizi izan zuen isolamenduan oinarrituta dago. Zuzendari lanak Virginia Imaz clown ezagunak egingo ditu.

Etzi, domeka, Torresoroan, 19:00etan.



### ARRASATE Arrasate Literatur Lehiaketako sari banaketa

AED elkarteak antolatutako 26. Arrasate Literatur Lehiaketa azken txanpan sartu da. Datorren egunean sariak banatuko dituzte (argazkian, iazkoak). Aurtengo ediziora 198 lan aurkeztu dituzte, arrasatearrek eta beste herri batzuetakoek. Maiatzaren 16a, eguna, Kulturateko areto nausian, 18:30ean.

## UMEAK

### ARETXABALETA 'Motxila bete ipuin' kontaketa

Iraitz Lizarragak ipuin kontaketa egingo du.

Bihar, zapatua, Arkupeko liburutegian 11:00etan.

### OÑATI Ipuin kontaketa eta apar festa

Txandak antolatuta *Nax eta bere laguntzaileak* liburuaren gaineko ipuin kontaketa saioa egingo dute herriguneko hainbat tokitan 12:00etatik 14:00etara. Eguraldi ona egingo balu, apar festa ordu berean Foruen plazan.

Bihar, zapatua, Foruen plazan 12:00etan.

### BERGARA Jolas-leku ibiltaria

17:00etatik 19:00etara bitartean D. Irala kalean.

Gaur, egubakoitza, Irala kalean 17:00etan.

### ARRASATE Moda desfilea Eroskin

Umeei zuzendutako desfilea: Cherokee eta Visto Bueno markak erakutsiko dituzte.

Bihar, zapatua, Eroskin 12:30ean.

## ERAKUSKETAK

### ANTZUOLA Susana Morcilloren erakusketa

Susana Morcilloren argazki bilduma, Olanan.

Bihar, zapatua, Olan Etxean 18:30ean.

### BERGARA Karlos Galarragaren erakusketa

Karlos Galarragak pintura erakusketa jarriko du ikusgai Nahikari tabernan.

Gaur, egubakoitza, Nahikari tabernan 20:00etan.

## IRTEERA

### OÑATI Degurixara irteera

Arantzazuko Parketxeak eta Arantzazuko Adiskideek antolatuta Degurixara irteera. 12,5 kilometro ibilbide gidatua izango da. Helburuetako bat da mendiko artzainen bizimodua ezagutzea.

Etzi, domeka, Araotz auzoan 09:00etan.

### ELGETA Mendi irteera Lizarrietara

Ibilbidea: Lizarrieta, Atxuria (756m), Lizarrieta. Sarako eta Etxalarko usategietatik. Sei ordu.

Prezioa: 10 euro. Izenematea udaltxean edo [kantsatzeke@gmail.com](mailto:kantsatzeke@gmail.com) helbide elektronikoan.

Etzi, domeka, 08:00etan.

## HITZALDIAK

### ARETXABALETA Hiri hondakinen eta osasunaren gaineko hitzaldia

*Hiri hondakinen kudeaketa egokiak baliabideak sortzen ditu eta osasuna babestu* hitzaldia. Kepa Olaiz (Ekologistak martxan taldea eta Gipuzkoako Errausketaren aurkako kidea) eta Julia Sanjose (sendagilea) izango dira hizlariak.

Maiatzaren 13a, astelehena, Zeraia aretoan 19:00etan.

### ARETXABALETA Hondakinen Mahaiaren bilera: herritarrek

Hondakinen gaineko bilera informatiboak. Seigarren taldeari zuzenduta, hau da, herritarrei.

Bihar, zapatua, Arkupeko liburutegian 11:00etan.

## BESTELAKOAK

### ESKORIATZA Bisita gidatua:

#### Elorretako errota

Bisitatu parte hartzeko alde aurretik izena eman beharra dago.

Bihar, zapatua, Bolibarreko errepede ondoan 12:00etan.

### BERGARA Patinatze eguna

Hanka-Labankak antolatuta patinatze jarduerak.

Etzi, domeka, Labegaraieta kiroldegian 09:15ean.

## DEIA

### OÑATI Hondakinen gaia

Hondakinen gaikako bilketa sistemaren argibideak. Gaztelera izango da.

Gaur, egubakoitza, Santa Anan 10:00etan.

## AZOKA

### ARETXABALETA Ekobira azoka

Goizeko 10:30etik 14:30era, eta arratsaldeko 16:30etatik 19:30etara izango da Herriko plazan. Ekoizle ekologikoak eta beste gongo dira erakusgai.

Bihar, zapatua, Herriko plazan 10:30ean.

## ZINEMA

### ARRASATE

#### AMAIA ANTZOKIAN

**Los últimos días**  
Domekan: 19:30.

**Yoko**  
Domekan: 17:00.

**En la niebla**  
Martitzenean: 20:30.

### BERGARA

#### ZABALOTEGI

**Frankenweenie**  
Domekan: 17:00.

**La vida de Pi**  
Domekan: 19:30.

**Tan fuerte tan cerca**  
Domekan: 20:00.

**Katmandu un espejo en el cielo**  
Eguaztenean: 20:00.

### OÑATI

#### KULTURA ETXEA

**Oblivion**  
Egubakoitzean eta zapatuan: 22:30.  
Domekan: 19:30, 22:30.  
Astelehenean: 19:30.

### EIBAR

#### COLISEO

**Los amantes pasajeros**  
Egubakoitzean: 22:30.  
Zapatuan: 19:45, 22:30.  
Domekan: 17:00, 20:00.  
Astelehenean: 20:30.

**Tierra prometida**  
Egubakoitzean: 22:30.  
Zapatuan: 19:45, 22:30.  
Domekan: 17:00, 20:00.  
Astelehenean: 20:30.

#### COLISEO ANTZOKIA

**Objetivo: La casa blanca**  
Zapatuan: 19:45, 22:30.  
Domekan: 20:00  
Astelehenean: 20:30.

**Buscando a Nemo 3D**  
Domekan: 17:00.

### GASTEIZ

#### FLORIDA

**Objetivo: La casa blanca**  
Egubakoitzean eta zapatuan: 17:15, 19:45, 22:30.

Domekatik eguenera: 17:15, 19:45.

**Noche de vino y copas**  
Egubakoitzean eta zapatuan: 17:30, 22:30.  
Domekatik eguenera: 17:30.

**Ayer no termina nunca**  
Egubakoitzean eta zapatuan: 20:15.

**Iron Man 3**  
Egubakoitzean eta zapatuan: 17:15.

**Barbara**  
Egubakoitzean eta zapatuan: 20:00, 22:30.  
Domekatik eguenera: 20:00.

**La gran boda**  
Egubakoitzean eta zapatuan: 17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

Domekan: 17:00, 18:45, 20:30.  
Astelehenean eta eguenera: 17:30, 20:00.

**El ejercicio del poder**  
Egubakoitzean eta zapatuan: 18:00, 20:15, 22:30.  
Domekatik eguenera: 18:00, 20:15.

**Diaz, no limpies la sangre**  
Egubakoitzean eta zapatuan: 17:30, 20:00, 22:30.  
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00.

**Los croods**  
Egubakoitzean: 18:00.  
Zapatuan eta domekan: 12:00, 16:50, 18:40.

### La caza

Egubakoitzean eta zapatuan: 20:30, 22:30.  
Domekan: 20:30.  
Astelehenean eta eguenera: 18:00, 20:15.

#### BOULEVARD

**Objetivo: La casa blanca**

Egubakoitzean eta zapatuan: 18:00, 20:15, 22:30.  
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:45.  
Zapatu eta domekan, baita: 15:45.  
Astelehenean eta eguenera: 19:10, 21:35.

**La mula**  
Egubakoitzean eta zapatuan: 17:50, 19:50, 21:50.

Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 23:50.  
Zapatu eta domekan, baita: 15:50.  
Astelehenean eta eguenera: 19:30, 21:30.

**El origen de los guardianes**  
Zapatuan eta domekan: 17:30.

**Balleta: Romeo y Julieta**  
Domekan: 17:00.

**Iron Man 3**  
Egubakoitzean eta zapatuan: 17:30, 18:15, 20:00, 20:45, 22:30.

Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 23:15.  
Zapatuan eta domekan, baita: 15:45.  
Astelehenean eta eguenera: 18:30, 21:00, 19:00, 21:30.

**Iron Man 3 3D**  
Egubakoitzean eta zapatuan: 16:30, 19:00, 21:30, 0:00.  
Domekan: 19:00, 21:30.  
Astelehenean eta eguenera: 18:45, 21:15.

**Memorias de un zombie adolescente**  
Zapatuan eta domekan: 16:00.

### Scary Movie

Egubakoitzean eta zapatuan: 18:40, 20:40, 22:40.  
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:40.  
Zapatuan eta domekan, baita: 16:40.  
Astelehenean eta eguenera: 18:30, 20:15, 22:00.

**La gran boda**  
Egubakoitzean eta zapatuan: 18:20, 20:20, 22:20.  
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:20.  
Zapatuan eta domekan, baita: 16:20.  
Astelehenean eta eguenera: 18:35, 20:20, 22:05.

**Combustion**  
Egubakoitzean eta zapatuan: 20:15, 22:30.  
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:45.  
Astelehenean eta eguenera: 19:15, 21:45.

**Oblivion**  
Egubakoitzean: 18:45, 21:15, 23:45.  
Zapatuan eta domekan: 19:30, 22:00, 0:30.  
Astelehenean eta eguenera: 18:50, 21:20.

**Buscando a Nemo**  
Egubakoitzean eta zapatuan: 16:00.

**Buscando a Nemo 3D**  
Egubakoitzean eta zapatuan: 18:15.  
Domekan: 17:00.  
Astelehenean eta eguenera: 18:40.

**Un lugar donde refugiarse**  
Egubakoitzean eta zapatuan: 20:20.  
Astelehenean eta eguenera: 20:45.

**Posesión infernal: Evil Dead**  
Egubakoitzean eta zapatuan: 22:40.  
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:35.

### Alacran enamorado

Zapatuan eta domekan: 15:30.

**Los croods**  
Egubakoitzean eta zapatuan: 18:10.

#### GORBEIA

**Objetivo: La casa blanca**  
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:50.  
Zapatuan eta domekan, baita: 15:30.  
Astelehenean eta eguenera: 18:50, 21:15.

**Stoker**  
Egubakoitzean eta zapatuan: 17:45, 19:50, 22:00.  
Zapatuan, baita: 0:10.  
Zapatuan eta domekan, baita: 15:40.  
Astelehenean eta eguenera: 19:30, 21:45.

**El origen de los guardianes**  
Zapatuan eta domekan: 17:30.

**Ballet: Romeo y Julieta**  
Domekan: 17:00.

**Scary Movie**  
Egubakoitzean eta zapatuan: 18:30, 20:30, 22:20.  
Zapatuan, baita: 0:10.  
Zapatuan eta domekan, baita: 16:30.  
Astelehenean eta eguenera: 18:30, 20:15, 22:00.

**Buscando a Nemo**  
Zapatuan eta domekan: 16:00.

**Buscando a Nemo 3D**  
Egubakoitzean eta zapatuan: 18:10.  
Astelehenean eta eguenera: 18:45.

**Iron Man**  
Egubakoitzean eta zapatuan: 17:30, 20:00, 22:30.  
Astelehenean eta eguenera: 18:30, 21:00.

**Los croods 3D**  
Egubakoitzean eta zapatuan: 15:45.

### Iron Man 3D

Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 23:15.  
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 15:45, 18:15.  
Astelehenean eta eguenera: 19:00, 21:30.

**Combustion**  
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:30.  
Astelehenean eta eguenera: 20:30.

**Oblivion**  
Egubakoitzean: 17:35, 20:00, 22:25.  
Zapatuan eta domekan: 16:30, 19:00, 21:30, 0:00.  
Astelehenean eta eguenera: 18:40, 21:10.

**Memorias de un zombie adolescente**  
Egubakoitzean eta zapatuan: 20:20.  
Astelehenean eta eguaztenean: 21:20.

**Un gran equipo**  
Egubakoitzean eta zapatuan: 15:35, 19:45.  
Egubakoitzean, baita: 17:30.

**Gi Joe: La venganza**  
Egubakoitzean eta zapatuan, baita: 0:45.  
Martitzenean eta eguenera: 21:20.

**Tierra prometida**  
Egubakoitzean eta zapatuan: 21:45.  
Astelehenean eta eguenera: 18:40.

**Un lugar donde refugiarse**  
Zapatuan: 0:20.  
Astelehenean eta eguenera: 20:45.

**Los croods**  
Egubakoitzean eta zapatuan: 18:00.  
Astelehenean eta eguenera: 18:35.

## KRITIKA



### TOMBOY ★★★★★

Zuzendaria: Céline Sciamma.

Herrialdea: Frantzia.

Urtea: 2011.

Aktoreak: Cheyenne Lainé, Jeanne Disson, Mathieu Demi.

Iraupena: 82 minutu.

## Haurren mundu sekretua

Sentikortasuna eta naturaltasuna dira burura etortzen zaizkidan lehenengo hitzak *Tomboy* filma gogoratzekoan. Istorioaren protagonista 10 urteko neskatila bat da. Eta honek bere ahizparekin eta bere ingurunean bizi diren neska-mutilekin dituen harremanak dira filmaren ardatz nagusia. Neskatilak mutila izan nahi du eta bere gurasoekin auzo berri batera bizitzera doanean, lagun berriak egiterakoan mutila dela esango du. Ezkutatzeko horren prozesuaren lekuko izango gara: neskatilak bere gurasoekin, bere ahizparekin eta bere lagunekin duen portaera ikusiko dugu. Zoragarria da zuzendaria haurren unibertsoa hurbiltzeko

duen gaitasuna. Ikusten dugu haurrek euren artean komunikatzeko dituzten moduak. Kamera zain dute momentu guztietan: euren arteko jokoak, borrokak, sekretuak... oso ondo azalduta daude. Musika erabili gabe, zuzendaria haurrengana hurbiltzen da, baina horien naturaltasuna murriztu gabe. Badirudi ez direla kameraren presentzia ohartzen eta zuzendaria horrela horien begirada, keinuak eta sentimenduak harrapatzen dituela. Kamera haurren arteko harremanen esentziaz jabetzen da: errespetuz eta sinesgarritasun osoz.

Benetan harrigarriak dira haurren interpretazioak. Denak

ondo badaude ere, neskatila protagonistaren lana ezin hobea da. Guztiz ulertzen dugu pertsonaia jasaten duen egoera. Denbora luzean mantentzea ezinezkoa den gezur bat sortu du, eta guri gezur horren inguruan sortzen diren sentimenduak helduko zaizkigu. Ez da erreza hain modu naturalean haurren mundura hurbiltzea. Ez da berba gehiegirik egiten filmean, baina kamerak ederki jasotzen ditu eszena bakoitzeko atmosfera eta sentimenduak. Hala, Céline Sciamma zuzendaria zarata askorik egin gabe, haurtzarari buruzko film hunkigarria sortu du.

ANTONIO ZABALA



# goiena

2013-05-10

BUKATZEKO

## Bihotz zuri-urdina bai, baina galiziarra

- ▶ Iker Altzelai eta Igor Otamendi oñatiarrak Coruñaako Deportiboren jarraitzaileak dira txiki-txikitatik
- ▶ Realaren kontra jokatuko dute Ligako azken partida eta garaipena lortzeko itxaropena daukate

ARRITXU BARRUSO | OÑATI

Bi oñatiar taberna batean futbol partida ikusten eta Coruñaako Deportiboren golak ospatzen. Bitxia, ezta? Iker Altzelai eta Igor Otamendi dira, nortzuk bestela!

Oñatiko bi gazte horiek txiki-txikitatik daramate bihotzean Galiziako talde zuri-urdina. Askok pentsatuko dutenaren kontra, ez dute inolako loturarik Galiziarrekin edo Coruñaarekin; hori baino bitxiagoa da bi oñatiarren eta talde galiziarren arteko loturaren zergatia. Bebito jokalaria brasildarra ei da arrazoia: "1993-94 inguruan hasi ginen Deportiboren ibilbidea jarraitzen, Bebito jokalaria asko gustatzen zitzaigulako. Handik urte batzuetara brasildarrak taldea utzi zuen, baina guk Deportiborekin jarraitu genuen", kontatu digu Iker Altzelai.

Eta are harrigarriagoa da jakitea Deportibok batu zituela Altzelai eta Otamendi. Hau da, ikastetxe ezberdinetan ikasitakoak dira eta lagun-talde ezberdinetan ibilitakoak: "Nor bere aldetik hasi zen Deportivo jarraitzen. Elkarren berri izan genuenean, partiduak elkarrekin ikusten hasi ginen. Gaur egun ere horrela egiten dugu, Celtaren kontra-



Iker Altzelai eta Igor Otamendi, Deportiboko banderarekin | IKER ALTZELAI



Prentsakoz zenbait artikulua eta Deportiboren partiduetako sarrerak. | I.A.

ko derbiak edo partidu garrantzitsuak ikusteko elkartzen gara. Urretxun ere badugu Deportivo-koa den lagun bat eta hura ere batzen da askotan bazkari, afari eta ospakizunetara".

### Realzaleen adar-jotzeak

Bihotza zuri-urdina duten arren, ez dira Realzaleak. Talde bakarra jarraitzen dute eta hori Deportivo dela kontatu digute. Horrek, baina, makina bat adar-jotze jasan beharra ekarri die: "Realzale dezentetara ditugu inguruan. Oso bolada ona izaten ari dira eta gu, berriz, ez gabilta oso ondo. Behin eta berriz esaten digute ea noiz utzi behar dugun Deportivo eta Realzale egin".

Bada, galiziarrek Realaren kontra jokatuko dute Ligako azken partida eta bi oñatiarrak itxaropentsu daude: "Partidu garrantzitsua izango dela dirudi. Realak oso talde sendoa dauka, baina guk ere baditugu gure armak. Gainera, Real talde laguna daukagu, eta, guk behar handiagoa dugunez, lagunduko diguten esperantza ere badaukagu". Umore onarekin diote bigarren mailara jaitsiz gero Huesca, Miranda eta Guadalajarako mapak ateratzen joan beharko dutela.

### AZKEN BERBA

MIKEL IRIZAR



Alderik onena

Duela lau aste idatzi nuen zaborren kontuan alderdien arteko lehia ateratzen ari zela gizartearen alderik txarrean. Orduetik honako tarte laburrean, gertakariak pilatu dira gai honen inguruan, eta egoera iraultzen hasi da. Eta Elgeta herri debagoiendarrak zerikusi handia izan du zia-boga horretan.

Ez zaizkit xehetasunak axola. Zaborraren gaineko eztabaida zakartu eta gaiztotu zenean, uko egin nion batzuen eta besteen tartean sartzeari, argudioak ez zirelako argudio baizik eta harrika jaurtitzeko dogmak. Argi daukat zein den oinarritzako planteamendua: ahalik eta zabor gutxienez sortzea, eta hori lortzearen arduraren denok partekatzea. Hortik aurrera, iruditzen zait kontu tekniko delako moduak proposatzea, eta bizikidetzako kontua dela soluziorik egokiena aukeratzea, malgutasunez eta adostasunez.

Hain zuzen, bizikidetzaren ikuspegitik goreski nahi dut Elgetako akordioa. Xehetasunen gainetik, inporta zait alderdi guztien arteko akordioa, adostasuna lantzeko gaitasuna. Ze badakit kosta egin dela, eta horrek lortutakoaren meritua areagotzen du. Beste hainbat herritan ez bezala, Elgetako gainean gizartearen alderik onena azaleratu da.